


OLERTI 1982



BEAR DIRAN BAIMENAKIN



PATROCINADO POR
EUSKO IKASKUNTZA'ren
BABESEAN

© AITA ONAINDIA

Amorebieta-Larrea

Bizkaia

Depósito legal: BI 2.581 - 80

IGARRI, S. C. L. — Rafaela de Ybarra, 1 — DEUSTO - BILBAO-14

A U R K E Z

Dakianak daki itxaso zear kantatzen. Bidutz i gikor au, itxaso noski, orain bare ba daukagu, gero zirimoltsu dabil, dena ondatu ta ito-bearrik. Lemari trebeak, orraitio, zilbor izugarri orren bizkar ere badaki lerden jauzi egiten. Ala-ala guk, esan bear, aizete zakarrari ortz-egalak erakus-eraziz.

Asiak giñan OLERTI ateratzen, baiña ekaitza sortu zitzai-gun ustekabez. Eta or gu itxaso naasian, tirabira zorian. Eguzkia ala ere egunero agertzen, eta oztargi ongille orri millesker, argiz jazten zaigu berriro lur-azala, eta otzik egoana bir-berotu. Olaxe guk: berriro argi-adorez apain, kalera datorkigu aintziña xamarreko OLERTI aldizkaria.

Ekaitz-atzapar artetik irten ezifñik ibilli ta berandu xamar egin zaigulako, aurtengoz ale bat bakarra aterako dugu. Gerokoan ikusi egin beariko, bizi geran istori-liparra ez bait da nare jokatzeko egokiena; au da, itxaropen betezko asmo lu-zeegirik artzea ez zaigu bear bada egoki. Porrot egiteko arris-ku a urbilxe beti ere.

Emen datorkigu, beintzat, aurtengo ale au. Eta aurreran-tzean apika orobat egingo: urte barruan artzen, eskuratzen ditugun oler-lanekin bilduma edo txorta mardul bat eman. Zer derizkiozue? Euskal olerkariok, beraz, aurrerantzean izango duzue non argitara eman zeuron adimen-biotzak eio lanak. Zin-kurinka ibilli oi zerate maiz, Oihenart ifioiz bezela, ez duzuela zueron lanak non argitaratu esanaz; geroztik sustrai gabeko erosta duzue olakoa.

OLERTI-ren ateak, ba, zabal-zabalik daukazute aspaldi ba-ten bezela. Garai arten, bai, ainbat lan bikain osatu genuen elkar-lan errimean, elkar pitzazi ta azkorturik, ezpai gabe. Zer-

gatik ez gaur ere? Nik ez nuen leen —gaur traba aundia duguna— bereizkuntzarik egin ez olerkari, ez idazkera eta ez irizietan: bakoitzak zuen berea, beti norbere iritzi-zaleegi izatea akats biribilli dugunarren. Gaur ere, OLERTI-n, bakoitzak nai duen izkelgiz eta idazkeraz joka beza; onartua izango da emen edonor, norkeri ta bestelako salbuespen gabe.

Azken amar-urte ontan, malda beera joan zaigu euskal poesia. Tamalez diot au. Oso gutxi agertzen da aldizkarietan: bertsolarien lanak geiago olerkarienak baiño. Poesi-liburuak ere naiko urri. Sariketa politikak antolatzen dira; baiña zergaitik jakin ez —nik ba dakidan arren—, sariketa oietara olerki gutxi aurkezten da, eta funts aundi gabekoak itxura danez, olerki-sailla geienetan eremu —elkor ta murriz— geratu oi da-ta. Ea, poetok!, biotz on!, ar idazkortza atzar-tean, eta Musa an-dere adeitsuei txingarra eskatuz, saia zoli olerkigintzan! Bear du gure erriak.


Aurten ere, azken orrian iragarten dugunez, ogeita irugarren urtez Olerti Eguna ospatuko da Larra-n, udazkenean, azaroaren 21-an. Bial ezazu zuk ere zerbait orduko konkurtsorako, ez gero diru-goseak eraginda, euskal olerki-miñak bultzatuta baizik.

Azkenik ezkerrak biotz-biotzez olerkari guztioi, baita arnasa-z eta diruz babesten gaituzuen guztioi ere, Eusko Ikaskuntzari berarikoz.

A. O.



POESI JATORRA



ANDERE HAUNDI...

Andere haundi, andere haundi
Andere haundi bat iduri
Itzuli-mitzuli...
Begi-keinuka, ardura deika
Andere hori ari zait neri
Itzuli-mitzuli
Dena tripustelkeri.

Andere haundi, andere haundi
Haundi bezain itsusi...
Itsusi, itsusi:
Suge eztena, zaia beltzak
Heriotzearen hortzak
Andere hori, andere hori
Ezin dezaket ikusi
Baita zinez beldurgarri.

Andere horri, andere horri
Iheska nabil, iheska
Noiztenka, noiztenka...
Baina ba dakit, ba dakit garbi
Bihar edo etzi
Andere horren beso artera
Beharko dutala erori...
Errori, erori.

Andere horrek, andere horrek
Behin betiko
Bereganatuko nauenean
Egun batean
Ez dut nahiko
Lorerik
Nigarrik
Are gutiago
Laudoriorik.

Ehortz nezatela, ehortz nezatela
Langileak, LANGILEAK
Ehortz diren bezala:
Xume-xumeki; xume-xumeki.



Eta zilo barnean
Geldituko naizenean
Bakar-bakarrik eta hotz-hotza
Hotz-hotza
Zuen bizitzak segi beza,
SEGI BEZA!

1975/5/26-an.

D. Landart

ERIO - DANTZEA

Iratxoen gau-ondarreen,
arima larrituen larria labanean,
sorgin, iratxo, lamiña ta gizatxar
lorriñen lorriñean lorrinduta,
odol eta izerdizko
aro lorriñean diardue,
dantzarik baldrasenean naasirik,
iskillazkarren eresi ankerren igieran.

Goibel dago
Euskalerrriaren osertz odoldua
itxaropen apurtuaren kolore illunetan.
Zidor ezkutuetao oiartzunak
beredin itaun eguratsean;
minbera dira biotzak,
geroari adi,
atsekabezko illun nabarmenean.
Txillioka doaz, zaldizkoetan,
naibagetuen didar urratuak,
eta etorkizunari adi ikusmena,
konkor dagoz zaarren entzumenak.

Ixillik dagoz inguruak
musika ankerraren aro naasian,
gogoak ilten dituan
iskillu erailleen eresi zantarrari adi,
Euskalerria samintzen diarduan
iltzailleen dantza baldrasari.

Baiña,
odol eta izerdiz margóztutako
larrin labanean
erriaren kemenak berein uste ditu.
Sorgin, iratxo, lamiña,
zapaltzaille ta iskillu-artean,
suzko esietan kateatuta,
itxaropen apurtuak dardara dagi,
maitasunaren ego urdiñetan.

Eta egunsenti naibagetuan
urduri dagoz arima larrituak
odol eta izerdiz ezkotutako
larrin goibelduetan, zutik,
asaben askatasun-oiartzunak entzumenetan,
iratxo, lamiña, sorgin eta gizatxar
argiaren bildurrez ezkutau diranean.
Iskillazkarren eresi ankerra ixildu danean:
Erio-dantza baldrasa eten danean.

Guztia dago ixillik
gogo-taupadetan,
illotzeri adi,
askatasuna ames,
erriaren etorkizunean ustea dabefa,
soin eta gogo, indar guztiakaz,
zalantzazko geroari begira,
aberriaren neke odolduan.

Aurre-Apr aiz

ORREAGA...!

Azken-gudako odola oraindik
nabarmen zan ezpatetan,
etzun erdoiak kabirik egin
euskaldun guda-tresnetan.
Burruka batek beste berri bat
zakarren beti zaiñetan...
Pakea nai-ta, etzan pakerik
Euskal-erri mendietan...!

Erri koxkor bat besterik etzan
garai artako Euskal-erri...
Erri koxkor bat, arkaitz artean
pakean bizi zan erri...
Askatasuna ez galtzarren
egin zitzaigun gudari...
Amaika odol ixuri zuan...
Il ziran gazte ugari...!

Lengoak lengo, oraingo etsaia
KARLOMAGNO bera degu.
Gudaroztea biltzen ari da,
ROLDAN gaztea du buru...
Ametz bakar au, aren buruan:
euskalduna menderatu...!
Maltzurkeriaz, lapur-antzera
Euskal-erriaz jabetu...!!!

ALTABIZKAR'ko artzaiak, orde,
begia luze urrutira.
Arei etzaio ezer izkutu,
ba'dauka nora begira...
Gudari aien burni-jantziak
eguzkietan dizdira...
Maltzurkeria, maltzurkeri da
besteak lotan ba'dira...

Guda-santsoak jaiki erazi du
ARTIZAR buruzagia...
Urte asko-ta, aren begiak
ez dute lengo argia...

ARTI gazteak emango dio
ark jakin nai-dun berria...
Zenbatutzea ez da erreza,
aitor dezagun egia...!

Zelai batean belar bezela
ager dirade etsaiak.
Millaka dira. Millaka asko,
ezin zenbatu erdiak...!
Amil-arkaitzik ez ba'digute
ematen gure mendiak,
ez dira asko, aiek danentzat
Euskal-erri'ko geziak...!!!

Amets gozotan, sartu da, sartu
ROLDAN gazte ORREAGA'n.
Euskal-erri'ko neska gordiñak
irrika ark biotzean...!
Ezagutzen ez...! Ikus nun dauden
mendi-gallur guztietan...!
Etsai-ar-tean erregin baiño
il naiago gudaketan...!

ORREAGA'ko meargunea
estua eta luzea,
illobitzako ederragorik
ez da errez billatzea...!
Ez da bizirik andik irtengo
ROLDAN gudari gaztea...!
Odol-erreka biurtuko da
arkaitz-arteko bidea...!

Ea mutillak, orain dek ordu...!
Aska errotik arkaitzak,
zilipurdika irauli eta
artu eskuan ezpatak...!
Bizirik ez dek iñor irtengo...
Indartu zuen biotzak...!
Euskal-erria'n gu gaituk nausi
lekurik ez dik arrotzak...!

Meargunera eroritako
arkaitz zirrikitueta,
diz-diz dagite ildako danak
illargizko argietan...!
Ixilik dago ARTIZAR ona,
begi biak malkoetan,
bertsolaria jeikj da eta
ekin dio bertsoetan...!

Ilketa aundia egin ba'degu
ez da errua gurea,
iñortxok ere ez du maiteko
guk maite-aíña pakea...!
Euskal-erri'ko askatasuna
ezin galdu da ordea,
ikus bezate emen etsaiak
guk degun joka-legea...!!!

Albisu'tar Anastasio

JUDAS

Lagunak utzirik irten da betillun
deabrua bera erraiñen erdian;
Kain'en aserre bizia aurpegian
asmoz eta gogoz pekatari lizun.

MAIXUA saltzera dijoa leiadun
diru-naikaria nausia barruan;
diruaren billa eztabil kolokan,
beretara zuzen, ba-daki zer nai dun.

Artu-eman egin, dirua arturik,
bere egitekoa burutzera joanik,
MAIXUA jarri zun etsaiaren esku;
gero erraietan suak kiskailja
baratzera joan-da zuatzaren billa,
etsi-etsian bere burua urkatu.

Biurko

GAIXOETXEKO LEIOTIK

Goiz etorri da
nere gelara
eguzkiaren
izpia;
goiz ere asi
da inguruan
eguneroko
bizia.

Or dago Zizur:
zenbait etxalde,
eliz ta kanpai—
dorrea;
begiratzean
gogoratzen dut
lili arteko
lorea.

Kale bateko
erri ontan dut
adiskide min,
zaarra,
zintzo da, apal,
berdingabeko,
zeru-lurretan
bakarra.

Oieratuta
nagola, ezin
aren ondora
joaterik;
ajola gutxi,
beti gaude-ta
bata besteren
atzetik.

Aspalditikan
elkarren billa
gabiltza bizi-
bidean;

eta maiz elkar
dugu arkitzen
goragarritzko
billeran.

Ba-daki Berak
maite dudala
biotz kaskar au
osoaz
eta lotuta
naukala beti
maitasun-kate
gogorraz.

Ixil-ixillik
bizi izan arren
aldaretako
etxolan,
nere barnean
Arekin nago
maitasunezko
leloan.

Alde orotan
dagola, erraz
artu Arekin
arr-eman;
Bera daramat
Berak narama
alkarganako
batzean.

Ene maiteak
erakutsi dit
maitasunaren
legea:
bere biotza
eman dit eta
nik eman diot
nerea.

Zizur txikian
zaudela zenbat
urte dirade,
Jaun ori?
Ba al dakite
Zu zaitugula
zeru ta lurren
nagosi?

Zu ikustera
al datoz, eta
men ote zure
deiar?
Biotz oneko
al dira ala
lotuta diru-
leiar?

Oi, ba'lekite
zein xamur zeran
gizonak maite
izanik;
beren biotzak
elituteke
ain otztu eta
itzalik.

Oi, ene Jesus,
bedi Zuretzat
biotz guztian
beroa,
eta ar nere
maitasunaren
len, orain eta
geroa.

Biurko

AMILDERRI

Nora goaz, nora...
Alda-aro illun onen
aur-miñetan,
ospel-bidean agin-karraskaz,
azpi-joku maltzuraren lotsaz;
itxumen sarea
begietan...?

Noiztiko zauri irikiaz,
erri-zentzua gain-beera;
ta arri-kurutza otza,
erkideon bizkarrera,

Aldiaren eraso beltzean,
argi-urratsa ozkirri;
eguzki-begi erraiñuan,
illargiak gandu gorri.
Ta bularrarte izoztuaz,
odol-zelai Euskalerrri...

Logunearen zoramen nagian,
auzoko aitzurrak
baratzan,
egurats naastu onen
lur-mamian
dantzan.
Gu, oin-semeok;
zapalduen miñaz,
indarraren griñaz;
senitarteko
borrokan.
Eta millaka amaen
negar-malko osiñetan,
etsaiak
arantzan...

Gure itz borobillak...
Auntzaren gaberdiko
putzak!
Egiaren erraiñu ba'lrake,
zinzurraren indar soria
txapelpean ba'genuke...
Kako bakoitzak ausnar-bide luke!
Baiñan itz arin aldakorrak;
geure uztarrira ezitzen ditugun
itzak;
sarritan zurikeri
utsak...

* * *

Zenbat ataka;
ainbat matraka!
... Barka iguzu,
zer diardugun ez
dakigu-ta...

Ugarte'tar Martin

ARRATS - BETEAN

Ganduaren oial-zorroa,
zeatz biltzen sabelera:
Arrats-ñabar jantzi umoa,
amets bateratze leloa;
gau-beltzaren pardelera.

Lurrerantza urbil miñetan,
Zeru-estalki zaba[ia];
eztia ezpain axaletan,
ttanttoak begi-ninietan,
t'ukuitze laztan apala.

Ikusgune ari-zidorrak,
bepuruetan esiak:
Argi-bete errots aztarrak,
entzumen xaloen aparrak;
sabel-utsak irentsiak.

Gau-txori karraxiak sori,
ixil-ausle aldi-maldiz:
Ospeleko kiribildari,
ur-opiltze mur-murtza ori;
Lamien arrabots bailitz.

Arrats-beeraren ondarretan,
gain-zapixka irekia;
inguru-lauso makarretan,
sabel utsera kirikakan;
ilbeera laurdenkia.

Illun-ixillak eriorantz,
gau-bel[tzaren sein bixkiak.
Zain-lertze-beldur giliberaz,
au uats-aurrek adieraz;
—egun-txintaren izpiak.—

Ugarte'tar Martin

ANTZ - BIDERA

Osasuntsu omen,
San Joan goizeko
intza,
Txori-izugarri,
egunargitan
ontza...

Atzo; —alabear San Joan goizean,—
Ontza ikusi nun pagadar kakoan.
Txoriek pilloka inguru-luzean,
gau-lorra galtzera lokamux zegoan.

Pago-buru jiran basa-egaztiak:
Xoxo, Birigarro, Kaxkabeltxa, Pin-pin,
txorrotxio-irriz eztenka guziak.
Txepetx utsa ere, keñuz altxa zadin.

Arratsaren leran txori-izugarri,
oiu-karrasika jarduniko Ontza;
begi-zuri-zabal denon parregarri,
berekín zularik larru-bete lotsa...

* * *

Atzo ezik gaur bertan,
—Santu-biaramon
goizean.—
Ontza berriro ikusi det,
oraindik ego aztarrik
ez daroan Ontza...
Ta ez baso-zorroko pagadar
tarteetan;
Auzo-ardandegi aurean etziñik,
arri-exerleku
otzean.
Auzoko txoriek muxin dagie;
ez mokoan irririk,
ez azalean begirik,
naiz-eta zelatan irri-bete,

leio-zirkil
barnean.
Begi biek gorri-txatxuturik,
ille-bizar luzeak naasturik
okotzean;
bart-arratsean «gau-pasa»
oiuz lerturiko Ontza aurrelaria,
bare-kurkuillua bezain motel
argiak
jotzean...

... Atzo, Ontza ikusi nuen...
Berriro gaur ikusi det;
—Santu-biaramonean...—

Ugarte'tar Martin

URRE - EZTAIETAN

Bart gabean
amets egin det;
amets,
lokamux
argitan.
Aiton-amonen
oe-ondoan
Aingerutxo bat
muxu ta muxu
ari zan...
zuri aittona,
zuri amoña;
masailla muttur
bietan...
baiñan maiteon
gilikatzaile Aingerutxoa
idurimenez
neue nintzan!

* * *

Onatx berriro
billobatxoa
muxu ta muxu,
ta milla muxu;
zeuron urrezko
eztaietan...!

Ugarte'tar Martin

MARI - PANPOX

Nundik zatozkigu irriparrez,
eta nora, albistari txiki;
zazpi soñekoz panpox jantzia,
ta zazpiek bitxi-bitxi?
Txuri-beltx, orixka ta pinttarre,
zenbat puxketan nork daki...
Leena kentzeke ez ote gero
gaindik pollitena jantzi...

Ta, zertara egarazko xotil,
gizaki lotion betartera,
negu-zorrotik iges datorren
oskarbiaren arabera?
Jira-biraka, keiñu ta axanpa,
lau egotxoak batera;
argi-leenan ezkil ttankara
baizifñakean antzera...?

Egazka artxo jostalaria,
mireskätuaz lur-mamia;
zuk aurrez dakarkiguzu
alda-giroan berria...

Kozka-moxka bakoitzen
tarte neurtuan kiribilka,
lore-ninieï belar izpiei,
aldian birritan mun emanka;
uin txaldanak arrotzen daron
lurrin ezkoan ega-txaplaka.

Une-uneka jetxi ta altxa,
jolas leloan belar-loretan;
anka-maxkarrez izpi-mizpika
ariltzen gisa abian bertan.
Loreek diran ainbatsu begi,
ego bakoitzak auts-axal ortan...

Arrotz baiñan maitagarri,
aldioroko neskame.
Ez egazti,
ez narrastari...
Ez diguzu esan nai,
zer zeranik ere?
Ezkongai muxu-berri,
egungo ikustale;
nora-ezean,
alderantzean...
Iñoiz utzi ote zaitugu
eskertu gabe...?

Billuztasun antzuaren baitan,
odol otzeko artxo bat baizik.
Ameraunki egats txepelez
ez lumerik,
ez illerik;
milla margoen naaskera arturik,
bi azkaxal-bete auts-lika ezkoa.
Auxen zaitugu bakar-bakarrik!

Alda-giro neurtuaren zilla,
bizi-lege mugarria;
ta zuri ere, moteltzen doakizu
egaratzka biurria...
Nora ezkututzen zera erio-beldur,
mitxeleta jostaria?
Auts-gizi ortandik sortuko ote
gero-oññaren bizia...?

Baietz diozu...?
... —ez oin, da ez ego,
artxo iguinkor nagia;
baiñan geroak ba'deza,
nik darodan
eder-lillura guzia...—

Ugarte'tar Martin

UTSALKERIA

Oi! Zein eder, zein lerdan
ibaitxo ertzean
euzki-bedar oria
lilluraz egoan...
Urrezko burestuna
ikusiz buruan
mintzo aizetxoari
arro egin eutsan:

«Ez da baratz guztian
ager ni lakorik;
lilietan liraiñez
ez liraiñagorik;
baratz-inguru oro
neure mende dot nik;
nire ederra ikustean,
lorak gur apalik.

Ziñez, goi-euzki iduri
nire betartea;
ene atsegin oro
euzkia ikustea.
Ta arrats-bera epelez
ibaitxo barnea
—ene aurpegi-izpilla—
pozez ikartzea...».

Putz aizeak gogortxo,
ta aurpegi aratza,
lasto biguna ausirik,
ibaitxoan datza.

Lon Arteaga

ETIENNE SALABERRY

Ortziak bota derauku Heletako haritza,
Iparrak ezin zuena zerk ote du ekarri?
Goiko jakintza ozkarbiz hain zelarik egarri
Holtzarten zaio erori azkenean kalitza.

Izpiritu gazteen artzain zeraukutan ezarri,
Zeru-lurrei so egile gaitu gu be atzarri,
Haren baitan lasai zagon Baigurako arkaitza.

Berpizkunde berrikoa zen apez humanista,
Nolaz daiteke bizitza beti hain optimista?
Lurretik oldartu zaio gudukaren ekaitza.

Humusetik gatozenak, hartarat ari eta
Humus baizik ez garenaz, super humusik ez da
Baina gizonean dago Jaunaren ohorea,
Ez da hilen gu baitan hitz horren podorea.

Bizi oso baten aurka, azken hutsik ez dago,
Baina gaur nigarretan da kanabera soil frango.

J. L. Davant

EDER DA KRABELIÑA

Eder da krabeliña,
zu, Igone, ederrago;
miresgarri zaiataz,
zu miresten nago.

Gizaki-baratzean
zakustaz lardenki,
larrosaren aillean
usaiñez ixurki.

Gazte sasoiz orrela,
gorriz txit margotsu;
ekaitz artean bere
ez zu iñoiz izutu.

Eder da krabeliña,
zu, Igone, ederrago;
miresgarri zaiataz,
zu miresten nago.

Zu zaitut kardantxillo,
zeru goi-goi kantari;
naiz garitza emean
soiñu emokari.

Erlauntza zaitut gozo
muiño egalean,
txit lanari lotua
ezti markatzean.

Gurin jario beti,
urrezko margoa;
iñoiz ez gogaikarri,
orrazi gozoa.

Eder da krabeliña,
zu, Igone, ederrago;
miresgarri zaiataz,
zu miresten nago.

A. Onaindia

NIRE LAGUN BAKARDADE

Udagoien ile urdin
nire edade,
nire gelan nirekin
bakardade.

Ez nago ni, ostera,
horren bakar;
zure bihotz barnera
berak nakar.

M. Zarate

BILA NABIL, GIXAXOAI

blo etakale
blok etakal
bloke etaka
blokeetakaleakblokeetakaleak
blokeetakaleakblokeetakaleak
blokeetakaleakblokeetakaleak
bloke kale blokeetakaleak
bloke kale blokeetakalea
bloke kale bloke
bloke kale kale
bloke kale blokeetaka
bloke kale blokeetak

blokeakalea
blokeakaleak
blokeakaleakb
blokeakaleakbl
blokeakaleakbl
blokeakaleakb

etani arnasabila zaharbatl
etani txoribila haurñobatl
etani lorebila neskatobatl

emateko
erakusteko
erregalatzeko

etani	euskaldunbatenbila	euskarazhitzegiteko
etani	euskaldunbatenbila	euskarazhitzegiteko
etani	euskaldunbatenbila	euskarazhitzegiteko

M. Zarate

BESTELA ITO EGINGO NAUZUE, HIL

Ez!
Ez, ez!
Ez, ez, ez!
Ez dut nahi
gure hizkuntzaren
zeharkeriazko kutsaduraren
etangabeko zurrunbiloaren
zurrupa mareagarriaren
zorabiozko jirabiraren
goitika higuingarriaren
ezinegon larriaren
bizi ezinaren
ezinean bizi.
Ez dut nahi
lehenaren itzalean
galduriko euskararik,
lehenaren lurpean
ustelduriko euskararik,
lehenaren urkamendian
hildako euskararik.
Ez dut nahi
hitz, hizki, hizkuntza
arkaiko ulergaitzik.
Ez dut nahi
axularkeriarik,
ez dut nahi
larramendikeriarik,

ez dut nahi
aranakeriarik.
Ez dut nahi
sitsak jandako euskararik,
euskara herdoildu hatsitu momiatu-
rik
Atera nazazue,
mesedez,
faborez,
otoi,
museotik,
kanposantutik.
Euskara bizi berri batu gazte bat
nahi dut,
gaurko arnasa, izerdi ta odolez
oratua,
baserri ta hiriz
osatua,
gozoa ta garratza,
leuna ta latza,
egunerokoa,
edo zertarakoa.
Atera nazazue,
mesedez,
faborez,
otoi,
museotik,
kanposantutik...
bestela ito egingo nauzue, hil.

M. Zarate

ETXEPAREREN KONTRAPASEZ ORAINDIK

EUSKARA!

Europa zaharreko
erlikia lerdan,
bitxi zapalduaren
nekezko iraupen:
Europa berria duk
hire itxaropen.

EUSKARA!!

Gazteen odol berriz
berritu ondoren,
Europaratu hadi
orain eta hemen,
Europarekin bai duk
betiko iraunen.

EUSKARA!!!

M. Zarate

MATTIN LAGUN ZENDUARI

Trixtura aipatzera gaurkoan banao
Bihotza serioa ta kexuan gogoa
Berriki galdu dugu lagun arraroa
Denek maite ginuen Mattin dalakoa.

Ezin ahantzia da holako trixtura
Euskaldun aurpegia zurekin histu da
Berriz bagindu Mattin kusteko mentura
Laster ekabo laike gure minen duda.

Omore ona zuen Mattin-ek lehenik
Irria ezpainetan baitzuen maizenik
Bere denboran gizon alaia izanik
Badea nehor hartaz orroitzen ez denik?

Aizu Mattin zurekin iragan denbora
Maiz oraino etortzen zeraita gogora
Laster airatu zira Jaunaren ondora
Guk ordaindu gabea ginaukazun zorra.

Gau eta egun zutaz nago pentsaketan
Zure obrak gelditzen direla jendetan
Irakurtua zauden aldi guzietan
Biziko zira, Mattin, gure bihotzetan.

Ahetze herria gaur zorbatez dagon hits
Zere galtzeko mina senditzen du bortitz
Bere seme izarra maite zuen ainitz
Zer atsegina luken berriz baladi pitz.

Joana joan dela gogoan nindagon
Sobera xangrinetan ez gaitzen egon
Bizi zelarik, Mattin, alaia baitzagon
Zeruan ere badu nahiko zorion.

Gu bezain uros dela pentsatzen dut egun
Mattin-en arima noiz izana da ilun?
Berekin tu zeruan hiruzpalau lagun
Xalbador, Zubikoa, Errexil, Etxahun.

Ahaztera nindoan lagun bosgarrena
Hura zuen Mattin-ek bat Arotzarena
Xalbador-en urtean itzalia dena
Gutan geldituko da zuen orroitmena.

Nola zeru zolatik izarrak erortzen
Koblariak berdintsu zaizkigu agortzen
Euskaldunen lurra da hasia idortzen
Jauna, lagun gaitzazu fruitu berri sortzen.

Nahi dugu ordainak ditezen atera
Denak itzaliz nun da herriko manera?
Azia daukatenak zaitzete bolera
Koblaria sekula ez baita sobera.

Bizia akabo guk ere ixtantean
Dugula erroituta pentsatzen hastean
Ene nahia laike Mattin gu jitean
Beha kausitzea zu zeruko atean.

Jean Arrosagarai

PRESAKA BIZIAN

Sinisten dizut, gazte. Presa dezu, noski.
Presa dabe ez du irixten gazteak ezer bizi alakorik.
Bizia, presa utsa da,
eta gaztetasuna ez da iges egiten duen presa besterik;
egunero bada norbait emezortzi urte dituen.

Adiñekoak esango dizute: «Ez presaka ibilli,
urte luzeak dituzu aurretik».
Bai al dakizu aurreko urte oiek zer diran?
Gizondu,

zartu,
amaitu...

Eutsi gaztetasunari atzaparretan;
indarrean lotu.
Karraxi,

jo,
asarratu.

(Gaur, aur bat besterik ez da
biar zu, bide ondotik bastartuko zaituena bera).

Arozamena'tar Jesus M.^a

JAINKOA LAGUN

Ur,
su,
lur.
Jainkkoa lagun.

Izar,
ibai,
arkaitz.
Jauna sinesgaitz.

Aizea,
leizea,
apeza.
Jesus bidea.

Agerkunde,
gizakunde.
igokunde.
Jaungoiko ume.

Maitetasuna.
Baketasuna.
Zuentasuna.
Jainkotasuna.

A. Anasagasti

GIZONA

Eskeko bat ikusi det
zikintasunez beterik.
Pentsatu nuen:
gizona al da,
ez abereki?

Ez zuen jantzirik narruan,
zaborreriak bakarrik.
Gorputza ageri
trapu zarraren
eun ertzetatik.

Usteltasunaren atsaz
bete zun gorputz-ontzia.
Ardoak gorri
jantzi zizkion
sudur, matrallak.

Zutik zebillen. Ta loan
bere adimen zauritua.
Bi begietan
azaltzen zaion
zoro asikera.

Erreka garbiagoa.
Loreak usain ohea.
Txoriak kantu.
Tximimua ere
argiagoa.

Baña narru barrenean
Jainkoaren antz, irudi.
Kristoren odol
bere zañetan
bizitz-iturri.

Kendu zikin, atsa, ustel.
Kendu mozkor, zoratasun.
Lokatz barrenan
diamante bikain
billatu dezu.

Itxi begi ainitsuak.
Iriki fedezko ateak:
ez da munduan
ain edertasun
maiteagorik.

A. Anasagasti

IRU ONDASUNAK

**Bakarrik dakust pozgarritxo bat,
Eyskaldun amen fedia;
Benturaz onek bigundu leike
Jaungoikozko asarria,
Eta zerutik jatsi barrero
Galdu zan libertadia.**

(Felipe Arrese Beitia)

Ez ziñan, ama, filosofoa,
ez aunditasun laguna,
bazter galdutako loretxoa
Jainkoarentzat kutuna.

Senarrentzako zure gorputza,
senarrentzako biotza.
Eta gurentzat titia utsa
umeentzat ain gozotza.

Ollar batek, gaizean goizik
bizitzari arpegia.
Gabean, barriz, ezin otoitzik
barik, itxi zuk begia.

Gu jolasean, ta zu lanean,
guri poza salduteko.
Guri atsegiña irabaztean
osasuna zuk galtzeko.

Apaizak baño beroagoak
zure labako tremesak.
Sua pizteko billatu ostroak:
Goiko Jaunaren promesak.

Olatu ugari etxe pobrean,
batzuetan esku utsa.
Iztutu ez, begitu aurrean:
Jesukristoren kurutza.

Bildurrik santuaena ikasi nun
zure magale goxoan.
Munduko olatu danen artean
beti izan dot ain gogoan.

Berak emon dost ordu illunetan
argitasuna lepoan,
ta bizitzako iztu aldietan
indarra gizon osoan.

Zabaldu zendun azi txikia
neure ume-baratzean.
Gari ederrak, uzta bizia
zureak dira, benetan.

Il zaitez, ama, zeru-bakean.
Biotzean dot zure untza:
josi dostazuz tesoro onenak:
bizitza, Fede ta izkuntza.

A. Anasagasti

LORATAN DAGON ZERUARENA

Ez dakit goizaldea ala illuntzea dan.
Itxasoaren ala garitza zibuzabua.
Dakitana da lagun bat dagola begian.
Gutziz Aundiaren itzal biziko ikutua.

Azkenik-eza somaturik neure barrengo
Ikaraz, ederrik, so dagit aunditasuna
Loturik lainkoaren zeruaz, an gorengo
Neure biotzeko ikusmira laztan kutuna.

Olinpu bat da loratan! Ogia lorabegin:
(Txibiz, urtegiz, ikur, zintziliko, olatuz...)
Dana dardakari eta dana ain sinistu-ezin.

Itz barik obeto dabestsat ene zeruari,
Neure alegiñen lorean txutxumuskatuz
Bakezko ixilgune bat, neurri бага, ezti.

Muniategi'tar Sabin

ITZAK

Itzak
aizea
ikutützean
txoriak dirudite
egazean,

goi aldeko
ortzitar
edadura
zabalean;
izarño dirdaitiak
ñirñirrean
zeruetako
argitasunean;
mundu bat
azkuntza betean
eresiaren
alorrean;
itzak
nasi-masian,
egunoroko
ogi-bidezko
bizi-bearraren
kosmos aundiko
ibilliaren
bata-besteko
eragiñaren
bizi-poema
betikorrean.

Muniategi'tar Sabin

VERLAINE GOGORATUZ

Ezebezko euri tentel. Txiri, txiri, txiri...
Txirtxil baten antzera oskari, atengabe
Euria, euria, euria... ain gogaikarri:
Euria eguñaren oñarri ta zutabe.

Bustitzen dun ala ez, asko ez da nabaitzen
txiri, txiri, euria dagi gogoz poliki,
euria, euria, barruraño zaigu sartzen
euria negargura gozoz ain ildurati.

Arrats gorri aize edo euri. Bai, orrela
margotu zan atzo illunabarra ain gorri
ta, gaur ona emen euria, ixil-ixilla
goibelki... ai, euria ote ala aterri?

Begiak tristuraz itun, gogoa itunago,
eguzkirik ezaren goibelduraz intzia
eta, busti ez busti, garastatua nago
egunaren arabera arima guztia...

Miñik ez ta, egundo ogia euki-arren
eztatik zeren nai ta kezkaz ari naizen
eztatik zeren auldurapean nabillen
eretzki batean soifia ondo dagonarren.

Gaixo ote dut baruko gibela, gogoa
etenduriko ixillezko arien batez,
gaixo ote dut ene biotzaren izangoa
zauri antzeko ustasun, zerbaiten zerbaitez?

Au itunkera utsal ta ganorabakoa!
Txiri-txirizko euri mear, euri ezbaiez,
txiri-txiri ta, ezebezaren ezebezez
olan zauritzeko nire ametsen auspoa.

Muniategi'tar Sabin

ITXASOA

Aldakor da itxasoa
aldiz aztun ta, gogorra.
Deungea ta izukorra
ekaitz illunen orroa
edota baita leguna
atsegin ta lastankorra
ur-zelai otzan, barea,
erabat sakon, kutuna.

Urpetza zoragarria,
ederra, ezin ohea,
goratsu ta pozgarria;
ta, egun ozkirrietan,
zerutasunez betea.

Oiñez ibilteko eran
zelaitasun urdin-arrez
gure ibilte gogoa
amets-eragin sorgiñez
aunditzeko añakoa
egun-sentiz, arrats-beran.

Edo alderantziz, gogor,
itxutasun nabarmenez
txistu-oska ta, bitsetan
inpernutar eragiñez
aizeak erabat mozkor
ontzi eta arkaitz gaiñez
ugifñakin batera, or,
ekiñaldi zorrotzetan
erasotzen dutenean...

Bai garratza itxasoa
alako abordanapean,
osertzik osertz, illuna
gaiñferatzen zaigunean
kokilduz gure gogoa!

Gau-egunen goiberatan
bizitzaren antzekoa:
igikorra ta zoroa,
beren ioan-etorrietan
gizonaren erakoa...

Muniategi'tar Sabin

EGUN ARGITZEN

Txintada otsez egun argitzen
ari da-ta, eguzkiaz batera,
txoriek egal batik bestera
dabiltz goizari poza emoten.

Basoetako oiartzuna dator
udaberritar berbizte alaiz;
bizi-eragin itxaropenkor
eta amesgarriak sortaraziz.

Egun argitze eztikor onek
bizi etorrera ederkorrez
esan daikegu bai, obeagoak
egiten gaitula alabearrez.

Maitezko erantzukizuna da
Loreillak dakarrena goibidez,
aurrera kementsu iarraitzeko
egun barrien bizitasunez.

Muniategi'tar Sabin

NESKA GAZTEA

Goi-bideturik
bere ortzian
maitez, ederrik,
bizi, naiean.

Neska gaztea
kantari dabil
erdi txoratil,
gogoz betea.

Kolkoan pilpil
ametsak lorán
eta, begietan,
dirdaiak bipil.

Begien erdin
itxaropenez
biotza agirin,
taupada emez.

Orra ba, maitez,
txiruliruka,
txindor abotsez
udaberrika.

Aizea legun
landa, soloetan,
lantzanka kutun
osto berrietan.

Auxen gertari
zoragarria,
bizi-iturri
goresgarria!

Begietan biotza
maite mintzoka,
erabat lotsa
norbaiti «soka».

Muniategi'tar Sabin

EMANTZA

Azkatasunaren aldeko gogoz
eman bidetari zeure argia,
benetako poztasun, bizi-ardoz
eman zeure barruko abestia.

Abestu bedi egiak, biziak
ederkuntzazko gogoaren agoz,
abesti alai ta arnagarriak
bizitzaren bizitzazko goi-asmoz.

Iaso bai apalik zeure abotsa
maitetasunezko esku zabalez;
iaso bulartsu zeure nai beratza
itxaropen sendo baten egalez.

Ez dedilla izan aspergarria,
gogorra, minduratia, itzala;
ez dedilla izan illungarria
zure abestiaren sen, magala.

Baizik ernaia, aberasgarria,
argizko emai, ur garden gozoa,
eguzki erraiñu berogarria
bizitzaren bizitzazko zantzoa.

Izan bedi udaberria loran,
euri mamizko ezotasunean;
erleak, txoriak, ingumak egan
zeure abotsaren goitasunean.

Beartsuen, menperatuen lagun,
abots ezti, aldiz erabat dogor;
izan benetako esku, maitasun,
beti erori alde, itxarokor.

Muniategi'tar Sabin

NEUREKERAK

Ontasunaz ederrera
mundu anaitsuago baten
lagun arte, gizartera.

Maitasunari eskerrak
ederrik loratzen dira
nire egunen iberrak.

Maitasunik ez banuke
goibeldurazko munduan
otzakilduko nintzake.

Soil-soilik ametsa naiz
udeberritar lurriña
itxaropenezko emaiz.

Egun ona zait atsegin
ekaitz gaiztoak ordea
biotzean ematen dit min.

Arako gau sakonetan
so dagit so goietara
izar argi billaketan

Nik ez dut ez izpiderik
nire oldozkuentzako
oldozkuna naizelarik.

Danik gogorrenik ere
eusten diot biziari
ibiliarren noragabe.

Gari-buru argidoiek
dizditzen dituzte bai
nire gogozko zelaiek.

Bizitzazko neke-pozez
gizabidez, bidebera
darrait egia zer otez.

Muniategi'tar Sabin

U M E Z A R O K O

Umezaroko urte goikarietan,
berein nimiñokeri, ezer gitxiz,
poztutzen ziran bai, gure egunak,
baserrietako atari, landetan,
gazi-gezazko amaika istoriz...
(txori txanoz, pelotaz...), begietan
kilikili egiten euskuenak,
izadiko artu-emon barrutiz
geuretutako uskeri kutunak.

Siniskeri edota, sorginkeri,
tentelkeri utsak baziran bere
poz-pozik egoten giñan ta, adi,
neguko arratsetan, sutondoan,
epel-epelik, beti ipuin eske,
kukulumutxu amaren alboan
entzunguraz, arrenka ta, zer barri
ipuiñakaz iñolaz ezin ase!

Zenbat esakun eder, bitxikeri
entzunak gara alako gauetan
sorgin egada ta, Peru-Marizko
ipuin-aldi gozo, barregarrietan;
zenbat arrats luze moztutzen ziran
egoak emonik irudimenari,
bai eguzkipeko ta gau-zorizko
izakien ibilte t'egiteetan!

Izadiz bizitzen ikas gendun
negar ta barrez, uda ta neguan,
otz ta barrez, Urtarril ta Abenduan;
ibarretan ta, basoaren onduan,
azkatasunezko eragin-otsez
barrendu giñan, alairik ta nekez,
benetako bizitzaren kantuan
iatorrizko argitasun ta, senez.

Muniategi'tar Sabin

**SEGUNDO OLAETA,
OLAETA'TAR BIGARREN JAUNARI**

Gizon aundi bat dauka Markiñak
Olaeta'tar Bigarren.

Izenez zara Bigarren, baña
Izatez zu beti lenen...

Lelen zara bai biotz barruko
Oituron eta ontazunez;

Lelen gañera erti ederren
Jakintza ta maitasunez.

Markiñan zagoz zorionean
Danori poz emoteko;

Poz garbiaren itur-garbia
Guztiantzat izateko.

Poz-iturria zara izan bere
Abes-dantza garbiakaz;

Guri zugaitik beteten yakuz
Biotzak pozez eurakaz.

Aurrera zure lan ederrean,
Abes-dantza garbietan...

Itxartu beitez gure abes-dantzak
Erri guzti-guztietan.

Ta abes-dantzaka itxartu beitez
Edonun oitura zarrak

Gure aintxiñako asaba zarren
Oitura garbi ta ederrak.

R. Galdos, S. J.

BIOTZ - BIURRI

«Bat, bi, iru, lau
xaguxarrak jango al au...!».

Xaguxarra, xaguxarra
illunpean aztj zaarra,
agapean lo ta lo...
Argian ninian jo,
akullua ostiko,
argia madariko,
biotzean gorroto,
aker-beltzaren seme
illunpean murgilko...

Illunaren senide
Kristok
argi-zinduzen
jentil-baratzatik
at,
leize-illunbeetik
at,
aztikerietik
at...

Illunpera biurtu,
biotza biurritu...!
Marx
jainko-txiki
guretzat
Beste jainkorik
ezda
emen...!

Aker-beltzak:
Amen!
Amen!

Arrinda'tar A.

LARUNBAT SANTUZ

Amaren biotza
samiñez eiota...
Samiña
maitasunaren alderantzia
bait-da.
Jainko biotz-euleak
aririk zurienak.
aririk gorrienak
erabilli bait-zitun
bere Amaren biotza
eioszeko.
Zuri,
elorri-arantzaren zuria,
garbia...
Gorri,
su-garraren gorria,
garbia...
Emateko
zabal,
ez-bearrean
laguntzeko...
Gorputzik ez magalean;
lurperatu dizute Semea.
Biotzaren bakardadea...
Agur, Ama maitea.

Arrinda'tar A.

« NAVICELLA »

Bateltxo

Arin, arin
ertz
batetik
bestera,

goi-goitik
be
beera,
uiñ-uiñ
erpiñ-
era,
andik
amil-
tegira...
Burruka,
naaste,
ekaitz,
zurrunbillo,
aize-
burrunda...
Goibel
zerua...
ontzi-txanel
nerea,
nundiķ
joka-bidea?

Odei
artean
argia,
tximist
luzea,
Nortea
gurutzea...
Amildu ziñan,
jetxi
amiltegira;
gizon
gizajo-
entzako
eredu...
Jesus
zut
ontzi nerean,
agindu
sortu
dediñ

barea,
pakea...
Bear bada,
gero
izanen da;
bitartean
gerrea.

Arrinda'tar A.

HERMANA FILOMENA'REN LOREA

An, Peru'ko Arequipa'n,
Hermana Filomena'k jatorduetan, bere plater aurrean,
ezin eutson ezelan be negarrari eutsi:
Ainbeste ume ta pobre
goseak illik, bertanbera,
eta au guzti au nitzat.

Jaizu, Hermana Filomena, jaizu,
—iñotson leun nagusiak—,
olan lagunduko dautsezu-ta.

Eta, gero, an joian bizkor
iñondiko uri-bazter ta zuloetan sartzen zala,
gaiso ta beartsuenak billatzen eta
argi-tanta bat eroaten.

Baiña kalean zear joiala
telltuetatik txoriak jatsiten jakozan
adiskide sorbalda gaiñera.
Eta beste monjaren bat edo
mutikoak urreratzean,
egaz baten iges egiten eben.

(Aita Plazido —Luis Astobiza—
zanak jazokotzat esana)

Luis Arostegi

ASABEN ARNASA

Haien jitte xaloa
prestutasun traza,
barne-ezpal finaren
leinargizko jasa!
Neugan jaso nahi nuke
asaben arnasa
lehenean bilduz doan
bizitza-mataza.

Ezabatzeaz dago
lehenean irtena
denboraren altzoan
doan erretena.
Soinu goxoz zetorren
uhinaren etena!
Galdu al du ezpalak
jatorrizko sena?

Nahigabezko galderak
bihotzetik gora
odolez irakinik
zotinka ahora:
arbasoen sustraiak
utzirik albora
moda berritan txoro
nora goaz, nora?

Erori ote dira
lurrera hostoak
biziaren irudi
zituen txertoak?
Ez, badiraute lehengo
jori-arrastoak
guztiz ez baitezake
gal ekaitz gaiztoak.

Neguan zuhaiztiak
zurbil eta ori
esperantzazko hostoak

ondora erori
baina ez da gezaldu
barne-gihar hori...
errauspean txingarrak
irauten du gori.

Gaurko haize zakarrak
mehatxu-kantua;
zantzu gaiztoz ondotik
xistuz omen dua,
baina haritzak gogor
baitu zimendua
udaberriz sortuko
al zaio mendua.

Ekaitzak ehortzia
orpoen ongarri
lur-kolkoan ondua
bizitza-giltzarri.
Lehengo euskal-haritz
—mendeen lokarri—
esperantza-arnasa,
lerden zaigu jarri.

Luis Baraiazarra

«GAUA GAUEKOENTZAT»?

Gaua ezarian-ezarian
sartu da;
egunaren txanda
hartu bitartean,
biok goxoki laztantzen dira
ortzeak lur-erlaitzekin
topo egiten duen kantoian.

Egunero gurutzatzen
dira elkarrekin
betiko hegian,
iragan ta geroaren
ibiltegian.

Egunak, mendi-betazal
urrunean
utzi du agurrean
bere begirada gorixkaren
maiteko lorratza.
Gauaroaren ederra!

Gero arranoak
bere hegai beltzak
hedatuz gure gain
itzaltasun arrea
haunditasun misteriotsu bat
damaio, argiaren ordain.
Atsedon-gonbidapena...!
Ez du oraindik
menderatu dena.

Gaurkoarenak egin du;
egunaren ahots lakarra
ez, orraitio, ixildu
soka-dantzaren haria ez da
bere baitara bildu.
Egunaren iluneko eranskin,
kaleak bizi irauten du
gaur, lurrenbatzetan bor-bor baitu irakin

Leiho-zirrikitutik
dirdai dagien bitxira
inguma gizen haustun bat
sartu da plaza itxira;
bere dantza eroan
bira ta bira
txoketako biribilketa hautsira.

Mur-mur
zerbait erranez belarrira;
nork jakin maite-irritsez
ala haserrez..
badiruri kortejatzer
datorrela, inguru-minguru,
bitxi gori xarmantaren ertzera.

Eta gauak bere betoskoz
legera deitu duenean,
men egin dut
haren esanera.
Kaleko astrapalak
urruneko hots apalak
bihurtuz zihoazen
haren kolko sakonean galdurik,
desorduak ahuldurik.

Ilunaren altzo bigunean
amildu nintzen
neure buruari
nekea arintzen
loaren laztan lausoan.
Triki-traka denak ahantziz
ni bezela logale goiztar hauzoan.

Biar, ezkonortetik berriro
bihurtuko naiz senera
betiko lehenera
eguneroko lanera.

Ez dut biharamoneko
lo-erre beldurrik
txit eginik bainago
eguneko zidorrera
ordu-kurpilen lorrera.

Baina iratxo guztiak
ilunbetako aztiak
gainean nituen.
Gabak, bart, haur bat bezala,
bere beso bigun bezain beltzetan

bildu nauanean,
ez nituen itzali
konortearen begiak.
Moltzoka, nahasian
zekarkidan irudiak,
bultzaka zurrunbiloka
gauaren barne-argiak.
Eta... iratzarrik negoen
iratzarrik eta zain!!
gauero lagun dudan
aizun-herio goxoaren zain.
Burukoarekin burrukan,
ametsezko irakinetan gainezka
buru-austeren buruhaustez
eho ezineko kezka
nahi gabe galdezka.
Pausaldirik eman ezinik
gogo-indarra
ideia-bisuts artean jarrai
gogoeta desbideratuetan ernai
sukarrezko ixuri irabiatu
erogarrian iratzarrik
iratzarrik gauaren baitan
urduri, izerdi-larritan.
Iratzarrik
eta bakarrik.
Bestetako lagun afoa,
sukarrez duzu altzoa.

Ene barne-ekaitzaren
entzule ixila,
mila aldiz herstutu zaitut
bake bila.
Irrika larriz igurtzia
baina azkenez, alferrikako itzulietan
etsipenez gaitzetsia...

Gauaren luzeà!
orduz ornitua
luzezko luzapenez orditua!
Minituak ordu bihurtu,
segunduak ere ezin agortu...

denboraren ezin ehoa
betikotasun taxuz
dirauen haroa.

Gaua, indar berrien bizgarri,
itxaropen iturri
berritze-ixuri
argia, dakarzu kolkoan;
zure itzalaren hitsa
itzalitakoan.

Gaua, misterio-aidezko
lilura-ordua
Kreazio-garaiko
aintzin-akordua!

Txokoz beterik gaua,
txokoak maiteminduz,
maiteminduak irrikaz...
Baina bart parte txarreko
iratxoz hertsirik
garraxi egin nuen
erraien barnetik:
«GAUA GAUEKOENTZAT».

Luis Baraiazarra

EUSKAL BASERRIA

Euskal baserriak oraindik dirau
mendiari kendutako arriaz,
orma sendoaz, arridun zuriaz
zintzoki lotuaz antziña ta gaur.

Tellatu gorria duzu estalki,
gorri-nabar arbasoen odolez
aiek eman ta zuk orain iraunez
orlegi dagoan lurraren aurrez.

Besterik nai nuke zure barruan
irautea: euskal ixpiritua
bizi-bizi zure biztanleetan

len bezela maitea izan dedin
iltzen ari dan euskera gaxoa
loturik lur etxe-odolarekin.

Uxola

ARDOAREN ZERUTASUNA

O! ardo nappar beltzaren gozoa!
Itxasoak ez bezelako margoz
dirdaiaz betea, atsegiñ ta poz
jario, ta asez begi-ondoa.

Matsondo errotik lurraen odol,
eguzki dirdaietik dirdai bizi
bai margo eder, apain ta berezi!
Idurimen ta itxaropen landol!

Betorkit zure usai ernaraziz
itunik daukaten biotz-ondoa
ta argitan duzun margoen diz-diz.

Mamaren zerutasunak bezakit
zori-egazkiñaz lurbiratzea
ao-sapaia dutala aserik.

Uxola

NERE BILLOBATXOAK

Nere billobatxo maite-maiteak
sendi-zugaitzean kimu-pinportak
lotsatuz bezela izu sortuak;
udaberriko bizitz-landareak.

Goitzxo oraindik ezer ikusteko
zugaitzaren babeseko besoan
oi bezela aur amaren altzoan
bere esan maitetsuk ikasteko.

Laister izango zerate azita
zugaitz erroak ikusteko diña
enborrharen eutsigailu jarrita.

Alaxen, zuek orain kimu-berri
gerogo beso me, ta gero lodi,
zugaitz atal, ta zugaitza, Aberri.

Uxola

BIOTZ BI

Arrantzalea zer dan
legorrean ez itandu;
zoaz itxas barrura,
antxe ikusi:ko dozu.

Baiña zure amari
biotz bi eskatu aurrez,
bat odolez puztua,
eta bestea adorez.

Olatuak txistuka brankaz,
ez izutu;
aizea soñuka txopaz,
ez bildurtu.

Legorrak ba daukaz euki
lau maitasun,
itxaso zabalak, beti
sei laztasun.

A. Zubikarai

ARDURA

Itzal nago itxasoari begira,
bits zuriak illunduta ager dira.
Maitearen albiste nai neuke artu
ta kaiuak egaz datoz ulu ta ulu.

Aizea zakar dabil
ta olatuak andi,
maitea nun dabillen
nire biotzak daki,
biotzak ba daki ta
begiak ere senti,
malkoen malkoz dodaz
odola bezin gorri.

Itzal nago itxasoari begira,
bits zuriak illunduta ager dira.
Maitearen albiste nai neuke artu
ta kaiuak egaz datoz ulu ta ulu.

A. Zubikarai

URRE DIZDIRA

Aitita neban arrantzalia,
piloto txiki aita guria,
naiago dot nik asko ikasi,
kapitan legez artu lemia.

Aitita beti eskamak kentzen,
aita ostera galoiak zaintzen,
lemako jaube egiten ba naz
Inditara ni urrea batzen.

Urreak dakar ospea,
urreak dakar dizdira,
ekarko dautsut Katalin
urre gorritzko katia.

Urre gorritzko katia,
zillar zurizko domiña,
nire kapitan izarrak
eingo dautsue argia.

Beti tatarrez ezautu neban
amonatxo zar eta igarra,
ama ostera ezin zainduta
pilotoa zan aita gangarra.

Urrezko pitxiz jantziko zara
nigaz ezkontzen zareanean,
kapitanaren dama lakorik
ez da egongo errialdean.

A. Zubikarai

ITAUNA

Bein galde neutsan aitari
zer izan bear neban bizitzan;
beiratu eutsan amari,
biak erantzun kezka larrian;
jantziak soiñean dozuz,
gañerakoa itxas ontzian.

Ta etxetik urten nitzan
bizarrak urten baiño len,
maitatzen ez nekiala
negar egiten ikasten.

Itxasoari esan neutsan
zer izan bear neban bizitzan;
orru andi egin eban,

asarre sortuz olatu gisan;
beste barik ikas neban
zer nitzakean bizi guztian.

Ta negarrak kentzen dodaz
karel gaiñean kantari;
gizon zarean edo ez
itandu itsasoari.

A. Zubikarai

EMAZTEAREN NEGARRA

Aizea gangartu
eta tatarrez erabiliko dau zure ontzia.
Baiña zu itxasora joango zara.

Gaixo jausiko naz,
eta maitasun premiñaz eri geldituko ni,
baiña zu itxasora joango zara.

Semea ilgo da
eta miñari eutsi ezinda lagun eske ni,
baiña zu itxasora joango zara.

Etenda ibili
eta portuan, saldu eziñik, arraiña geldi,
baiña zu itxasora joango zara.

Zu itxasora joango zara
bertarako jaio ziñalako,
t'azken loa be bertan egingo
zure legea ori dalako.

A. Zubikarai

OTS ILLUNA

Ezer dardaraz bage
kulunk-zarta ezik,
iñok sumatu bage
agertu az goitik.

Neure kautan sar intzan
egal-ots leunean;
ixil goiak zearka,
inkesa me bean:

Eriotz-dei dirudi,
me-merik emona;
ego ikutu zakarrez
onantza doana.

Zuk bialdua, maite,
ete dot antzia?
Zer izarrek al dauko
zure miiña itxia?

Ito eure naikuna
nire izate barna;
ez bait auna oindiño
so eriotz mende.

Ik bai eresi baltza,
negar ixuria!
Abil oindiño igeska,
otz naiz kiskalia.

Orria dager laru
elduz udazkena:
deika dago erio
illaren gurena.

Zokoan ereiñotza
jazteko buruan:
baltzik eta itsusi
azurtza onduan.

Dagoneko dantzugu
atabal soñuan,
kont-ezin beste illak
dantzari moduan.

Zure ta nire, maite,
laztan lokarria,
erik dau eroan
betikoz ausia.

Igotz

UMEA TA BILDOTSA

Lore il argi-argi aurtengo lore il,
zelaiak urdin zuri begi atsegiñak;
bost urtedun umea, erruge garbia
zelai erdian dago, begiak urdiñak.

Bere inguru bildots zuri-zuri polit
triskalari ariña, da, pozez beterik;
umetxoarengana doa geldi-geldi:
errugea dalako ez dauka bildurrik.

Umetxoak mosutxu emoten dautsala,
bildotsak bere aldetik miñagaz igurtzi;
beriala bi orreik biur dira lagun,
izketan asi dira, or zelan ikusi.

Umeak dirautsola, «zein polita zaren»,
bildotsak erantzuten, esanagaz be, be...
Umeak ondorengo: amarik badozu?
—Nik badot ama ona, asko ni nau maite.
Uste dau umetxoak bildots zuri-zurik
dakiala izketan, diñolako be, be...

Or dator nire ama, ogi zuriagaz,
emongo dautsut ataltxo bat zuri bere.
Ardi ama or dator bildotstxoagana;
ogi ataltxo ordeztardiren esnea
edaten dau umetxok glu glu egiñagaz.
Bilbotsa ta umea beti alkarregaz
zelai bertara doaz bat-bat egiñikan;
erruge direanak lagun bereala;
ori da bide zuzen nagusiontzako:
biotz zintzoko izan bakez biziteko,
errugetasunean zorion sustarra,
bide ortatik egiz gaizkatuko lurra.

Gallastegi Klaudio

EUSKERAREN MALKOAK

Zergaitik dagoz goiz eder ontan zure begiak
negar ta malkoz bustirik?
Zergaitik zagoz miñak artuta izadi dana
baitago pozez alairik?

Esan EUZKERA, esan bai arren, zergaitik negar
dagien zure begiak;
azaldu niri zure samina, esan zergaitik
diran zure min-nekiak.

Nik euzkeldunei esango dautset zure barrengo
saminoiñaze zorrotza;
t'euzkeldun onak adituko du bere biotzan
zure deadar mingotza.

Udazkena da euzko semea, neretzat beti,
beti bizi naz negarrez;
neure semeak nigaz aztuta euren erritik
jaurti ninduen indarrez.

Nire biotzan ez da pozarik, ez zorionik,
iges egin du alaiak;
ta orregaitik nago gaur emen eriotz-miñez
malkoz busturik begiak.

Udabarriko alaitasunak ezin iñola
alaitu nire biotza;
nire barruan aspaldi ontan negua da-ta...
ezin da urtu izotza.

Gau t'egun dakart aspaldi ontan biotz-barnean
kezka latzezko ekaitza;
biotz gaxo au arrak jota lez zatituta dot
itxasoak lez arkaitza.

Kupitu arren euzko semea, kupitu nitaz,
beira nire min zorrotza;
kupitu nitaz bestela laster dator nire gain
bat-batean eriotza.

Zure besarkaz urtu semea bular-barruan
dodan neguko izotza;
kupitu nitaz, izan erruki, bestela atera
nire barrendik biotza.

«Jagi eta abil», euzko semea, aterik-ate,
anaiak nitzat batutzen;
ekin gogotsu erri danetan euzkotar danak
nigana beingoiz ekartzen.

Ordun bai seme, etorriko jat barriro laster
lengo udabarri alai;
biotz-barrendik aienduko jat negu illuna,
piztu barriro argia.

Orduan laster agertuko jat oso-osoan
alaitasuna barnean;
t'ikusiko dot izadi oro irri-barreka
alai ta pozez bêtean.

Oartuko dot gau argietan oztin ta garbi,
lilluragarri ortzia;
eta mendia lore ederrez, zitori zuriz;
apaiñez dana josia.

Oartuko dot zelan euzkia agertu oi dan
mendi-ostean goizean;
zelan ditzira ederrak galduz estaldu oi dan
geldi-geldiro gabean.

Oartuko dot illargi eder gau-erregiña
izar ditzikor-tartian;
eta bere izpi ditziratsuak anor zabalduz
argi egiten ludian.

Ikusiko dot zelan baso ta zelai-muñoak
agertzen diran apainki;
zelan zugatzak apurka-apurka ostoa orlegiz
jantzi ein diran poliki.

Oartuko dot zugatz-gaiñean txorro-txioka
alai abesten txoria;
t'ega-egaka lorerik-lore janari-billa
mitxeletatxu alaia.

Adituko dot artzai jatorra adarra joaz
santzo-txistuka mendian,
t'ardi apalak zelan dabilten alai be-beka
bedarra jaten larrean.

Ikusko ditut neska-mutillak jai-egunetan
erri-zelaian jolasten,
ume-taldeak bide-ertzean alai ta pozik
kanta gozoak abesten.

Ikusko ditut andre-gizonak bake aundian
arto ereiten soloan,
atzo-agurek gentz ederrean etxe-aurrean
pozarren karta-jokoan.

Oartuko dot amona zarra goiz-illuntzetan
abots biguñez abesten;
eta ondoan bere illobatxu txiki-polita
seaskatxoan lo eiten.

Nabaituko dot zelan dagoanoge goxoan
iriparra españetan,
ta bere ointxo txiki-zurizkak gora-goraka
zoriontsu jolasetan.


Eta gaxoak bere esku tximur-zimel ta latzaz
malko bi kendu zituan;
ta ixil-ixilik lengo bidetik mendian-gora
negar ta negar zan juan.

Biotza miñez exerita antxe arri-gaiñean
nintzan oldozkor geratu:
EUZKERA AMAREN zori gaiztoa gogoratzean
ezin iñola alaitu.

Goiria

1870
1871
1872
1873
1874
1875
1876
1877
1878
1879
1880
1881
1882
1883
1884
1885
1886
1887
1888
1889
1890
1891
1892
1893
1894
1895
1896
1897
1898
1899
1900

ITZULPENAK



POEMA

Boris Vian

Gizon bat bidez billutsik doa
Bere soñekoak eskuetan ditula
Bere soñekoak eskuetan ditula
Ori ezin da txarra izan
Baña niri barre daragist
Soñekoak eskuetan
Soñekoak eskuetan
ah, ah, ah, ah, ah, ah, ah,
Kalerik-kale doana
Soñekoak eskuetan.

Muniategi'tar Sabin

ILLUNTZE

Gogo abestia

Manuel Altolaguirre

Billustu nai nintzake ta, atoz!
Argia ioan zan ta nekaturik
arkitzen naiz soñeko auekin.
Kendu nazazu soñekoa!
Uste dezatela il nintzala
ba, billutsik nere loa
zaitzen duten bitartean
atsedenduko naiz gau osoan;
ba, biar goiz goizetik,
ibai itzaltsu batean
bustitzera ioango naiz,
nire soñezkozko soñekoa
betirako gordeko dute.
Atoz, erioz, umetxo bat naiz
ta billustua izatea nai det,
argia ioan zan ta nekaturik
arkitzen naiz bai, iantzi auekin.

Muniategi'tar Sabin

ANDRE ERIOTZ TA IAUN MAITASUN

Leon Felipe'rena

Andre Eriotz ta Iaun Maitasuna,
egitea da ondo txerrenarena
aro erdiko epaietako
arreoak trukatu zituana.
Mahon'ko overall bat da
gaur zuek bezela
lan gogorretan dabillanarentzat
soinekorik egokiena.
Ta ez nazazute bildurtu
sega ta geziakin,
ba ori ipuin zarra da
gu lauok dakiguna:
Andre Eriotz ta Iaun Maitasuna,
zuek biok, Ni ta Txerrenak
Eguzkirantza eraman bear degu
burdi au.

Muniategi'tar Sabin

SEASKA

Juana de Ibarbourou

Nik ba'neki nungo oianetik etorri zan
nire semearen seaska au borobiltzeko
zura eman zuan izai, zugaitz sendoa...
Bedeinkatu nai nuke bere izan bakuna.
Igarri nai nuke bai nungo zerupe argi,
Nungo aizepetan ain lerdenkiro azi zan
Oe txiki ta txukuna izateko elburuz
Izentatua zegon zugaitz sendo ederra.

Nik autatu izan nuen bai seaskatxo au
Urtarrillako goiz argitsu bero batean.
Nire lagunak ordea zumezkoa nai zuan,
Txuria ta polita otartxo bat bezela.
Baña ba'zan izai bat antziñatan iaioa
Nire semearentzat izateko aukeratua
Ta nik naiago izan nuen bere ol zindoa
Tupikiz apaindua! O, bai, idatzirik zegon!

Batzuetan gure aurtxo lo dagon artean,
Nik gertakizun atsegiñak asmatzen ditut:
Bearbada bere adaburu azpian, ama,
Beltzeran baten-bat bere semeari bularra
Ematera aurkeztuko zan arratsaldetxoetan
Kabi-babesle dan izai, zugaitz itzaltsua,
Txori-loalez, txintada-eresiz, ta, urrumaz
Betetzen zan garai pozgarrizko une berean.

!Tentea ta luzea izango zan bai benetan
Ba, iñoiz etzuan zurrunbilloak makur-azi,
Ez kaskabarrak koska, akats aundirik egin,
Aizeak etzun bere adarrik lauskitu izan!
Bera, besteak baño lenago Udaberrietan
Berritu, orritzen zan, bai! Ain osasuntsua zan!
Gizaundi on, biozgarri, eder bat zirudin,
Bere gerri lodi, bere adar zabalakin.

Aurtxo bat seaskatzeko zeure adar artean
Gutziz apalberatu ziñan zugaitz aundia:
!Nire semeen semeak seaska bear dituzu!
!Nire enda osoa zure beso, babespean!

Muniategi'tar Sabin

EMAKUME

Juana de Ibarbourou

Ni gizona ba'nintzake, !ai, ze illargi iateak
Itzal t'ixillezko betekadak egingo nituken!
Gaurik gaura, bakarrik, nola ibilliko nitzaken
Landarik-landa ta ikustatzuz itxasoko atea!

Ni gizona ba'nintzake!, zein bakana ta eroa,
zein ibiltari purrukatua izango nintzaken!
!Iñoiz ez itzultzeko urrutietara deitzen duten
Bibe-bazter guztien begirale, oñeztar sendoa!

Garramura auk kezkatzen nauten bakoitzetan
!Au, emakume izateak damaidan itun samia!

Muniategi'tar Sabin

NAIKUNDE

Juana de Ibarbourou

Lautadatako alaba naiz. Iñoiz ez det ikus mendirik.
Orain urte gutxi dirala ezagutu nuen itxasoa
Ta, lurralde eder, bakanakin ari naiz bai amesetan,
Ta ibiltzeko gogoz kiskaltzen nago egarriz betea.

!Gero ainbeste ta ainbeste geldi egote egin bear
Ainbeste, geroago, betiko atsedenera irizteko!
!Zenbatzu egun eder bizigarri galtzen ari geran
Amets-lillura utsez poztutzen gerala gure bizian!

!Ai bide-txigor eder aldapa latzetako bidexka argi,
mendi bizkar, gañetako sugepaper alai ikusgarriak!
Bein ere ez ote dute zapalduko ene oin ibiltariok?
Bein ere ez ote naiz ioango lurralde bakan oietatik?

Lautadakin ok egiñak, oso aspertuak dauden begiok
Ez al dute mendiak urbil ikusteko aukera izango?
Zer da estaltzen didatena lainko txiki ta ezkutuok?
Zer iarri zuten seaskan nire alabear maitagarriak?

Ai, lorik-eziñezko gau garratz, negargarri samiña,
Ainbeste alperriko urduritasun galdera iturri!
Batzutan kanpaiak illetaz ari dirala dirudite
Ta beste batzuetan sugeak txistuka zorrotz ta gaiztoki!

Muniategi'tar Sabin

BIDAZTI IZAN

Leon Felipe'rena

Bizitzan bidazti izan,
beti bide berrietatik dabillan bidaztia, besterik ez.
Bizitzan bidazti izan,
beste egiteko, beste izenik, beste erririk gabe.
Bizitzan bidazti izan... bidaztia besterik ez.
Gauzak ez dezatela untzerik egin ez qorputz ez ariman,
bein bakarrik igaro danetik, bein bakar-bakarrik ta azkar.
azkar, beti azkar.

Ez dezagun oña oitu beti lur berdiña zapaltzen,
ez elizatako arlaua, ez antzezlarien oltzaburua,
bein ere otoitzik egin ez dezagun
sakristauak egiten ditun bezela,
edo komiku zarraren antzera
bertsorik esan ez daigun..
Alper-ontzirik aundienak dute beatzetan ikumenik onena,
esaten zuen bai Hamlet bakalsemeak, ikusiz nola
illobi bat irikitzen zuan bitartean kantatzen zuan
zulogille batek.
Langintzarik iakin ezik itzal geiagoz lan egingo degu.

Illak obiratzeko
 bearrezko dan bezela,
 edozeñek balio du, edozeñek... zulogille batek izan ezik.
 Egun baten danok dakigu
 epaitzen. Ta ebetar erregeak bezin ondo
 Santxo aitorsemeak egin zuan
 ta, Pedro Crespo kalekumeak.
 Gauzak ez dezatela untzerik egin ez gorputz ez ariman.
 Bein bakarrik igaro danetik, bein bakar-bakarrik ta azkar
 azkar, beti azkar.
 Aize oron ikutura egiñak
 ta zerupe guztietan
 olerkariok, ez dezagun bein ere abestu
 erri bakar baten bizitza
 ez baratz bakar bateko lorea.
 Baratz ta erri, danak
 izan bitez gureak.

Muniategi'tar Sabin

VELAZQUEZ'EN VALLECAS'KO MUTIKOARENTZAT OÑARRIA

Leon Felipe'rena

Emendik iñor ez doa ez.
 Vallecas'ko mutikoaren
 buru autsia emen dan arte,
 emendik iñor ez doa. Iñor.
 Ez mistiku ez buru-eraillea.

Lenago desegin bear da oker au,
 lenago erabaki bear da naspil au.
 Ta danon artean erabaki bear degu,
 ta batere koldarkeririk gabe,
 iges egin gabe
 perkalinazko ego batzukin
 edo zulo bat irikiz
 oinazpian.
 Emendik iñor ez doa. Iñor.
 Ez mistiku ez buru-eraillea.

Ta alperrik da,
alperrik iges egite guztia.
(ez betik
ez goitik)
Beti itzultzen da. Beti.
Egunen batean (zorioneko egun batean!)
Mambrino'ren burukoa,
—baztez-argia orain, eze buruko ez bizar-ontzi—
Santxo'ren bururako
ta zurerako ta nererako
neurrira egifa bezela
ondo baño obeto datorkigunean.
Orduan danok banbalineteatik
ioango gera.
Zu ta ni, Santxo, ta Vallecás'ko mutikoa,
ta mistikua, ta buru-ereillea.

Muniategi'tar Sabin

POEMA TXIKIAK

Leon Felipe'rena

Nekaturiek nekarrenea ez da
oraingo bide au.
Ez du nekatzen
ostera bakar batek.
Nekaten du egun osoa egonbearrak
ordurik ordura,
ta egunik egunera urte osoa
ta urterik urtera bizitza bat
ur-gurpillari bira-biraka.

Olaxe geldiñu bedi ia,
—utsik ta billutsik— biotza.
Zertako berriro iantzi,
zertako berriro ere maitasunez bete
berriro ere, azkenez, lapur bat bezela
Aldia etorriko baida dana eramatera?

Iges dagite. Ikusten da iges dagitela bai
lurrari bizkarra emanaz.
Guk oraindik ez degu ikusi ez
izar baten begirik.
Billatzen ari gerana billatzeko,
(nun da nire erastuna?) suzotz bat ona da
ta gasaren argia,
ta batez ere tximistargi zoragarria...
Guk oraindik ez degu ikusi ez
izar baten begirik.

Ardura al du errege izan
edo aterik ate ioateak?
Bai al' da alderik
zorigaitzetik zorigaitzera?

Ze ardura zait niri
ekaitzak ekarri duen
uragaz,
lurreko bideak estaltzen
ba'dira ere?
Nire samiña da odei beltz oiek
estali dituztelako izarrak.

Niretzat erespen, bordoia bakarrik.
Zuentzako uzten ditut
epaikari makila,
suge-makil,
gotzai-makil,
errege makila.
Niretzat bakarrik bidaztiaren bordoia.
Nik nai det bide txuri ta azkenik gabea.

Muniategi'tar Sabin

IGOKUNDEA

Y dexas Pastor Santo, tu grey
en este valle hondo, oscuro...

(Fray Luis de León)

Leon Felipe'rena

Onaxe etorri
ta, aldegin zuan.
Etorri..., eginbearrak izentatu zizkigun
ta, aldegin zuan.

Bearbada odei aren atzeko aldean
gu bezela berdin,
norbait ari da lanean
ta, bearbada izarrak
Iainkoak lana banatu bear duan lantegiko
leio biztu batzuk
besterik izango.

Onaxe etorri
ta, aldegin zuan.
Etorri..., ta gure ondasun diru-kutxa
aneika ta aneika gizaldiakin betetuz,
lan-tresna batzuk utzi zizkigun...
ta, aldegin zuan.

Berak, dana dakinak,
ba'daki guri bakarrik utzi ezkeru,
begiratzen ez diguten iainkotxorik gabe,
obeto lan egiten degula.

Zure atzean iñor eztago. Iñortzo ez.
Ez irakasle, ez ugazaba, ez nagusirik.
Baña Aldia zurea da.
Aldia ta Iainkoak Izadiari
aziera eman zion zizela.

Muniategi'tar Sabin

OTOITZA

Leon Felipe'rena

launa maite zaitut nik garbi iokatzen dezulako.
—biurrikeri ta, alatzik gabe—
uzten dezulako argiratzen
oinkadarik oinkara,
kartarik kartara, aldaketarik gabe,
trikimallukeri —utopirik gabe—
zure bakartasun
aundia.

Muniategi'tar Sabin

MATXINADA

Leon Felipe'rena

Beti izango da elur goituren bat
mendia katuzuri antzera iantziko duana
ta, ur apalen bat boluko andaparan
gogoz lan ta lan egingo duana...

Baita, beti, eguzkiren bat ere
—eguzki urkatzalle edo adizkide—
edurra negarrean aldatu ta,
ibaiko ura odei biurtuko duana.

Muniategi'tar Sabin

K R I S T O

Leon Felipe'rena

Etorri ziñan malkoak aintzaltzera...
ez legortzera...
Etorri ziñan sua biztutzera...
ez itzaltzera...
Etorri ziñan esatera:
¡Itxuri bedi negarra,
odola
ta, sua...
ura bezela!

Muniategi'tar Sabin

ARGI ETA ILLUNAREN SEME

(Migel Hernandez)

I

Illunaren seme

Gaua zaut, emazte. Illargi biribil betea
bete ta emeen dan une artako gau itzalena.
Gau erdia zaut, emazte. Loa eta maitea
goren diren une artako itzalik gorena.

Eguzkiaren oñatz gorria zureganako.
Orra ene biotz au, su-garrez beroa.
Or doakizu, bultzada sendoz ta betiko.
argi bizi, egun senti eta arrats berakoa.

Gaua, ororen goseti, guleriz ta altsu.
illun doanian, zure soñera sartuko ni.
Urduriak narabil, barne-muñetan maite-su.
Ene azur pilla otzizaraz suarren gori.

Gaueko aizeak amurratzen bularrak zuri,
baita ere iruli gorputzak gure bionak.
Oge-akelarrea, zorabidea iduri,
bikoteak ditu osotu, soin bi bat eginak.

Su aundiz betea agertu da gaua, gar gorri,
geldi ezin eroa, gora-goraka biurri.
Inguruetan, illunaren itzalek intziri,
ardo eta oxin animak aieneka iduri.

Gauaren illuna, i aziz kabi-esi gorria.
Maitaleak inguratzen ditukan itzal-argi.
Sabel barrura dok oro argiak ixuria,
edo ta oro dok itsutu, adimen ta aragi.

Ta itzalak eskatzen ar-emeen alkarketa,
ezpain-oñeztu gori luzez urratuz illuna.
Losor gorrak urruka biurtuz, eskatzen eta
ago minduen, bero, aginkarien guna.

Baita eskatzen gauak gure bion alkar loa,
gu biok illargi gain; gu biok, bizi-iturri.
Eskatzen gu bion, su-garretan, ago beroa
daitela ama lur eta zeruen kiskalgarri.

Argi izarrak metatzen diarduen illunpetan
gu bion semea, maitasun, illun t'argi, gun.
Illunpearen nagi aldi ta zirkilluetan
gauari jarioa, gure seme, argi t'illun.

Itzalpean semea, itzalpean sortua baita.
Aren jatorrira sortazi-esne-gun beroa
izarrak dabe ixuri, izarrak ditu aita,
taup-taup azur-miñez betez andrea ta loa.

Ba dabil gaua izar-indarrak lokatu guran.
Itzalak ere ba du illuna edatu naia,
gu ta bikote oro iruliz eskon-matsetan.
Zu gaua zara, emazte ni naiz, eguerdia.

II

Argiaren seme

Egun sentia zaut, emazte. Itzalki ederren,
ateak erdi zabal datorrenaren argi-gai.
Dizdira beteak ler-zori, bildur ta pozarren
zure erraik eguzki barri noiz izango zai.

Argi-ardatz, ordurik aundiena dozu ur-ur.
Sua berbera erretzen dauan su-atarian.
Ni, ortxe nozu, zuri adi-adi. Buru makur
eta gu biok or argi orren erdi erdian.

Gauak lengo potsu illunetatik igesi du
eta erro barriak murgildu ditu sakonean.
Ene umegin argi, urratu zara zabal zu,
arri-umez arrakalatsu dan etxe zarrean.

Erditzaren ordu aundi, une biribillenak.
Zure miñaren larriz karraxi dagin une.
Ate oro zabal, mundu oso t'argiarenak.
Argi-kabi, eguzkia dozu egiña ume.

Seme ori illuna zen lenen, oyal josia.
Zure esku ta biotz sakonetako lana,
itzal eta oyal arteko gu bion azia,
itzal, oyal, azi; gu bion betiko yorana.

Illunpetako gure bion yoran eta oyal
seme dogu gaur bizi-biurritxo negartia.
Berak ditu gure etxe-ateak zabal zabal
Bera da gure biontzat etxe beteko argia.

Auxe bizia! Une ain ederraren laburra!
Itzal t'oyal, gure seme gurearen jayotza.
Itzal, t'oyal, gizonen munduko azken agurra.
Zer garan gu? Bakar bakarrik itzal, oyal, utsa.

Ortzondoko seme aiz, eguerdiko seme, i
t'argi orren dizdira bear dok beti iregan.
Ba gaituk ia gainbera ire ama eta ni,
ernai ta lo-zorro, maite miñaren besoetan.

Mintzo ta mintzo, ixillak itoko bestela,
biotza zabaldu bear au! au itz jarioa!
Bedar gozo errez usainduko zure lo-gela.
Ni naiz eguerdi, emazte, ta zu ortzondoa.

III

Argi eta itzalaren seme

Ortzondoko epelak tinki biribil titi bi
ezti jario gozoz errotxoak eten gabe.
Zure bularrak, egun sentian, ama-iturri,
esne zurixka geldi eziñekoz bete bete.

Zure zanak gañezka dituzu emazte maite.
Etxe osoa zure kutsu gozoz dozu bete.
Erle janariz ase, erle tokiko iduri.
Zu zeu, esne-bitsetan, erle toki, ezti zuri.

Ba dirudi eztizkoa dozula zuk odola
millaka erle pillak, lan ta lana gozatua.
Ba dabiltsu barne muiñetan esne uyola,
oyu ta zantzo; oro esne, uyol, eztegua.

Andre ugaria, zure sabelak iruntsi nau,
sabel ori izango nire illobi betiko.
Burdin goriz erea balitz ene egorputz au,
Burdin goriz errea balitz ene gorputz au,
azurrek zure zure iduriz irarrita ikusko.

Betiko gaitu gure semeak galdatu alkar.
Urtu gaitu gu bion arteko gose yoranak,
gu adin bi, odol bi, soin bi, biok eme ta ar
maite txorça bikañen, azao bi bat egiñak.

Ildakoak ortxe dire su-izotzez-berodun
aldenedu eziñak; bizidunen ondotik urbil.
Semeak zainduko gure etxe, solo, ondasun,
biok, betiko joan eziñak geranian il.

Gure seme au izanen bion arnasabarri.
gure aragia beretzat bizi-gai bakarra
ta berak, anima, esku ta arnasa nun jarri
bertantxe ernarituko, garden, ama lurra.

Gure zati bion zati au izanen guretzat
buztarri bikain. Gure bizi onen ardatz bakar.
Gu bion ago biok biurtuko ezpata bat
eta gure lau eskuok betirako bi galtzar.

Ezaut i bakar maite; irekin bat ire lena;
ire erraietako frutu ororen geroa.
Nire erentzi bakarra, zuregandik datorrena,
gure seme ta seme orren azi beroa.

Maitasuna leporatuz, beti lo ta ernai,
alkar mosuka garoaz barruko irakiñak.
Zu eta ni, mosuka, gure illek eztegu-jai,
millaka belaunaldi, mosuka gure seme-miñak.

Euskeraz: **A. Bidaguren**

THOMAS MERTON

Iparramerika'ko idazlea. Prades'en (Frantzi'n) jaio zan 1915'garrenean, eta, ezbearrez, Bangkok'en il 1968'garrenean. Frantzi'n eta batez be Inghaterran eta Iparramerika'n egin eban zan ikasketak. Gaztearo norabidebako ta «pagano» ondoren (berak diñoanez), fede katolikua onartu eban (1938); iru urte geroago trapetarren Gethsemani lekaidetxean (Kentucky'n) sartu zan. Bere umezaro ta gaztearoko bizitzea, komentuko lenengo urteetarartekoa, **The Seven Storey Mountain** liburuan edesten dausku (1948), Iparramerika'n beingoan geien irakurrietarikoa izan zan libúrua.

Idazle ugaria, batez be erlegiño ta espiritu gaietaz. 50 bat liburu edo liburuxka osotu eban. Olerkaria. **The Collected Poems of Thomas Merton** (London 1978) bildumak 11 oleriti-

liburu batzen ditu, liburuetan bildu bako olerkiak, itzulpenak, irri-bertsoak, eta azkenean «poema konkretoak» deitutako izki, itz eta esaldi joko batzuk. Geien baten izadia ta erlegiño sinbolo ta mundua abestu ebazan idazkera aske ta indartsuz. Beti bizi izan zan munduaren galmenaz arduratuz, askatasuna, ba-kea, gogorkeria eta abar biotzean eukazan. Azkenerantza bere kritika-senak protesta ta eztenka bertso edo idazkietara jo eban, idazkera surrealistaz eta arruntaz baliatuz. Oraingoz azken aldiko bertso oneatarikorik ez dot emen itzultzen.

Erti ta kultura gaietan ornidua, bere elerti-eritxiak be zorrotrazak eta bereziak dira.

NEURE ANAIARENTZAT: GERRA EKINTZAN GALDUTZAT EMONA, 1943

(Thomas Merton'en gurasoak illak ziran. Anai gazteagoa geratzen jakon. 1943'garrenean onen gerra-abioia Ipar-itxasora jausi zan, ta bera zauritu ta il).

Anai laztan, lorik ez badagit
nire begiak zure illobirako lorak dira;
neure ogia ezin badaiket jan,
nire barauak saratsak lez zure eriotz-tokian biziko.
Bero-egarritan urik aurkitzen ez badot,
nire egarrria iturri biurtuko zutzat, bidazti gixajo ori.

Non, zein lurralde soildu ta ketsutan
datza zure gorputz gaixoa, galdu ta illik?
Eta zein bazterralde ondatutan
ga[ldu] dau bidea zure arima zoribakoak?

Etor zaitetz, .neure nekean aurkitu atsedeen-leku bat
eta neure samiñetan ipiñi zure burua,
edo obeto artu neure bizia ta odola
eta erosi zeuk oe egokiago bat-
edo artu neure arnasa eta artu neure eriotza
eta erosi zeuk atsedeen obea.

Gerra gizon guztiak illak daitezanean
eta banderak autsetara jausiak,
zure krutzeak eta nireak Kristo bakoxtaren gain
biokaitik il dala oindiño esango gizonai.

Zure gaztearo ondamenean Kristo eraillik datza-ta,
eta nire udabarri errautsetan negar dagi:
bere malkoen balioa
zure esku makal ta lagungabera jausiko da
eta zeure errira ekarriko zaitu:
bere malkoen ixilla kanpaiak lez jausiko
zure erbesteko illobi ganera.
Entzuizuz eta erdu: etxera deitzen dautsue.

Thirty Poems (1944),
The Seven Storey Mountain (1948)

(Euskeratzaille: **Luis Arostegi**)

OTOITZ - ERA BI

Urril basatian muiño zapalak begi zabalik
datzazanean
eta zelaia leoiak lez menpe daukenean,

gure otoitza jolas-toki urrin-aztuetako millakak langoa da,
bere pozkarioa su-torre antzo jasoten,
baso miragarriak aen oinetan sortu
eta euren oiur buru-gorriskaz zeruak bete arte:

olan su artzen gure biotzak
eta, otoitza-garraldietan, erreten gaitue, glori larregiz.

Baiña zugatz guztiak euren programak apurtu dabezanean,
aize esku-zabaletan joate neurribakoen griña sakabanatuz,
ibar illuna odeitu eta goibelduz,
atsekabea asten da bertanberako kaiola orreen
burdin soillak bildurtzen,
ate apurtuetan gogamena eraillik datzala.

Baiña gure gabonil goizetako argitan,
itzak abots-errekan izozturik egon arren
eta lurralde guztiko uragak mutu;
begitu ikuspegia, zistertar zuri batek lez,
negu zabala txano antzo ipinten
eta olan, edurtzapean sakon baizen nare,
esi traskillak eta zelai ondatua estaltzen.

Muiñoak ixil-geldi datzaz, basoak euren jai-eguna zaintzen.
Basetxeak, negu-berokietan erdi eortzirik,
ardiak lez epel dagoz.
Noz izan da egundo penitentzi-bake au baiño ederragorik
bagillako kantu guztiak ixil dirdaitsuez gaintitzen dituala?

Azaroak gure porrotak aztertu egiten, baiña orain
bere oarrak belaunetaraño gure Gabon errukien azpian dagoz,
lurpetutako azian baturik
errozko udea bizi ta lo dagoan bitartean;
eta solo guztiak euren altxorak errege-ekutu lez gordeten
[dabezan bitartean.

Figures for an Apocalypse (1947)

(Euskeratzaille: **Luis Arostegi**)

ESPETXE BAT BEAR DA ANDRENTZAT

Espetxe bat bear da andrentzat, txiroak diranean,
gauza apain barik eta ulea jausita, ara joan daitezana.
Edertasuna kendu jakenean eta biotzak apurtu,
joan bear dabən *espetxe bat dago.

Espetxe bat bear da andrentzat, diño Gobernuak,
itsusiak diraneko, txarrak dira-ta.
Ondo datorkie luzaro an egotea
txarra aztu arte.

lñok onezkero musurik emon gura ez dautsenean,
edo bakarrik diruagaitik emon gura dautsenean
eta euren edertasuna kendu
zuzena da txarra luzaro entzun be ez egiterik
androk aztuak izan arte.

Baiña nik atsegin jatan kantu bat dot gogoan
eta zuok androk baliteke ez aztu izatea:
«Lili apurtu gaixoa, lora zimeldu gaixoa», diño nire kantuak.
Andra gaixook, larrosa espetxeratuak zaree zuok:
berba egikeran maldeziñoak botaten dozuez, eta botatean
Jaungoikoa ta infernua dagoz batera ugertuta abots gorri baten,
biotz uts txiki batetik autsa baizen gozo datorren abotsean.
Ez dago, olan dala, umerik biotz uts orretan?

Andra gaixook, iñoz abestuko ba'zendue
doiñu illun eta tristea litzake, larregi jakinez
gantzuketaren gantzuketa jaboitsuak
ez zaituela barriri lirain biurtuko eta ez errubako
azkenerarte, aztuak izan arte.
Errua aztuten ez dan espetxe bat dago.

Orma zaar orreetako egun ta urte askok, desinfektante usaiñez
gura barik zuen pekatua ilteko alegiñean,
ezin zagikeeze errubako egin barriri:
orregaitik, kantu triste onegaz nator,
maite zaituet, autsez beterik eta samintsu,
maite zaituet, zoritxarrekoak.

Zapo-lora espetxeratuak zaree zuok, basalora txikiak,
niretzat zuen abotsa ez da illuna
eta Jaungoikoa ez dago infernuagaz batera ugertuta.
Esaidazue, maiteok, egon daiteke Jaungoikoa infernuan?
Zuek maldeziñoak bota arren, Ak zuen abots legorra gurin biur-
(poliziarentzat oindiño illuna izan arren) [tzen dau
Jaungoikoa zuen biotzeko atxillo egiten da, barre egin gura
barre egin gura dautso espetxeari, [dautse epailleai,
Berak edatzi erazten dauts kantu au.

Gorde nagizue zeuon boltsan, ba'leukazue. Gorde zeuon bio-
[tzean, boltzarik ez ba'leukazue.
Ez dago eskubiderik zuen atsekabea betirako jakin barik ge-
Orregaitik natorkizue berba oneekaz: [ratzeko.

Andra gaixook, ez itxaropenik galdu-
Jungoikoa etorriko jatzue leiora larratxoriekaz
eta larrosa zuri bat lez artuko zaitue urtero.

Emblems of a Season of Fury (1963)
(Euskeratzaille: **Luis Arostegi**)

MAITE NEGUA LANDAREAK EZER EZ DIÑOANEAN

O baso txikiok, leun
ikutu edurra adar apalakaz!
O arri estalduok
gorde aztearen etxea!

Ixilpeko
landara-itxok,
ur ikasbako ori,
eguneroko utsa.

Egin otoi adi-adi
zugatz kiribildu
altzairuan landua-
ginga lurperatua!

Sua, zoaz barrura
zeure gaztelu aulera,
ume toki sendora,
ezerezaren etxera.

O bake, bedeingatu leku zoragarri au:
ixiltasun, maite azte au.

O ixiltasun, urrezko uts
sartzarik bako eguzki

Maitē negua landareak ezē ez diñoanean.

Emblems of a Season of Fury (1963)
(Euskeratzaille: **Luis Arostegi**)

GOGAI, UTSUNE ARROTZ

(Karol Wojtyła)

Eta Jakob ibaian zear igaro zan... Eta norbaitek egun-sentirarte burrukatu eban beregaz...
Eta Jakob'ek leku ari Panuel izena ezarri eutsan, onan esanik: «Jainkoa aurrez-aurre ikusi dot» (Asiera, 32, 23-31).

I

1. Pentsamentuak itzai gogor egiten

Autueta baten jazo oi da iñoiz. Egia aurkitu dogu, eta, alan be, itzak falta jakuz, ez dogu ikusten kiñua, ezaugarria. Ez itzik, ez kiñurik, ez ezaugarririk irudi osoa barne artzen dauanak, eta bakarrik sartu bear burrukeari ekiteko, Jakob'ek egin eban legez.

Eta gure burrukea ez da gogaietan daroagun irudi barnean soilki, gizonaren barrua moldatzen dabene gauzaki guzti arein irudituen barru-barruan. Gure egiteak ar daikeez gero bururatu bear ditugun egia sakon guzti-guztiak?

2. Esaldi batzuk ateraten dira antxiña eukitako alkar-izketa baten gomutagaillutik

Eta, zailla danarren, saia, gaitezan gizonagan dagon guztiá gizonaren mende jarten; mundu arrotz a, sakona, begi aurean jarten jakonean, atzamarpean odol-pultzak nekatua dardar egiten dautsonean.

Guzti au ez ete da, ba, zeuretzat,
kaleak zeure urrats ler-egiñagaitik
ain arin doazala ikusten dozun orrentzat?
Kaleak zear doa gizona dagokion ibil-neurrian
eta bere ibil-neurri orrek
esitzen dau, lilluratzen eta aldenduten

barruragoko lan-arlotik;
eta erdia dau iragarten
eta erdia ezkututzen.
Baiña ez eizu esan ibil-neurri orrek okertzen daunik,
osertzeko lerroak legez,
bere-berea dauan aunditasunetik.

Oro ez dau ibil-neurri onek aregan artzen,
inguru zabalagoa bai'litzan,
eta aregandik ezin zeinke berauzustarkatu,
beragan bait dago sakonki errotua.

Aurrera doa gure autueta
gero ta neke-min latzago artean. Aldakuntza
mamintsuagoetara eltzeko beti sufritzen dala
eta gizonak, azkenez, bere lanik latzenen barnean
itzartuko dala diñozunean,
egia diñozu
—a!, zuk bai egia diñozula!—
eta, alan be, naigaberik aundiena, nik uste,
gizonari datorkiola
bere ikuskizun ezetik.

3. Itzak gogor dagitse pentsamentuari

Ikuskizun ezagaitik
gorriak ba'daroaz,
ikusi nai dauna argi ez dakuslako,
ezaugarri artetik igaro bear dau
ondarrean pixua daukana aurkitu arte
itzetan umotzen dan
igali-alearen antzera.
Jakob'ek sumatu eban pixua ete da,
bere ardien begiak legez,
izarrak nekaturik bere gaiñ jausten ziranean?

II

JAKOB

Baratx joian Jakob urrinduz. Ba-ekian
uren indarra ta abereen makaltasuna
eta bazter baten billa ebillan
ardiak arrisku barik igaro ekiozan.

Jakob etzan iñoiz arrotz sentitzen
lurtar indarren artean. Berez lez ebillen
eta seguru, jakituri sakonez
eta itzik ebagi gabe.

Gaua begiak itzaliz joan jakonean,
lenengo bere ardiz eta gameluz,
gero bere semez eta emaztez,
bat-batean,
Jakob bakarrik aurkitu zan
eta norbaitek besarkatzen eutsola oartu
eta ezin zala ibiill.

Norbait sartu jakon kontzientzi barruraino,
aur bategan edo, ardi baten sar ba'litz bezela,
ez eratx, ez zapal-asmoz, besarkatu soil-soil
dardar egiala, bere barne-izua
nabari azorik.

Jakob be Aregan dardarazten. Egia
ez jakon egundo olan supituan agertu.
Eta pixu orren azpian tolestu zan Jakob
eta aren gogaiak guenengo oreka bat
aurkitzen asi ziran lautasunean.

III

1. Udabarriko euri-tantak be utsune bat bear

Une batez jar begiak euri ezearen tantetan;
ikus diztikor euretan
udabarriko ostoen orlegitasuna oro.

Osorik dakusazuz tantoetan
euren berezko mugetan lez. Arrimenak
beteten dautzuz begiak
eta ezin zara zeure gogaiaren ondarrera eldu.

Alperrik zabiltz bera ixil-azo naiean,
esna-barri dan umea iduri.
Zagoz olantxe, zeure zurtasunean, ez urrin joan
gauzen dizdizera argitik!
Itz utsalak! Ez daustazu entzuten? Gauzen ñirñir
argitsuan murgildua, orixegaitik
idoro bear dozu zeure barruan
uts-une sakonago bat.

2. Okerra

Zelan atera gogaia bere barren nare,
ixilletikan?
—Makur-azo neike kalea kaltzada alde baterantza
eta joan doazan neska-mutillen
begien okerra agirian jarri...
joan doazan mutillak...
Eta berebillak bide doazanean,
bear bada euren leioak bakarrik
artu daroe azkenbagea.

Eta eurak diñoe:
—Gauzen argitasunari loturik
dago gure gogaia, eta zintzoa jako
dabiltzan gauzen indarrari,
eta danak ez jakuz oindiño iragarri,
gure gogaia oindiño osoa ez dalako izango.

3. Pixu berezia

Edonor kezkarazi bear dabe itzok. Gogaia
osotzen danean bada,
bere elburua agortu dalako da,
eta orduan itzali egin bear
loak arturiko begiaren antzera.

Begiak, bere barne-argiz asetzen dau egia
eta era-barritzen, giza-aldiaren bulkadatik
atera ezingo dauanagaitik.

Baiña egia bere pixu osoz eta
makur-azorik
neuganatzean, giza-barrenera jasten da;
nire gogaia orduan bete oi da, iñoizka bakarrik
eltzen nazan ondarrean, eta doi-doi ezagun
dodan orretan, naiz eta nik ondo jakin
ondarraren ondarrera ezin nazala eldu,
ikuskitzuna ta Elburu soilla
leza-ondar barru-barruan bait dagoz.

Urri mintzo naz ontaz, baiña askotan
darabilt buruan munduaren pixu berezia
eta neure-neurea dodan sakontasuna.

IV

Bide-lagunai

1.

Jakob burrukatu zan tokiaren billa ba'zabiltz,
Arabia'ko lurraldeetara etzaitetz joan,
mapa baten be ez egizu billa errekaetara:
urrago daukazu asterrena.

Laga soilki ager daitezala osertzean
gauzakien argiak,
gero ta aaltsuago alkar-josiz
gogaiaren indarrez eta gero ta
lau-errezagoak.

Zeuk ikusiko, lor ba'dagizu, irudia
ez da itzaliko, igaro baiño. Zagoz gert
pixu ori jasoteko
irudi onek biur zaizan
norbait, ixilla ta bakarra

eder jakozan norbait ziurki,
bakar-leku
beti lort leike gizonak,
erioan be lagun dogu-ta.

2.

Gure egunak orain egite laiñoz beteta dagoz,
egitearen barrukotasuna eurotan lanbrotua
geratzen da banatu-eziñezko kiñuz,
eta, alan be,
ziur gagoz egunen baten
kiñu ori itzaliko dala eta gure egitetatik
mamiña bakar-bakarrik geratuko dala.

Itzultzaille: **S. Onaindia**

ITURRI GARDEN

(Diego Dublé Urrutia, 1878,
txiletarra)

Niretzat ez det
ezeren bearrik.
Eidazue
zuaitz-adartxo
edo arkaitz gorri;
uraxe izango da nere kabi.

Nere izena
xede atsegiñez
zure ezpaiñak ebakia,
maite-ustea sortuko du nigan.

Oroi nitaz, argi-arra edo
izarra ikustean;
aintzatu nauzue nere baitan.

Kaxkarra det gela,
baiña an iñoiz dantzukezu
izadi osoa
negar-uluka edo-ta kantuz.

Nire elburua
belar ezearen
usai gozoak ase dezake;
musu baten opariak
irentsiko luke ber'aundian.

Zerua zematzen duen garra da
nere irritsa...
Aurrak miñik gabe
zear dezakena;
malko batek itzaltzen duena.

Dena daukat
eta labur;
bertso baten badu leku
daukadanak.
Pisuago dezu edur-luma.

Gorroto det gaitza:
baiña gaiztagiñak
adiskide naute,
—ondo daki ori nere siñak—
Bañan, entzun epai-maiekoak:

Samiña dezaket jaki.
Lotoa naiz, eta ur geldian
xurgatzen det
nere lurrin ta ezti garbia.

Iñaki Berakoetxea'k
1981'an euskeratua,
Larra'n.

ZUEN UMEAK EZ DIRA ZUEN UME

(Khalij Gibran)

Ta umea besoetan zeraman andre batek esan zuen: «Umee-taz itz egiguzu». Eta berak:

Zuen umeak ez dira zuen ume.

Bizitzaren beraren dei- seme alabak dira.

Zuen bidez datozte, baiñan ez zuengandik.

Eta zuekin egonik ere, ez dira zuenak.

Zuen maitasuna eman dezaiekezute, baiñan ez zuen gogoe-tak. Gogoetak berenak bait dituzte.

Zuenganatu ditzakezue beren gorputzak, baiñan ez beren animak.

Aien animak biarko etxean bizi dira-ta; amesetan ere ez daukazute etxe ortan sartzerik.

Aalegindu zindezkete aiek bezela izaten; ez zaitezela saia, ordea, aiek zuen antzeko egiten.

Bizitza ez bait dijoa atzeraka eta ez da berandutzen atzo-ko egunaz.

Zuek uztaiak zeratu; zuen semeak uztaiak botatako gezi biziak bezela.

UZTAILARIAK ikusten du muga azkengabearen bidean, ta Bere aalez tenkatzen zaituzte, Bere geziak urruti ta azkar ega ditezen.

UZTAILARIAREN esku-tenka pozerako bedi: Egan dijoan ge-zia aña maite bait du Berak geldi ta sendo dagoen uztai.

Berakoetxea'tar Iñazio'k
(prantzesetik euskeratua)

ESOPO'REN IPUIÑAK

121.—Zeus eta sugea

Zeus'en ezteguak iragarri zirala, abere ta pizti guztiak bera omendu nairik doai ta eskupekoakaz joan yakozan, baktotxak al ebana eroanaz. Sugea, narraz, Zeus'eganaiño igon zan, larrosa bat aoan ebalarik. Berau ikusiz Zeus'ek bota eutson:

— Guztien doaiak artzen ditut, baiña zure aotik ez dot ezer nai.

Ipuin onek darakusku bildurgarri izan bear yakula gaiztoen irribarrea.

122.—Zeus eta ondasunen upela

Upel baten sartu zituan Zeus'ek ondasunak oro, gizaseme baten eskuetan bera itxirik. Gizon onek, sudur-luze zan-eta, upelaren estalkia jaso eban, barruan zer eukon jakin nai ebalako; eta ondasun guztiak jainkoengana egaz egin eben.

Alegi onek adierazten dauskunez, Itxaropena bakarrik gelditu zan gizasemeen artean, alditutako ondasunak agintzen eutsezala.

123.—Zeus, Prometeu, Atene ta Momo

Zezen bat egin eban Zeus'ek, gizakume bat Prometeu'k, Atene'k etxe bat, eta epaille lez Momo'ri dei egin eutsoen. Susmabera ta bekaizkor bere lanakaz, Zeus'ek oker bat egin ebala asi zan esaten, zuzenaren begiak adarretan ipiñi ez ebalako, nun zauritzen eban ikusi egian, eta Prometeu'k beste bat gizonari biotza bere bularretik kanpo jarri ez eutsolako, gaiztakeria gordeta egon ez eiten eta ezpirituan dagoana danak ikusi egikeen. Atene'ri buruz, txirringa gaiñean ipiñi bear ebala bere etxea, gaizkiñeren bat auzoan sartzan baldin ba-zan, bertako biztanleak andik errez alde egiteko gai izan eitezana. Zeus'ek, onen bekaizkeria eroan ezinda, Olinpo'tik bota eban.

Alegi onek erakusten dauksku ez dagoela ezer be ain osorik, kritikaren galbaetik iges egingo dauanik.

124.—Zeus eta turtua

Bere ezteguak ospatzeko, abere guztiai dei egin eutsen. Turtuak bakarrik uts-egin eban. Zergaitik etzan etorri jakin nairik, urrenego egunean itandu eutson:

— Zergaitik abereen artean zu bakarra etziñan atzo nire ezteguetara etorri?

— Sendi sukalde, sukalde eredu! —erantzun eban turtuak.

Zeus'ek, asarre, bere etxea aldean eroatera zigor-azo eban beti betiko.

Askok naiago dabe euren etxean lau-lau bizi, iñoren etxean oparotsu jan baiño.

125.—Zeus epaille

Zeus'ek erabagi eban antxiñako aldietan Hermes'ek maskorretan zizelatu eizala gizasemeen uts-egiteak, maskor oneik bere alboan kutxatil baten jarriaz, berak bakoxtari zuzena zana emon egion. Baiña maskorrak nastu egiten, eta batzuk beste batzuk baiño len igaroten Zeus'en eskuetatik, bakoxtak bere epai zuzenak eroateko.

Onek erakusten dauskunez, ez gara arritu bear gaiztoak eta gaizkiñak ariñoago artzen ez ba'dabe euren gaiztakerien zigorra.

126.—Eguzkia eta ugarazioak

Eldu zan uda, ta Eguzkiaren ezteguak ospatzen ziran. Jazoera au zala-ta, abereak oro pozaren pozez lertu-bearrean ebiltzan; ugarazioak eurak ozt-oztan jaira joatekotan egozan; baiña euretatik batek ots-egin eban:

— Zentzun bakoak! Zek poztuazoten zaitue? Orain bera bakarrik dala, zingira guztiak legortu ba'dagiz, emaztekumea artu ta bere antzeko seme bat ba'dauka, zer geratzen ete yaku azkenak eragiteko?

Gizaseme buru-arin asko txantxetakoak ez diran gauzaz poztu oi dira.

127.—Mandemea

Mandeme bat, garagarrez asea, jauzika asi zan, bere kolkorako esanik:

— Zaldi azkar bat da nire aita ibilten, eta ni aren arikoa naz oso.

Eldu yakon, ba, mandemeari eretia arin ibilteko; lasterke-ta amaitutakoan, guztiz txordo ta mustur-baltz, bere aita astoaz gogoratu zan bertatik.

Alegi onek auxe darakusku: gizonak, zori naiz zertzelada batek nabarmendua izanik be, ez dauala aitzu bear bere jatorria, gure bizia ba kezka ta aiko-maikoa besterik ez dogu.

128.—Erkules eta Atene

Bide medar batean zear joian Erkules. Lurrean jausita ikusi eban sagar bat zirudian antzeko zerbait eta zapaldu nai izan eban bera. Gauza arek bitu egin eban bere lodiera ta erlantzta. Au ikusiz, gogorrago zapaldu eban Erkules'ek, bere mailuaz jorik gaiñera. Gauzakia, baiña, gero ta aziago egiñaz joian, bidea oso-osorik izten eutsola. Giz-urenak orduan bere mailua bota eban eta tinko geratu zan bertan, jaurtzallea zur ta lur egoalarik.

Onetan Atene agertu ta esan eutson:

— Entzuizu, neba: gauzaki au eztabaida ta asarrearen ezpiritua dozu: geldi izten ba'yako, asieran egoan lez irauten dautzu: baiña eraso ezkeru, ikus zelan aunditzen dan!

Ipuin onen mamaiña: asarreak eta burrukak gaitz aundien sorburu dirala.

129.—Erkules eta Pluton

Erkules jainkoen arteko egiñik eta Zeus'en maijan artua izan zanean, oso adeitsu ta gizalegez agurtzen eban jainko bakotxa. Pluton etorri zan azken, eta Erkules, begiak beian, agandik urrindu zan.

Zeus'ek, jokabide orrekin arritua, jainko guztiai maitakiro agur egin ondoren, zer dala-ta baztertzen zituan bere begiak Pluton-engandik, itandu eutson.

— Ni gizasemeen artean aurkitzen nintzanetan —erantzun eutson Erkules'ek—, ia beti gizatxar eta birigarroen artean ikusi oi nebalako; orixegaitik aldentzen ditut begiak beragandik.

Alegi au jaulki leike, zoriak aberastua bai, baiña izakera zitalekoa dan gizasemeagaitik.

130.—Erdi-jainkoa

Gizon batek bein erdi-jainko bat eukan bere etxean, opari joriak eskintzen eutsozana. Opari oneitan diru-mordo aundiak eralgi oi ebazala-ta, gau baten erdi-jainkoa bera agertu yakon, esanaz:

— Ene adiskide, naiko dozu onezkero zeure diru-altxorra ondatze ori, dana galtzen ba'dozu, ba, eta ezer barik ikusten ba'zara, neuri egotziko daustazu errua.

Era barean, euren ergelkeriz zoritxarrean jausten diran askok be, jainkoai botaten dautse errua.

Igotz

GARBITOKIA

(Dante)

III Kantua

Olerkaria berriz elkarturik Bergilio'rekin, mendirantza doaz biak. Onen oiñera irixtean, eta igoera egoki baten billa dabil-tzalarik, berengana dijoazten arima talde bat ikusten dute. Mi-retsita begira zeuzkaten aiengana urreraturik, mendira nundik igotzen dan galdetzen die aieri, eta aien esanari jarraituz egiña atzera egiñaz dabiltzala, arima bat, Manfredo, Sikili'ko erre-gearena, aurreratzen zaio Dante'ri. Onek diotsa nola azken or-duan Jainkoagana biurtu zan, eta nola dauden an, Garbitokira sartu gabe, Elizarekin muker il ziranen arimak.

Arima aiek, errazoiak zentzutzen duen mendirantza itzuliz, bat-bateko anka-jokoak zelaiian zear sakabanatzen zituen bi-tartean, nik nere lagun zintzoagana jo nuen. Nola, izan ere, joko nuen aurrera bera gaberikan? Nork lagunduko nindun mendian zear igoten? Berak ere ba-zuen, nik uste, kezka bere barruan. O kontzientzi garbi arteza! Okerrrik txikiena zaizu kezka-iturri latza!

Aien oiñak egite guztiei duintasuna gutxitu oi dien laster-keta utzi zutenean, nire gogoa, bere len-begiztaldian murgil-dua egoana, jakin-gura bizitan barriro bizkorturik, begiak itzuli nituen itxasotik zerurantz zuegiago nabarmentzen dan muiñora. Atzetik gorri dizditzen zuen eguzkia ausita geratzen zan nire itxura aurrean, neregana bait zuten oztopoa aren errai-ñuak aurkitzen. Bertan-bera utzia nintzalakoan, alborantza biurtu nintzan, lurra neure aurrean bakarrik illun zala-ta. Nire babesleak onela:

— Zergatik zu oindio ere siñisgogor? —asi zan esaten ene-gana—. Ez ote duzu siñisten zurekin nagoela ta zu gidatzen? Arrats-bera da onezkeru nire gorpua, bere barne itzal nengia-na, eortzita dagoen tokian: Napole'k dauka ta Brindis'eri ken-du egin diote. Orain, nire aurrean itzalik ez ba'da, ez zaitez arritu, zeruko izarrak ere ez bait dute itzalik egiten bata-bes-tearen izpi-erraiñuz. Goi-indarrak egin ba'dagi guk gorputzean bezela lor-oiñazek, bero ta otz, jasatea, baiña ori nola dagian ez digu guri adierazten. Maketsa da gero, iru nortzutuan izate bat daukanaren burubide azkengeak uler litzakela gure erra-zoiak, uste duena. Poz zaitezte, gizakumeok, egiñakin; oro ikusi al izan ba'zenute, Mari'k ez zeukan zertan aur egiñik; eta ikusi zenituzten frutu barik irrikatzen, aal izanik, kezka lez beren barruan sekula ta beti daramatan guraria aserik ikusi ba'lute: "Aristotele ta Platon eta ainitz geiago dakarzkite gogora". Or-duan, bekokia makurturik, etzuen geiago ezer esan, eta kezkatu lotu zan.

Atarik atara mendiaren oiñera eldu giñan; arkaitz zut mal-kartsuak idoro genitun bertan, eta eurok igotzeko gutxi lira-kean bernarik azkarrenak ere. Lerize ta Turbia artean, bide bakarrena noski, ausi-abartsuena, aren aldean zubi bat da, al-datx errez zabala, igaro daitekena.

— Nork daki orain —jalki zuen nire maisuak, ibillita pizkat bareturik—, zein alderdi dan igotzeko errezena, ta nola igo daiteken egorik gabe?

Eta ura, buru-makur, zein bide artu pentsatzen ari zalarik eta nik neure begiak gorantza jaso ta mendian gaindi zuzentzen nitularik, ezker aldetik agertu zitzaigun guregana zetorren arima talde bat, astiro zebiltzalako etzirala mugitzen zirudiana.

— Jaso itzazu begiak —esan nion nik maisuari—; or dugu kontseju nork emana, zu zeurez egiteko gai ez baldin ba'zera. Begiratu nindun orduan, eta azbegi gozoz erantzun zidan:

— Goazen arantz, eurak astiki bait datoz; zuk, ordea, ene seme, beukizu sendo itxarokizuna.

Jende-talde ura, guk milla bat oinkada emanda ere, abai-lari on batek bere eskuaz iritxiko lukean eulmenera zegoelarik, mendi-egala estaltzen zuten arkaitzetara guztiak egiñik, lotu ta potix egin zuten, elkar estu-azorik, duda-mudan doana ara-ona begira gelditu oi danez.

— O zuok, ongi bukatu zenutenok! —ots-egin zuen Bergi-l'k—. Ezpiritu dagoneko autatuok! Zuok guztiok, nik uste, itxaron duzuen pakearren, esaidazue norantza daraman mendi onek, igo al daiteken beronen gainaldera; denbora galtzeak, bada, dakiana geiago samintzen.

Ardiak saletxetik banan-banan, biñan, irunan irten oi diran bezela, besteak izukor begiak eta muturra beera jexritzen dituztelarik, eta aurrenak dagiana enparauak ere egiñik, ari itsatsiz nare ta sotil, ura gelditzean, naiz-ta zergatik ez jakin, beurrak ere geldituaz; olaxe ikusi nuen guregana urreratzen, aurrepegi lotsakor eta ibilli eratsu, talde bildurti ta zoriontsu artako lenengo arima. Nire itzala nigandik arkaitzera bait zijoan, buru egiten zutenak argia nire eskui-aldeko lurrean ebakia ikusi zutenean, gelditu ta zerbait atzerantza egin zuten, eta berekin zatozten beste guztiak ere, zergatik jakin ez arren, beste ainteste egin zuten.

— Zuok galdatu ez-ta ere, neuk aitortzen dizuet, emen ikusten duzuen au giza-gorputza dala; orixegatik eten du lur gainean eguzkiaren argia. Ez zaitetze arritu, baiña siñes ezazue, zerutiko indarrez soil-soilki orma oni gainartzen saiatzen dala.

Onela mintzatu zan maisua, eta gizatalde prestu ark eran-
tzun zigun:

— Itzul zaitezte, eta jarrai oraindik aurrerago.

Eta aldi berean ziñu zegiguten esku-gaiñekin. Euretatik bat
onela asi zan esaten:

— Zerana zerala, itzul ezaidazu zabiltzalarik aurpegia, eta
gogoeman ezazu iñoiz munduan ikusi ote ninduzun.


Biur nintzan arengana, adi-adi begiratzen niola: zuri-gorri
zan, eder eta itxura lerdeneke, baiña bepuru bata ebakirik zeu-
kan sastada batez noski. Nik apal-apal ez nuela egundo ikusi
aitortu nionean, ark esan zuen:

— Begira bada!


Eta zauri bat erakutsi zidan paparraren gaiñekaldean. Ge-
ro, par-irrika, gaiñeratu zuen:

— Manfredo nauzu, Konstantza andre agintariaren billoba;
orregatik, mesedez eskatzen dizut, berriz ara biurtzean, zoazala
nire alaba ederra ikusten Sizilia'ko ta Aragoi'ko dedu ta
ohore diranen ama duzu berau ta; egia esaiozu, besterik esaten
baldin bada ere. Sastada ilkor birekin zaurituta neure gorpu-
tza eukita gero, parkatzean atsegiña duen Arengana itzuli nin-
tzan negarrez. Izugarriak izan ziran noski nire obenak, baiña
ontasun azkengabe danak beso luze-luzeak ditu-ta, euretan artu
oi du Beragana biurtzen dana. Kosentza'ko artzaiñak, Kele-
mente'k atzetik aurka bidali zidanak, orduan Jainkoaren orrial-
de au ondo irakurri ba'lu, nire soin-ezurrak Benebento ondoan,
zubirako sarreran legozke oindio, arri astunen babespean.
Euriak bustitzen ditu orain, eta aizeak bultzatzen erreiñutik
kanpo, ia-ia Verde ertzean, onaxe bait zuen ark aldatu tortxo
itzaliekkin. Aren madarikapenez, baiña, ez da iñor galtzen be-
tiko maitasunera egundo ez biurtzeko eran, itzaropena lore
berdez jazten dan bitartean beiñik-bein. Egia da: Eliz Amare-
kin muker ilten dana, guenean damu izan arren, ur-ertz onta-
tik at egotea bearreko zaio, mukerkerian edo temati bizi izan
zan aldia, egotamar bider betetea, epe-muga ori otoitz gartsuz
labur-azia izan ezik beintzat. Begira, bada, zein zoriontsu egin
nezakezun nere Konstantzà onari nola ikusi nauzun iragarriaz,
baita jasan bearra dudan oiñazea adierazi ere, emen ba an-
goen erreguz asko gutxitzen da daukagun miña.

A. O.



BERTSOLARIAK



ITXASONTZIKO TXO BERRIA

1. Etxetik at

Itxasoa arkaitzarekin lotuak
—orma zuriz eta tellatu gorriaz,
etxearen beak ondar-arriaz,
soka eginda— daude kale extuak.

Etxe zar ondar-arri orixketan
oskatu izan zituzten ikurrak,
berdin-galtzen ari matrail ezurrak
mendeen eguraldi arnasetan.

Ikurrak, azpin ditu zaindupean
eskaratz ate borobil zabalak,
amotsak ertzak igurtziak janak
obeki sar gaitezen aintzifian.

Ate ondoan arraunak zutiñik
zerua arrapa nairik bezela;
etzanda luze garbi dan xarea,
andra maratzak konpondu berririk.

Itxasoko «mana» dakarkiguten
ainguru-gizonen urdin-egoak
puzketan daukez balkoi ta leioak,
ur gezetan gezal laga ondoren.

Tellatu ertzak zirrindearaz dira
ondoko duten uxo argitsuaz,
laister izango, gezi Jainkotsuaz,
kale zarren koxketara jetxita...

Etxeko leiotik datorren argi
txepela bat-batean itzali da
illunagotuz kale txokondia.
Ateko morrollorak, txirri dagi...

Eskaratzetik irten dan jendiak
egin moltzo beltzaren gaidik, doi-doi,
buruz-buru dakusgu goizian goiz
tellatu mugan uxo zan argia.

Oñetakoen takaz, ortz-karrazkaz
egonak diran kale zarren koxkak,
egunaren argi karraxi- otsak
ixildu dira, goiztarren joanaz...

2. Agur

Erditu da kale koxkaduna...
Moltzo beltzak laga du illuna
erri betikan,
arkupetikan
bost lagun pilloan emanikan.
Ikus, orain, eguzki argitan...

Iru neska-mutiko jostari
galde-esaka laugarrenari...
Gizon aundia,
goragarria
bere anai dala iduritzen...
gaur, itxas bataio bai du artzen.

Bostgarren, ama, biotz urduri,
oñazea duela ixuri
begietatik.
Itxas barrendik
alarguntzera etorri bai-zan,
geroz lorrez gurutz emanikan.

«Txo! Esan gero guri ipuiak,
jakin gogoz gaudela anaiak,
itxaso gauzak,
barru arnasak
zeaztu bear dizkigukela
ez aztu, gu ere mariñelak...».

«Oi, seme! Semetxo! Aita oroiz
izan adi! Oraindik aiz garaiz...
Laga itxasoa!
Ortxe galdua
arraien janari, ez bai aut nai!
Etzak eriotz beltzari jarrai!».

«Sinis zaidazu, ama!
Odol deiak narama
Ama maite! Malko oiek
mantalagaz txuka!
Baiki, ezin bai-dezaket
jatorria uka!».

«Lagazu, amatxo, dijoala!
Mariñelak, aitatxo bezela,
nai dugu izan!
Bera il ba-zan,
otoitzaz ba-dakigu il zala!
Ama Iziar oroiz zuela!».

«Otoitzak, urre edanontzian
zuen aitatxok edan zituan
eriotz latzak,
aboin garratzak
goikor sortutako ur-mendian,
eskeintz-iturri ziran orduan!».

«Bai, bai semetxoak! Goi zeruan
bizirik egongo bere gogo...
Bañan gorputzak
txurrupe urak,
nik ixuri bearko munduan!
Orain, zuek zerate ene oro...».

«Izango ere, ama!
Biotz-gogor! Dan-dana!
Legor eta itxasoan,
urruti eta bertan
ama izango gogoan!
Itziar, otoitzetan...».

«Berarekin nabilke
ekaitzaren enbatan!
Otoitzlari, izan leike
bere egatz zurietan!
Ez beldurtu, bada, ama!
Itzuliko zügana...
Ez nuke izan nai illik
uretan galdua
ez baldin ba-da, bertatik,
gertugo zerua!».

3. Kaian

Ontan, Argi —itxasontzi lapurra—
kaian sartu zaigu legunkiro,
Eguzkik, Andutz mendi gallurra
urrezturik, aize bai-dagio!

Illunaren maindirepean lo
zetzaten pake-ontziak, zauri
zuriz ertzak bete dizka an-or
argiak. Orain, oro urduri...

Arrantzaleak, itxasontzian
txingurriak bezela aruntz-onuntz
dabiltza, begiak itxasoruntz,
gelditu gabe bere lanean.

Apain dagerte anitz kolore,
dantzari, ontzi lerdan saratsak
ta —txokorraz bestalde— keatsak,
tximinitan, lanari ohore.

Ama-semiek antzietara
eldu baño len, itxas-erraiak
ikusten dakin patroï ernaiak
arin dator txopatik brankara.

«Egun on, txo! Egun on, etxeko!
Beldur niñun bañan etorri aiz!
Eguzki, eldu duk eta garaiz
eta gertu gaituk irtetzeko!».

«Eguzkiaz dagozu Jon, gertu!
Eguzkiaz, nere negar euri!
Eta... etsipen eskeaz zuri:
Ar zazu mutilla zure esku...».

«Zertarako berritu, Mikela,
lengoa bera zeruan ba-da!
Jon'ek aitaren odol darama...
Laga izan dedin mariñela!».

Eta patroiak laburtu naiaz
agurraren ituna, ots dagi:
Aingurak gora! Nun aiz, lemari?
Ekin, ta ua aboiñen goiaz...».

Abitu da lirain barraldera.
Berak sortu ur-parrasten gaindik
batel eta potiñak zutiñik,
zabal-gogo du begitara.

Oi bezela, negar amarena
ta aurren poza dira geldi kaian,
ontzin kantuz dijoazenean
danak: «Boga, boga mariñela...».

4. Itxas zabalean

Mariñelak Jon albo dutela,
abots zoliaz dagite kanta
 aboiñen tanpa,
 motor karranka,
urrun-eresi goxo, xarmanta
batuz, arraien poza direla.

Itxasontziaren branka zorrotza
ebakitzen doa ur urdiña,
 apar-txirbillak,
 txuri-txuriak
azpiko lorontzian jarriaz,
nola oi Neskutzari larrosak.

Eta tximinik bere matazak,
illaun nai dute, koltxoian biltzen...
 Ortze urdiñen
 zapia artzen
orretarako dira saiatzen,
alperrik aitzen bere arnasak.

Legorretik urrun xamarrean,
bere bidez dijoaztenean,

urre onean
mendi ostean
Eguzki jauna ager danean,
oro da eder gure aurrean.

Ortzetik mendik dirade jeixten
ta, elduta bere babesari
mariñel uri,
etxeak zuri
jatorriari kan-kantari
zoragarritsu dira ikusten.

Jostallu da aize, pelotari
eta mendi ormetan txokoka
aboin pillota
goxoki joka
eten gabian bidal-etorka
aspertutzeke, eskuz da ari.

Goazen poliki itxas barrura.
Oro da bare, oro da urdin,
urantzuz ta aboin;
emen, urrutin
eta urrezulo-ortzean, berdin.
Ar zagun, arin, mugurdin ura...

5. Ekaitz

Ordu batzuk iges joan dira
laga zutela kai ta erria.
Zenbait tokitan bere sareak
bota dituzte alper-ezean.

Oraingo-onetan ba-dago antza
begiz dutela zer-nai arrantza.
Arpegi alai, egin xamurkiz
berriz sareak dituzte jaurti.

Antxoba, parrastan, axalean
zidar biurtu eguzki-pean;
sare-txalupak, aldamenean,
bere dirdira kendu naiean...

Bildu artean, atsedenaldi.
Legorrik ez da iñuñ agiri.
An, mugurdiñak, laño patal bat
nunbaitetik lapurtuta dakar.

«Ator onuntza —patroiak Jon'i—
mintza gaberik ez diat onik:
Ire aitari zor nik, bizial.
Aboin zangarrez gal nin ontzia...»

«Gal nituela indar ta kemen,
nenbillelarik bagatzar menden,
gerriz lutu, arrixku bizian
an sartu ukan ekaitz gorrian».

«Illik natxoken! Ninduken gorputz!
Iguñen mende, aruntz ta onuntz!
Al zun bezela, ontzigañera
igo natxoken, bizi izatera!».

«Bera galtzean, beraren aldez
ezin egiñaz negar-naigabez
gelditu nindukan, ikusirik
abointzarrak zeramala-aurretik...».

«Egiñagatik ainbat alegin
ontziko danak galtzeko zorin,
ez giñan topau bere gorputza!
Berak arkitu Zarautz ondartz!».

Beraz, ene txo, ire aitako
ar nazak, itxas legorrerako,
bare ta ekaitz-txar aldirako!
Bizi-zorra natxok ordaintzeko!».

Orain, len ikusi laño patal
aundiagotzen egin ahal!
Odej beltza da orain biurtu!
Aize, arrunt da ere bixitu!

Patrioiak —txo berri buru gaindik—
begiratuta, naigabeturik
eta arpegia illun altxa da
Jon'i bizkarreko bat emanda.

«Sareak bildu! Lemari, gertu!
Sare-txalupak ontzitaratu!
Urrunen, Ekaitz zaiguk gogortu!
Gaur, naiko lanez izango gaituk!

Jostallu zan pelotariari,
antxen mendi ormetan txokoka
 aboin pillota
 goxoki joka
eten gabian bidal-etorka,
aurkalaria zaio etorri!

Ekaitz, indartsu, burrukalari!
Atzetik ditu bere sakeak,
 odej beltz-beltzak
 eskuxareak,
ortots-tximistak laguntzalleak,
eten gabarik dari ta dari!

Aboin pillotak mendi añako!
Bere zangarrak, mendi ormetan
 dranka latzetan,
 lur ikaretan
jotzen dute ta bits txurietan
txeeturikan gelditzen yakoz!

Beldurgarria bere eraso!
Eramango ote aurrean, dana?
 Ontzi txaldana,
 otoika dana
arren ta arren Amarengana?:
«Geldizu, otoi, bere besoa...».

Pillota txar bat ba-giñan antzo
bidal gintzazke sareaz joka,
 ormean jota
 bertan porroka
lagaz mendi tantaiaak orroka
ta, guretik, ez bizi ez zantzo!

Ontan, patroiak Jon'i dasaio:
«Bai garratz dala ire bataio!
Egon adi ontzi-sabel barren!
Au, geroa ta ari duk txartzten!».

«Al dutala ez dut nai barrengo!
Patroi zurekin euki emengo!
Txikiak gerala ikusten dut,
alare, ez nazu oso beldur!».

«Bai, anitzez txikiak
gerala ikusteko,
abil itxas gaindikan
ta ortzearen beko!».

«Oi! itxaso-lurren aunditasuna
eta zabala!
Pentsa, eriotzean lur apurra
naikoa dala!».

Ontzi gaindik bagatzarrak dabiltz!
Pulunp dabil ontzi, intxaur ba-litz!
Iñolaz ez dago antxen giro!
Petroiak ots dagi, gogorkiro:

«Ekin mutillak! Otoi ta lana
alkarrekin osa zeruko «mana»!
Egin biak al dan azkarrena!
Au, txartzten ziak! Goazik barrena!

Barruan dira. Ontzi gañetik
bagatzarrak ez dabiltz errukiz.
Jo ta lema-txabol sustarretik
txirri dagi, uraren irakiz!

«Jon, otoj dagigun! Otoi, danak!
Zain gaitzala Itziar'ko Ama'k!
Geldi dezala Ekaitz besoa!
Pillota-toki txar itxasoal!».

«Bere laguntzaz nabilke
Ekaitz zitalen enbatan!
Otoitzlari, ba-dabilke
iñor egatz zurietan!».

«Ez, beldurrak ez naragil!
Ama laguntzak narabil!».

«Ez nuke izan nai illik
uretan galdua,
ez baldin ba-da, bertatik,
gertugo zerua!».

6. Itzul

Etsita egon arrantzaleak
iges eziznik Ekaitz zareaz
otoj eta lan, samin nekeaz,
aurrez dakuste bere etxeak.

Dakuste-ere bai, irri ta negar,
emazte maite begiak txingar;
seme-alabak, kanta-kantari;
ama gaixoa, txit negarlari.

Jon'en amatxo antxen daukagu
besarkatzeko besoak gurutz!
So ibili da esanetara...
Negarren gorri du, begitara!

Laztan batean besarkatuta,
negar-malkotan biotz urtuta
berriro dasaio semiari,
so egiteko bere esanari:

«Oi, seme! Semetxo! Aita oroiz
izan adi. Oraindik aiz garaiz...

Laga itxasoa!

Ortxe galdua

arraien janari ez bai aut nai!
Etzak eriotz beltzari jarrai!».

«Sinis zaidazu ama!

Odol deiak narama!

Itzuli naiz zugana!

Oi! Itziar'ko Ama!».

«Ez nuke izan nai illik
uretan galdua,
ez baldin ba-cla, bertatik,
gertugo zerua!».

«Biotz-egiz dasaizut, Mikela!
Malko oiek, mantalagaz txuka!
Jon'ek ez du jatorria uka!
Aitaren seme da! Mariñela!».

Anaitxoak, nun-naitik elduta,
etxeko naigabeak aztuta,
kontatzeko itxaso burruka
eska diote, abots oiuka:

«Txo, esan gero guri ipuiak...
jakin gogoz gaudela anaiak
itxaso gauzak,
barru arnasak
zeaztu bear dizkigukela
ez aztu, gu ere mariñelak...

Tabernan, orain kanta-kantari...
Errian, poza garbi nabari.
Ardo-txanbillak eskun dutela
danak: «Boga, boga mariñela...».

Uxola

1979.EKO AITON-AMONEI EMANDAKO JAIALDIAN BOTATAKO BERTSOAK

Itz bakar batzu jaulki nai ditut
nere arbasoen izkeran,
Aberri maite entzun arretaz
t-idatzi zure kondairan.
Poza darien egun alaiak
ez baidauzkagu aukeran,
gaur zoriontsu argitutzen naiz
gurasoen araberan,
biotzan mende gabiltzanean
orra zein aundiak geran. (BIS)

Legazpin ordez milla zorion
Gipuzko «Arrezki Kutxa»
eskertzen degu lan-sarituei
egin diezun goraitza.
Zure urrezko ezta eguna
ez dedin gertatu utxa,
zuk dezakezu, eta biotzez,
eskatzen dizut laguntza,
Aiton Amonei lagun gaiezu
eguneroko bizitzan. (BIS)

Aurrezki Kutxan zuzendaria
ta bere lagun guziak,
alkate jaunak, diputaduak
baita Setien gotzaiak.
Baratz batean bazkatzen gauden
artaldea ta artzaia,
ez ikaratu or zelatari
egonagarren etsaia:
gorde ditzagun Aberri-sua
eta sinismen garbia. (BIS)

Larogei urtez ornitutako
guraso auen aurrean
txapela erantzi ta buru makur
nago esan bearrean.
Guregatikan bizitza dena

jardun zerate lanean
guri euskeraz erakutsiaz
Eusko luraren gainean.
Eskerrikasko Aiton Amonak
Euskadiren izenean. (BIS)

Usagarra-zar

ONGI ETORRI LENDAKARI JAUNA

Leizaola zuretzat,
biotzeko itz-bi,
idatzi al banitza
sakon eta ongi.
Auts-azpiko txingarra
zaitu duzun hori,
Aberri txingar horrek
gaur sua dirudi
askatasun bidean
jeiki da Euskadi.

Utzirikan herria
ta zeure etxia,
Aberri kezka Hortxe
bizitza guzia.
Ondo zaindu dezula
nago sinetsia,
zoritarrez «Agirrek»
goizegi utzia,
Euzko jaurlaritzaren
aulki berezia.

Herri honen arnasa
eta izaera,
ekintzak gaurkoratuz
oituraz leenera.
Txalogarri deritzat
zure jokaera,

Aur-Amek batzen ditun
zillaren antzera,
leena gaurrari lotzen
buru izan zera.

Galtzaile jo ginduzten
ogeitabi ta uts,
betirako menpean...
betiko umezurtz.
Bai, gorde ez bazendu
hor, erbestean zuk,
nortasuna damaigun
eskubide batzuk,
nortasun kutxa zera
zoriontzen zaitut.

Usarraga-zar

¡GORA! ITXARKUNDIA - TARRAK

Iturritikan ura bezela
or dijuaz nere itzak,
Aiton Amonai eskeiñi nairik
merezitako goraltzak.
Zuen bearra badu oraindik
Euskalerriko baratzak,
zuek zerate beste lur gozo
arbaso zarren emaitzak,
erri zar oni itzal da babes
dariozuten zuaitzak.

Zugaizti ontan falta diranak
guda txarrak ebatsiak,
berak ain maite zutén mendian
óbiratu ta utziak.
Erria maite izatearen
orra ondoren tristiak,

jakin, gogoan zaituztegula
biotz osoz onetsiak,
zuentzat gaurko gure zorion
eta aipamen guziak.

«Gudari», zure emazteari
deitu nai nioket «ama»,
bera da lotzen gaitun lokarri
bera da euskal anima.
Guda zitalan iturritikan
ozpin garratza erana,
naigabe askon gorde lekua
negar ixillen laguna,
zuri lagunduz bera da nire
gudari egin nauna.

Bermeotikan Urkiolaruntz
Sabi-gaiñ eta Artxanda,
or gelditzen da zuen odolez
landu zenduten galtzada.
Erri txiki bat aundi izatea
danok dakigu zaila da,
bañan askea izan daiteke
bere naia ala bada,
ontan euskaldun jokabidea
zoragarria ez al da?

Agur aitonak ondo igaro
bizitzan arratsaldia,
au da, gu jarraikide geranok
opa deikegun saria.
Gu ez bagera iristen baldin
askatasun ataria,
ez ikaratu, iritxiko da
urrengo belaun-aldia,
Gora euskera, Gora Euskadi
TA gora Itxarkundia.

Usarraga-tar

**AZKEN AGURRA, ARRIGORRIAGA'KO NERE
ADISKIDE IZANDAKO PATXI IBARRETXE'RI**

«DEIA» egunkariaren bidez,
Jantzia berebat uso-beltz,
Jakitun nintzan zorigaitzez,
Patxi, ire iltearen barri.
Orrelako jazokeran,
Arnas-estura nun ni jota...
Biurturik korapillo biotza
Azpi-gaiñak artuta tamalera.

Ortikan aurrera
Itun da nere barrua
Labankor jaurtiki goi-beera
Itzuj sakonki zarradara.

Bada gomuta galdu ezin,
1978 grrgo. jorrail 29'an,
Azkenez gebala elkar ikusi
Orko «Poli» edaritegian.

Orrela nere susmoa,
Ni emen, ainatuz urriñagora;
44 Urteko aldiz atzera,
Dueso'ko espetxe zimelera.

Bai egun itunak aiek,
Aaztu ezifñezko goseaz,
Andiko maskal egoera,
Gorroto kateakaz gu lotuta.

Epaiketa itzal-bildurgarri aitara
Artaldetxoka garoiezan gu ara
Gure aldeko otsik tutik ere ez-eta,
Zakar erabiliak giñan. A gorrotoa!

Gaur, ostera, epaile ipur-garbitzalleak,
A gorroto makaldua, ez aaztua,
Or zatzaze lurraren errai otzetan
Buru-makur, Yainko zuzenaren aurrean.

An, erdi-ilunetan, oso lurjorik,
Eskubiko 150'gn. gelan loturik,
Gure zoriak nonbait ala nairik,
An sortu giñan gu alkarren anai.

An, biotz errugeak adoreturik,
Ez izan guk apenik gorrienari,
Irañik baltzen-bidebakoeneri,
Gorroto-erasori erantzun-ezinik.

Ikaragarria gure gosea,
Makil-zigor genuen bizkar,
Egundik-egun meetuz gerrik,
Geroago ta suminduagorik.

Ontan giñazan suberotu,
Gure kemena egiztatuz,
Etsairen gogorra ezagutuz:
Tiroz ildako anaiak oroituz.

Ango esi-orma arrizkoak,
Aal zituten begiak;
Mintzaten ere jakin, eta...
Aitortu edan zuten odola.

Gaur berean ere,
Naiz antzinatiko garaiko egiteek,
Dardaka iraultzen zait soiña;
Orraiñoko otsoren itxutasunaz.

Urte-beteko neketan egonaldin,
Zenbait zor nik iri!
Batean zurtz izan gintzazen, Patxi,
Nolana! aaztu eziñezko!

Gaur illa baiz ere,
Ii! bai, euskararen zale:
Pozik intzan i nere,
Txantxiku euskera-entzule.

Ire olata mezatan
Egonak gaituk biozmin;
Nere emazte Mari,
Isasmendi, nire suin,
Orobat Edurne, len-alaba.
Laurok an eginik sorta,

Geure biotzak jasorik gora,
Ire alde otoitz zerura.

Ainbat ez ezagun
Ikustez nere alboan,
Barrenak tirrit deust;
Denak ire lagun zaarrak, ala?
Baña nik, aurrez ezaguturik
Naiko dan ire gizonkera,
Alai artu bear batzaldia,
Nire biotza iri opaturik.

Gaur zordun ago, Patxi,
Il-ogean etzana,
Paketsu bizitza gaindurik,
Eztitsu !or!, eriotza otzean.
Ii! egiz, bizi askoren askatzaille,
Dueso'ko ateen irikitzaile,
Lagun-urko zurizka izendatuen:
Nundik eu gero bertantxe giltza-pe?

Azken-aldi agurra,
Artu zak biotzetik urr,
Laister datort neri ire eguna
Sinismen sendotasun lagun.
Zeru ar-mailletan
Itxaron eidak neri;
Bertan, betirako goierrin,
Andik zear berotu daigun euskara.

«DEIA» itzarekin asi-ta,
Beste dei bat egin bearra,
Gaillurtu gurarik bukaera:
Goian bego Ibarretxe ona!
Eure sendi ta aideek,
Pozik ezagun ditut ire illetetan,
Abertzale-usain gozo ingurua,
Orrela besarkatuz, naiko naigabe.

(Oinati'tik emana,
Arrigorriaga'ra.

1981 grngo. Epaila'ren 7'an. Larunbata).

Korkostegi'tar Xanti

BIDASOA

Bidaso erreka
Orr, Nafar-bizkarrean,
Baztan goragotik jaioa;
Beraka zatoz
Geituaz, geituaz ura.
Izan ezinik garbiago
Bide-arriai erasoz
Borobilduz aien ertzak;
Zure sabelean arraintxoak
Ain maite zaituenak.

Erretzun'en argiratuik,
Endaia'ko ondartzan
Zera ezaun aundi;
Ta bidea zoaz miazuz
Bidez ikustari ainbat erri.
Arraiotz eta Narbarte
Batetik,
Legasa ta Doneztebe;
Munik berago Sunbilla,
Berrizaun ere bai.

Goibera doan urr narrazean
Amorraik aldatz-goran,
Ago itxita uraren aurka
Eta aurki Bera-Bidasoa.
Besaka batean Alkaiaga,
Ortxengo Endarlatza,
Agirin Likarlan mendi;
Or ezker-alderdira
Done dan Martzial:
Ate-zabalik Behobi.

Beti zū agurgarri
Euskaldunentzat,
Eren gogapen guztiak
Ekarriz itunaldi.
Bizkar-azur arro,
Beste urbide dan-danon,

Zu bakarrik izanik
Eguerdiren lerro;
Bi zati eginik
Gure euskal aberri.

Zure ur bizitan
Igeri dabilnaz
Amorra ta izokik
Osasun beterik.

Gizona oster,
Nausi bear lukena,
Igesi dabil
Etsaien gandik;
Alkartuik dabilzanetatik
Euzkadi joka.

Aor gezurrez jantzita
Askatasun ustela,
Zertan zabiltz uxaka,
Gu emengo ba'gera?

Ez ote degu etxean
Emen gure Ama...
Berakin euskara,
Edesti zarra,
Mendik eta ibaiak,
Lengoen araudiak?

Bidasoa...! Bidasoa...!
Ur-ertz bi dituzu,
Berezizko erreka;
Baña albo bietan !zu!
Oso euskaldun zerana.

Aiton-amonak negarti...,
Aitamak poz gabe,
Erasoz aserik billobak:
Abots zarrak entzunik
Eurenez euskara maite.

Zure ur geldigorra,
Ezinbestez distikorra,
Gau ta goitik beera,
Bidari goitik beera,

Izanik jaiotzaz geza.
Zenbat bider
Odol gorritz zera nastua,
Euskaldun semeenaz...
Igaro ezinez erak
Alde batetik bestera.

Baña ala ere zu
Ba-zoaz bidez bide,
Negar malkok ixuriz,
Mendi goian sorturik
Kresal guraz biurtu.
Olan, gazitu aurretik,
Gaitz-negarra ugaldurik,
Itoaz danon eztarrik,
Beko landan ur geldi,
Gozoro ibiltaldi.

Orrelaxe, ain lenagoko,
Itzalgarri zeran erreka,
Antzin-antzinakoa,
Jarrai zure bide zarrai.
Orreaga'ko eusle sutsuek
Euskaldun uts arek
Egin zuten edestiri.
Beraz, geiago zure urik
Ez daiten agertu nasturik
Gura anaien odolakin.

Orra or! Bidasoa...
Gizantzik bear dun erreka,
Ikuskizun zoragarriena,
Olerkariren amets-ametsa.
Bestalde, aserik arriskuz,
Erantzun bearrik ba-duk,
Ainbat euskotarren estualdi,
Eren koloka-igarin,
Ire uretan ito eginik,
Bizitza gorde nairik.

Ontan ire urak,
Edaririk zindoenak,
Kilika beraka doazenak,
Kuluk-alkik erak,
Neri irudituz seaskak.

Or dituzu, or, sabelean,
Euskaldunik asko barruan,
Betiko iruntsiak ez daitezen
Zearka igan igariak,
Alegin gorriak eginak.

Noiz arteko urrumak,
Larritasun eta neke-giroak,
Erasoketa gaiztoak
Euskotarren aurka?

Nundik gatoz bada...
Ez ote gu emengo umeak,
Gaur gizon geranak
Gure buruen jabe izatekoak?
Gora ta gora, euskal lurra!
Diote aspergabe nire zainak.

Jaiki, adorez, Bidasoa,
Azkenik ezinekoa,
Bideik zigortuena,
Gutziz maitagarriena.

Orain ni izanik zaarra,
Egun argiren umea,
Aurrazkero ni egifa:
Baña... aziaz au baña
Mardul dut nigan izkuntza
Gelditu aurretik nire biotza.

Oinati'n

1977 grrg, Epaila-1.

Asteartea.

(Nere aita izan zen berrogeitamairu-
garren urte ilte betetzean,
Garai artan amar urteko ume nintzan.
Gaur ia, ba, 64 urte ditut).

Korkostegi'tar Xanti

ON JOAKIN BERMEJO (G. B.)

Biotzetik negarrez
artalde guzia,
artzaiak utzi baitu
munduko bizia;
jatorki erne dedin
erein zun azia,
Jauna, zuk ez ukatu
zeruko grazia
kristau izan dezagun
beti Ordizia.

Jaunak agindu zigun:
«ALKAR MAITATZEKO»,
ta beti prest zifan zu
ori betetzeko;
gaixo ta beartsuei
gogoz laguntzeko,
etzendun kupirarik
esku-zabaltzeko,
erriak ez du itzik
sendo eskertzeko.

Erriko eliza zuk
berritu zenduan,
guztiak lagunduaz
al zuten moduan;
buruausteak gaiñez
ordaintza orduan,
beste pentsamenturik
etzendun buruan,
gaur sarituko zaitu
Jainkoak zeruan.

Sekula etzenduen
kopetarik beltztu,
naiz ta diruarekin
sarri izan estu.
Talentua zendun da

zertarako nastu?
Edozein gizonek gaur
au beregan eztu,
Ordizia zurekin
ezin leike aztu!

Ogei urte auetan
erri baten Artzai,
naiz ta zuretzat leku
obek sortu nunai;
etengabe lanean,
berdin aste ta jai,
lana gaiñezka baiña
alare zuau alai,
erri zar zurekin
oroituko da, bai!!

Trinidad egunez
izan zan illeta,
eta eliz guztia
kristauz beteta.
Euskalerrri osoa
lagun zendun eta,
zure izena zeukan
biotzen gordeta,
zure azken-agurra
etzan berriketa!

Zer elizkizuna zan
denok jakin garaiz,
Gotzai jauna buru ta
berrogei bat apaiz;
denak meza ematen,
au ez da bixtan maiz
sekula ikusirik
oroitutzen ez naiz,
penaz zeuden biotzak
jarri ziran alaiz.

Mundua utzi dezu
agur, On Joakin,
arren, etzaitez aztu
zu Ordiziakin;
biotzetikan maite
zaitun erriakin
emen utzi dituzun
arditxo auekin,
gero Goian biltzeko
denok alkarrekin!!

1971'n egiñak.

IBAI-ERTZ

GOGARTEAK

Ager atxaldetan tokiak
irripetan oker bideak,
pagadi, gastañak, aresti,
erreketan altz bitarteak.

Urrteak urrte sakontzen dira
mendiarrte troka luzeak,
berealaxe lanak aldatuz
piñu baltz sasi sastra arrteak.

Umetan nintzan sarri ikusten
Domeka arratsalde aitagaz,
makila sendo, pausu ariña
neiko alegiñ jarraitzeagaz.

Bidez Auzuna, gero Atxarrte
burripide segi beragaz.
Ziñez, men gurtza, Gurutz Done,
Asaben. Baselizagaz.

Alde bitan atxak, arrtaldez,
Untzillaitz eta Atxa Txiki.
Bitarretez andapara begi
eskumaz pasa zubiki.

Uda Agorri! azken zapatu
Erri oso dator otoiki,
Urrkiolan promesak eskiñi
danok maitasun biziki.

Egikerak bidez bestalde
larre, erribaso, ikazgintza,
eta millaka urrtetik ona
zaldi, beor, abere, artzaintza.

Aldapa, tontor, aranetan
bedar, ezkur, janar intza.
Sei sendi berrtoko biztanle
baiño Erri guztiak Agintza.

Seme maitia nekatu barik
astiz, begitu Oletxera.
Gizadi gogorrek berrton jaio
senditar osasunera.

Berrogetamar urrte dala
ixtoritxo onen jazoera.
Biziak dira orrko seme alabak
errez eltzeko eun urtera.

Izen gatxak sarri imin doguz
auzotar gure maitieri
sendi lantsu, jaso, jatorra,
Oletxen jaio yaku azeri.

Ezagun dodaz dozenerdi
osoro maitez etxeri,
zutik Satur, Anton, arrebak,
ZORION onenak eureri.

Bean Oletxe, goyan Intxalde.
A, zulo ta errekatxok une.
Saltzaille lanak, burrni, serra,
laño, kare, ikatz lurrune.

Ez aizturik, Atxarrrten etxe
au baizen zuriago urune.
Illuntzez auzo solasaldi
tabernatxo lez egune.

Intxaldek onenbeste errlete!
Uda on kiñarra, ota lorak
eztia zenbat atara leiken
milloika errlek duen denborak.
Aberre txabol, arrdi eskorrtak,
arrtzaiñak ziran gogorrak.
Udabarriz bildots jayotzak
neguko zaj ardura osorak.

Itxarona! Zorionez oso
pakezko txadonan dira
gizaseme sendo, garrtsuenak,
sari betikoz ongira.

Anjel, Kepa, Manu ta Todor
Ermenejildon tokira.
Intxaldek apaiz bi zitun
Jaunak eroan dauz Bizira.

Oroipen uts bat agerrtzen noa
udazkenez jarrtzen zana,
Erri guztiak irats azpigi
orrko mendiarrtetan lana.

Janaldi orrdu zaintzen ibiltan
zetan ezeukien ez emana,
begi Alluitz aitz gailur galdara
eguzki orduari orratzana.

Irats arrloak barrdintsu neurrtzen
dabiltzaz Erri gizonak,
Udaletxean geroztik puja
goratu nairik larra onak.

Elosun iratz marrdo, guri,
amil, baso baltz sakonak
guen zelai, goiko basoetako
karakoletan dauzanak.

Etxeak utsik aurrenengo zein
eldu norberen arlora,
egoaiz siku, kaskarr berotuz,
be ebagi, batu sasora.

Burrdiak luze, zabal tolostu
arau trébetasun gora,
almena dauke orretan askok
MENDIOLAK guztiz ganora.


AITA! Zu bai zīñan niretzat
etorrkizunik garaiena,
zOrion maitale, itzaz barrdiña
egítez zoragarriena.

Danak etozan zugana anai
etxetar, kanpo zirena,
ziñ amaibako sinismena
ta gizontasun goiena.


Zenbat bidar gomuta dodaz
KEPA, lenako ibillaldiak!
Gaur txintxilliz bizkarrrxorokak
Jai astegun alai doaz gaztiak.

Aldakuntz danak gizaldi errdiz.
len lanbizi, baso mendiak.
Orain ikasketak, oiturak,
bakez balitz, gozatu obiak.

Untzillaitz- Agerre



ERITZIAK



EUSEBIO ERKIAGA «ENDAITZ»

Lekeitio, Bizkaia'n. Itxas ertzeko erri ikusgarri, langillea. An sortua dogu euskal elertiaren zorionerako, Eusebio Erkiaga Alastra, 1912'ko Irailla'ren 4'an. Izenordez «Endaitz». Olerkari gozo eta samur bezin idazle ona: amaika eleberri, antzerki eta gaiñontzeko idazlan gogoangarrien egillea. Berein sari jasoa arlo guztietan.

Olerkari dagokionez, tamalgarria da bai, aren lan ederra, aren olerki ezti, gozoak, liburu baten bilduak, jasoak ez izatea. Olerkari aundi-maunditu txepelagorik ikusten da bazterretan. Ez bakarrik, euskerearen alor, barrutian, baita bere erdalduetan. Sakabanatua aurkitzen da Erkiaga'ren olerki-lana, aintziñako Euzkadi, Ekin, Yakintza, Euzkerea, Euzko-Gogoa, Egan, eta abar, ainbat aldizkari eta egunkariaren euskal orrialdetan. Batzuk goi-maillkoak, besteak ez ainbeste, baiña, dantetan daurkikegu, aldiberako gure (guda-aurreko eta isil-ondokoz ganera, egunotarañoko) olerkigintzaren lekukotasuna, aren etenbako ekintzaren lorratza eta aren idazkeraren euskalduntasunezko yasa. Ez dira ain ardura gitxiz baztertzeoak, aintzakotzat artu barik sastegira jaurtitzekoak. Aberri-miñezko aldi bateko edestiaren agiriak dira. Erri txiro baten euskalatal jakingarriak. Ezer ez daukagu alperrik galtzeko. Euskerea ia aintzakotzat bere artzen ez zan garaikoa dogu. Abertzaletasunaren ernemiñezko garralditik sortua. Azkatasun eguzkiaren lenengo argidurakaz lekuratu zana... Erkiaga'k, (lenengo aldiz atxurra eskuratu duanaren antzera) bearbada, bere lenengo bertso-atxurkadak, ez ebazan emongo nekazari ortaratu baten egokitasunez edota maixutasunez. Apur-apurka egiten da bat, ikasiz, ikusiz eta norberezko naimen, gogo biziz... Berez, euskal olerkari batek difioanez... «Berez... Batere ez».

Endaitz gaztearen asierako olerki batzuk (euskeradun abertzaletasunak eraginda, jakiña ba) atzerriko bakartadean nintzala an, Filipinasetako ugarte batean, etxetik noizik bein bialtzen eusten Euzkadi egunkariaren euskera utsezko orrialdetik maitasunez jasotakoak dira, beste askorenakaz batera; orduko bertsoigintzaren labatik arako opil beroak: nire euskerazko maixuak, gaur be, ordutik ona galdu barik neure eskuetan

dirauenak, bildumatuak. Endaitz'enak aunek dira: «Lipar Gu-
rena', «Ames-lilia», «Kisto Bakaldun» eta emen doakizuen On-
darroa'ko Euskeltzale Bazkuna'k eraturako Agate Deunaren
Olerki Txapelketarako egindako olerkiaren atal bat:

«Neskutz done bat aintzaldu eta
oiturak indar barritu
orrelan asabaen lorratzai
guk jarraituko dautsegu.

Urte oker ta illunak zirean
aldi artan kistarrentzat:
zoritxar antzeko egun areik
zorun ekarle guretzat.

Kistoren jarraitzalle artian
gendun Agate donia:
oker-zifieskuntzaz kutsubako
ta neskutz garbi-zalia.

Garbitasunaren iturri
Kisto jaunagan ekusan.
Kintzen erri-buru nagosijak
uka-erazo nai eutsan.

Agate deunak ez nai ukatu
bere kistar ixaterik,
espetxe illunean sartun eben
ukapena lortu nairik.

Alperrik ziran etsayen lanak
neskutza orbandu nairik;
orra ba, Agate areyo eskuz
il, bularrak ebagirik...

* * *

..... eta, abar... onela darrai, Agate Deunaren gertakaria aril-
du ondoren, emen ez datozen sarrerako bertsoen antzerako
agur bertsoekaz «etxeko sendi jatorra, euzkotar zinduak»-eta,
agurtuz...

«LIPAR GURENA»

Enau bildurtzen erijotzeak;
bildurtzen nau zelan ilteak.
Done erijotzea
nai nayan neuke.
Lipar gurena gizon orontzat
erijotza da; gero zantzutzat
artu daikegu
bakoitzarentzatt.

* * *

Eta, onen antzerako bertso-antilamenduz amaiera emoten
dautso «zelan iltearen arduratusanaz».

AMES LILIA

Zoro-amesketan sortu
eban olerkariak
ta Jaunak entzun bai-zituzan
olerkariaren
erosta negartiak
zitoria baizen guri
egin eutsan arpegia
ta begietan ezarri.

Geiago luzatuko...

Aberriaganako maitasunak eraginda euskal alorrean bere
biotza ezarri daben gaztearen lenengo lorratzak begiztazen ari
gara. Aren zifiezko lenengo oinkada pozkarriak.

ETEN KATIOKI

Ona ba, zer diñon:

«Maitasunik iñun eztogu
Ama'ri zor yakon aña;
erbestekua nayago dogu,
bego Ama'ren samiña.

Gure lurreko
zeru-aldian
orain baltz ta len
urdiña...
lokarrri gabe
legoke Ama
seme zintzoak
ba'giña.

* * *

«Ene esaben Erri maitia,
Euzkadi zorigaiztoko,
eun urte baiño len ez aldogu
morroitza barik utziko...?

Ama lotuten
dauan katia
oñazpiratu
orduko
etsayak bera
il ba'dagisku,
agur! euzkuok
betiko...!

* * *

Begira beste olerkitxu au bere:

ABERRI BAT; ZATI BI

«Itxas berberak laztandu,
odoi berberak biztandu.

Ibai medar ta mendaitzak
zati bijak oi batzandu». **ARROTZ ERRI** biren mende
ABERRI bakar osua,
semiak itsutasunez
ija gal dabe gogua.

Euzkadi ama maitia;
zeure semioi bialdu
gogo eta argi betia».

Agirikoa da Endaitz'en olerkari sena. Euzkadi egunerokoa-ren euskerazko atala izan zan ainbeste gutarikon ikastola. Bat bestearen olerki, ipuin eta poematxoak irakurriz zerbait gaitu giñan. Kirikiño, Orixe, Lizardi, Udalaizpe, Lauaxeta, Erletxue, Otxolua eta abar izan ziran gure argibidezko edanlekuak, iturburuak... Iturri ortatik edanda biztu zan gazte batzuen olermena. Endaitz dogu bat. Gizon egiña dakusgu gaur. Idazle ta olerkari on. Olerkera...? atzokoa? gaurkoa? Ez atzoko ez gaurko. Betikoa. Egun bakoitzez bizi dana. Lengoa ikasbidetzat artuta, dana bertanbera, lengoa dala-ta itxi barik aurre-ra dagin egiazko, zuzentasunezko asmobidez. Aukeratutako bidean biotza ereiñez, argi izpiak nunbaitetik jasotzen diran bitartean. Ibillizko munduan gabiltza gu be, ta gauzak aldatzen dakusguz aldirera, apur-apurka, ia oartu barik baiña, ala da; jazkerak, oiturak, oldozkerak... ta, gizona beti ari da gauza barriak asmatzen, bere argitasun arabera gauzak egin eta desegiten. Batzutan onerako, bestean txarrerako. Eta, ainbesteren artean... iraultzalleak sortu oi dira, danetariko asmo eta erabidez...

Eta, aintziñakoak: «Zenbat buru ainbat aburu». Edota, arako espaniar olerkariarena: «Todo es según el color del cristal con se mira». Batzuk itxurazale; prakatan txatal batzuk ezarri ta langilletasuna aldarrikatu. Baiña lana beartsuentzat itxi. Gauzez naiago dabenak ibilli eta ez egun argitan. Erkiaga benetako olerkari langille zintzoa dogu, burua agertu bearririk ez daukan orreitakoa bere olerkiari edertasunezko argibide bat emoteko eraturarik sentikor eta, alik txukun, garbienez... Aurrera dagina da, atzean geratu barik esateko bildurrez. Baiña, gizonki, bere bideari jarraituz.

Bere gazte aldian, gazte aroan maitasunaren eskutik ibilitakoa dogu abesti gozoak abestuz: Errota Zuri, Ene Maitia, Maitale Biak, Uso bi iduri, Amesa? Argiñe, Goiza, Ezkontza, Txintak, eta abar... Danak lenaldikoak. Oraintsuagokoak ditu «Izarrak Isillik» eta Biok erdal itzulpenaz datozenak A. Onaindiak aukeratutako «Las Cien Mejores Poesías de Amor de la Lengua Vasca» n. Politenetariko bat:

ERROTA - ZURI

Erreka ertzean altza,
ertzera goi errotea;
inguruetan ederren
errotako alabea.

Marti zozoa kantaten
bidez goiko sagastian;
astotxu zarra zamauta
nekezka, aldapa erdian.

Erreka ondoko bolu,
—zuria goitik beeraiño—
gordeta daukan pitxia
eztot ikusi gaurdaiño.

Bolutxuko neskatilla,
—larrosa eder dirudi—
ibar osoan ezta iñor
ai, zeu baizen maitagarri!

Epalla lenen-egunak,
—garia aspaldi erne zan—
oraindik ezta lorarik
eskaratzeko arasan.

Neskatil zoragarria,
—emeretzi udabarri—
ire ibilkera yayoak
aundikiena dirudi.

Txakurrak zaunk etxaurrean,
—atak errekan igeri—;
neskearen ezpanetan
barrea loratu bedi.

Errotatxuko alabak
urrezkoa dau biotza;
ai, ederra! nork leikean
zuganik baietza.

Mendi artean ibarra,
errekertzean errota;
bolu aretan euskotar
neska garbi bat gordeta.

Nun dira gaur orduko irin zuriak, nun errotak, artotzak,
garitzak, nun orduko loratzen zirean nekazari laborantzak?
Aldakuntza nabarmenak ordutik onakoak. Baiña, Endaitz'en
lauki gomutagarri au emen dogu zuzpertzeko gazteagotako
biotzak.

Jarraitu daigun aurrera bere orduko beste olerkitxu pin-
pirin batzuk irakurriz eta, beingo batean oartuko gara lauki
auetan olerkariak jaso dabezan biozkada sentikorren taupa-
dakaz.

ARGINE

Putz-egian bigun
ego-aize meiak,
legun erabiltzan
orri ta adarrak;
astegun zan eta,
udazken giroa,
aize guzietaz
buru zan egoa.

Oi, goizaren eder,
biotz pozgarria,

goiz artan bai neban
izan poz-aldia.
Enparantzan betaz
yarririk nengoan,
aurrez-aur eleiza,
etxeak ondoan.

Enparantzan oste
gaitza sal-eroska;
batak au agindu
ta besteak uka.
Lasaiki nengoan
noranai begira,
enparantzara ala
eleiz atadira.

Alako batean
zabal da atea
eta, eleizatik
urten zan maitea.
Apalki yantzia
ta, biotza garbi...
Bera izango al dot
ene bizitza argi!

Ederto eratutako olerkia. Zai zegon enparantzan gure mu-
tilla noiz agertuko bere maitea, begira alde batera eta bes-
tera... Lasai? Ori diño baiña... «Alako batean...». «Alako»
onek azaltzen dau olerkariak poeman adierazi nai daben mai-
te-mindu begiralearen bigiratuen norabidea.

Ain adikera bizi, atsegiñez egindakoa danez, emen jartzen
dodaz «Lekeitio'ko andra aureskua» deritxonaren zortziko
batzuk:

«Gona baltzak yantzirik
ta gorantz gorriyak,
buruko zapiyetan
arro txori biyak;
sorbaldatik txairo
loradun krespoiak,
Manilan egiñiko
dedazko mantoiak».

«Zeure bular arteko
kabeliña alpakaua,
zeure begira dago
erriko eskribaua...
Luisatxu Kaiganeko
gaur be gomutaua,
aurreskua eiteko
beraz izentaua».

Neskatil zoragarri
gixxitxu lakuak
sokan oi ziran lora
udabarrikuak;
laguntzaz bai topau be
euron gustokuak
mutil kolore eder ta
bana-banakuak».

«Bira eta artaziyak,
irradan puntuak...
aurrera atzerakadak,
oin-muturrekuak...
Gero neska-mutillak
bizkor pandanguak,
arin-ariñak eta
biribilekuak».

Izkera errikoia darabil gure olerkari onek, bere erritik atan be, artutako lauki eder ontan. Endaitz aldizka irrikoi agertzen yaku, geienetan ameslari eta irudimentsu. Ona zer zer dirauskun berak «Bazenike» olerkitxuan:

«Bazenike zuk buru-eiaran
nik ditudan gogoetak!
Alez beteak ler agiñean
nire ametsezko lekak».

* * *

Erkiaga, lekeitiar errikoseme jator au, euskera alde, lan asko egindako eta, egiten ari dan gizon trebea dogu: Bizkaieraz batez be, eta baita gipuzkeraz eta lapurdieraz be, galanta-

sunez idazten dakiena. Bai itzlauz eta bai neurtitzetan. Jaungoiko mentasunezko olerkari bioztun eta argia. Begira emen Donosti'n 1951 garrean saritutako «Azkue'ren Heriotzan» neurtitz batzuk:

londone Martin bezpera,
bozkarioa alper da:
Seme handi bat galdu du eta Euskal-Herria minez da
Ozkarbi dago ozkarbi,
hegoa dabil zoroki;
Bilbo'ko ibai ertzean biltzen jende mordoia isilki.
Gora da lerden iguzki,
ezta hedoirik ageri,
halarik ere nire kantua egun, hileta eresi,
Kanpaiak astunak dorrean
dulun ta dulun hitsean,
zinkurin bana lotu ezinik bat bederak ezpainean,
Azkue handi, Azkue!
Euskerak zuen zutabe,
amaregandik ikas-mintzoan euskaldunon irakasle.

* * *

Eta ain ezti, gozo «ANDRE MARI»-ri zuzendutako bitxi eder ontan:

Ikusi duzua, txori polit orrek,
Andre eder bat hemen zehar iragaiten?
—Zerua zeraman soinekotzat harek
oinetan hegalak aizea urratutzen.

Ikusi duzua, lili txairo horrek,
Jeriko lore baino hobe denik?
—Bai, eta aranetan sortu loretoak
hura ikusiz geroz, huna ahalkerik.

Ikusi duzua, ene iturri garden,
deus garbiagorik zure barne baizen?
—Andre Eder'en pare ene kolko barren
hau lohia duzu, arre ta baltzeren.

Ikusi duzua, gaueko izar txuri,
illargi antzeko argi xarmantarik?
—Zilar illargia oinpean artuki
iguzkia bainon aregoko iguzki...

—Zer duzua, beraz, ikusi hoin eder
txori, lili, iturri, zilarrezko izarrok?
—Erregin handia, Andrerik ederren,
Andre Mari dugu ikusi guztiok...!

* * *

Erkiaga'k zentzubidez, argi ta garbi, jakinduriz, ezti, samur, bizitza-zear itz-lauzko ainbat nobela, antzerki-lan eta abar, olerkitza zapuztu gabe eratu izan dau asieratik gaurko egunetaraño, tartekamarteka idatzi daroa, beti, ederrik ta zorrotz, neurtitzlari on baten biotzondo ta sakontasunez. Tamalgarria euskaldunontzat beren olerki guztiak, bilduma baten ez izatea. Guda aurreko gizon batenak. Euskaldun zintzo, fededun batenak.

Baiña darraiogun asitako arloari ia bukaera emoten dau-tsegun. Ortarako beste ainbat aitatu barik itxi-arren, luzeegi ez egiteko azalbide au, Aresti'ren Omenez idatzitako poemaren barri damotzuet: KANPAIAK ERE. «Behar ditugu kanpaiak ere, behar ditugu» diño olerkariak. Baserrietan batez be, (gaur gitxiago baiño) oso bearrezkoak:

Aurtzaroan
eta gaztetxotan ere,
kanpantorre ondoan
durundi jario atsegiñez
egunen iragan-jokoan.

Kanpaiak aldatzeke du aho-mihj;
alaere, mintzo ta esangura,
doiñu ta oihartzuna,
maiz aldakor eña berri.

Anitz esangurako baitira
joareen durundak,
noizko, nungo ta nolakoak diren;
zoli, azkar, arin...

astun, motel, illun;
batzuetan argibide,
iñoizka negar-ereagiñen.

* * *

Kanpai-otsak alaitasunezko doiñu egakor eta ariñez edo illetatsu, astun, barri illuna aizeratuz. Jaiotz-eriotzazko giza-bizitzaren kristau agiriak. Zertako ta zergaitik —itauntzen dau olerkariak.

Zertarako ta zergaitik
oihu berezi?
Aho-mihi duten gauzak
direlakotz,
itzik gabeko mintzo bizi.

Gaiñera
kanpai
olerki
aiña da,
gurari
betea
doiñutan
emana.

Gizonak
eskuaz
ukitzen
duena
ez baita
betiro
gauzetan

Ai, Goethek entzun kanpai
Pazko-goizekoak!
Ele ederretan barrena xurga ta
ura zirraren goxo
sentimenaren muiñean!

Eta alaxen urteoro ailitz,
bake-soiñuzko goiz ura,
Jaun onari dakioño.

AIZEAREN egoetan
oihartzunak bide bihurri,
baña beti aske,
txoriek baiño ere askeago,
albakoan, eguerdiko amabietan,
abemaritakoetan,
eta arimen kanpaietan.

Gauez ari kanpaiak, ordea,
izua du emaitz,
neke eta gaitz
aldarrika:
estura-itz, el-oihu,
kezka, ximiko ta
auzo-premiaren ulu.

IZUA urbil denean
kanpaia nahi guk lagun;
deusez bait gara,
zurtz eta alargun.

EGUNEZ entzun kanpaiak
zaizkigun atsegin,
neurrian emanak,
ebakia berdin;
alaxe odolak
bere igi-tintin
osasun denean.
Entzumenak atxikia,
ez eskuk ukia.

Ez baita
betiro
gauzetan
onena
gizonak
eskuaz
ukitzen
duena.

ETA kanpaia bera
uki badeza ere,
doiñu-durundia
ihesi doa,
animaren intziria
doan bezela,
ezin atzemana,
aizetan barrena.

ERRIMIÑEZ mozkortzen gaitu
joare jakiñen mintzairak,
iri aundibera bizibehar onek
giro itogarrira erakarriok,
ta ala, urrun-miñez ero ditugu
begi ta belarriok.

KANPAIAK ere behar ditugu, —kanpaiak ere.

GAIÑERA
kanpaia
olerki
aiña da,
gurari
bizia
doiñutan
emana.

ZERUMIÑA sorrarazten duena,
olerki esan-eziñaren
muin eta kamena,
iñoizka elkarrizketaz
argi ezin ditekeena.

Ai, Goetheren
kanpai xamurak,
alaiak
Pazko goizean!
Munduko bekaitzen ondagarri
odei txurien egalean.

GIZONEN mintzoak
—bai gezurti, ez zintzoak—
zitalagotzean,
zoin den eder
dilin-dalan leuna
gizonaren bake-gosean,
zuzen eta askatasunean!

Auznar edota geure buru-errotetan eio al ba-doguz ondo, Endaitz'en olerkiok, Euskal-Erriaren berarizko gogo sendoaren urun ogigarri, usaitsu ta, gozo; urun zuri-eder bataz aurkitu gara, arbasoen doiñua, oraindik bizi-bizi, taupaka, gure biotzetan ari dana...

Muniategi'tar Sabin

EUSKAL ETA EUROPA'R OLERKI LIRIKUA GAZTAROAREN ONDARE

Egille: Julen Urkiza

Europa'ko elertiak, eta ain zuzen euskal-elertiak oargarri ta gogoan artzeko dan zerbait agirian jartzen digu: lirika, biotz olerkia, batez ere lirikaren gallurra gazteen ondare dala; adieraz dezagun bidenabar, gaztedi au 40 urtetik beera dabillela, 21-35 urte tartean.

Leenik, errialde batzuei buruz egiztatuko degu au. Salbuespenak ba dirala, zer esanik ez, baiña geienetan «gazteak» onenak gertatzen dira edo liriku onenen artean daude errialde bakoitzean. Besteetan, zartzarora eldu izan diran izen aundiko lirikuak agiri dira; alabaiñan, oietan ere indar liriku biziarena gaztarokoa da. Euskal eta doixtar elertiak ditut bereziki gogoan. Europa'ko elerti saioen ikuspegi ontatik sumatu aal izango degu agian, gazteen sortze-indarra nundik datorren.

Euskal elertiaren edestiak irakurtzean auxe nekusan zertxobait zurturik: olerkari liriku bikaiñenen artean batzuk gaz-

teak zirala; arritu egiten nintzan biziari aien nolakotasuna aztertuz, bai izkuntza aldetik bai ederrari buruz ta aiene bizitzatsa ta gain gairdiko guna. Au berau aurkitu nuen ingeles, gaztel, hungariar, errusiar eta doixtar etab. elertietan.

OLERKI LIRUKUA EUROPA'KO LURRALDE BATZUETAN

Ingeles lirikuez asita **John Donne** (1573-1631) aitatuko det. Gazte denboran garai artako bere maitemiñak, batzutan arinki besteetan mistiku-kutsuaz aizatu zituen; adifñekoa zala, lirika jainkotiarrari ekin zion. Willian Wordworth (1770-1850) ogetamar urte gabe, lan liriku goragarriak sortzen ditu, Ingalaterra'n erromant-erari asiera emanaz. Nork ez ditu gogoan gazterik ildako iru olerkari erromant-liriku ingelesak: **Shelley** (1792-1822), **Keats** (1795-1821), **Lord Byron** (1788-1824)?

Gora aundiko erromant-lirikuak agiri dira zenbait lurraldetan, bizitz-eriotzari begira ta etsipenez «Welschmern» (ludimiña) abesten duten gazteak.

Hungariar izkuntzan au berau ikusiko degu bere leenengo ta egiazko lirikuan, **Balint Balassa**'n (1551-1591); italiar eragifñez, maitasuna ta gudari bizitza ditu kantagai. Hungariak liriku yaioak dauzka erromant-aroan; guztiak askatasunari buruz grifña aundikoak: **Károly Kisfalady** (1788-1830), **J. Kátona** (1791-1830), **M. Vörösmarty** (1800-1855), geienez gazte urteetan eman zituzten beren lirika-saioak. **Sander Petófi** gaztea (1823-1849), Hungaria'ko erromant-aroaren eredu goren-goena da. Iraultzan eskuartzen du eta 25 urteko iltzen da era-soaldi baten; 20-21 urtekin liriku indarrez eta bizipenez janzitako bertsoak ontzen ditu.

Arrigarria da aien gazterik bere erriko lirikuen goimaillan ikustea, **János Arany**'kin (1817-1882). Au luzaroago bizi izan zala ere, gazterik burutu zuen lan lirikua joan-etorri aundiko da.

Errusi'n ere gazte bat da lirikurik gallena, **A. Puschkin** (1799-1837), gazte bulartsua, atzerriratua dago; geroxeago, 31 urtegaz ezkontzen da, eta andrea dala-ta andik urte batzuetara burrukan bizia galtzen du. Europa'r eragiñari atxikiturik leendabizi, gero alde bat uzten du ta zeozer berri asmatzen du bere kabuz, 27-43 urte dituela.

Oni errusiar zenbait lirikuk darraikiote erromant-mistikunaturalista kutsu aundiagoz, batez ere **A. Feth** (1820-1892), bertso bikaiñak lortuaz, maite-lirika gaiñ-gaiñekoa, belarrien atsegin beteko diran bertsoetan; naiz ta adintsu il, bere lan geientsuenak gaztetan onduak ditu.

Ezagunagoa zaigu alderdi au gaztel-izkuntzan. Izen bi bakarrik aitatuko ditut adibidetzat: **Gurutzeko Jon D.** (1542-1591). Bere 35-36 urtetan «Cántico Espiritual» dalakoa ematen digu; ezalez eta muñez lan onek gaztel eta europar-lirikan mugarri gertatzen da; ta gogoan artzekoa da olerki au espetxe estu ta itogarrian jaioa dala.

Mende ontan lirikuen artean gain-gaiñekoa beste gazte bat degu: **Federico García Lorca** (1898-1936); bere 21-30 ta 34 urte tartean eman zituen liriku-lan xalo ta lilluragarriak. Francotarrak, beraiekin zeukan zorra garbitu ustez, bizia kendu zioten 37 urte ezituela.

Onelako adibideak, naiz eta batzutan ain adierazgarri ez izan, aurki ditzakegu Italia, Prantzia ta Suezia'ko liriku ospetsuen artean. Baiñan auzi au euskal-elertian aztertu aurretik, ikus dezagun geldiro lirikuen errialde aundian, doixtar elertian.

Doixtar lirika

Edestiari ba gaude, doixtar izkuntza (Alemania, Austria, Suiza) lirikuen izkuntza da. Erruz idatzi dute eta zoragarriro. Baiñan emen ere lirikarik onena gazteen buru-biotzetan ote degu? Onenentxoen arteko 14 aukeratzen ba ditugu, emen ez degu aurkituko ungaroen, ingelesen eta euskaldunen artean bezela, gaztetan ildakorik, **Novalis** (1772-1801) idazle jatorra izan ezik; au 29 urtegaz il zan. Ta auetatik, izen aundiko li-

rikuak naiz ta urte geiago bizi ta zartzarora eldu, leen esan deguna egiztatzan digute: olerki lirikuaeren erpiña gazteen ondare bezela jo ditekela geienetan.

Novalis'ek bi urtetan burutzen du bere lana. Erromantepuada benetan jasotzen du ta alkar-bizia (simbiosis) bat sortu nai du bizitza ta olerkiaren artean, jakintza, filosofia ta erlijioaren artean. Mundua amets biurtzen da ta ametsa mundu. Mundu au lau indarren mendean dago: izadia, gaua eta urbil degun datorren mundua, Kristo ta olerkia.

F.G. Klopstock (1724-1803) 24-28 urte ditula maitemintzen da, maiteari Fanny izena ezarriaz; maitasun betea, baiña zorigaitzak ziztatua. Orduan lirika berriaren sortzaille onek, maiteari opaldutako odarik ederrenetan ustutzen du bere barrera. Gerorago izadia artzen du maitaletzat, bertan bera sorgortuaz; ta 27-40 urte tartean osatzen du bere lan aundia: **MESIAS**.

Heinrich Heine'k ere (1799-1856) ba ditu olerki lirikuak bizitz osoan zear, baiña gaztarakoak dira biribillanak eta ugarienak ere; 24-38 urtez egindakoak. Berdintsu esan ditekela Nikolaus **Lenau**'etzaz, (1802-1850), liriku yaio ta gotilluna; bere samiaña ta mundu osoarena jalkitzen du; ez da arritzekoa bere bizitzaren gorabeerak gogoan artzen ba ditugu; edo **Eduard Mörike** (1804-1875); 21 urtegez olerkari bikaiña azaltzen da, ta 35 urtekoa dala egiña dauka geienik bere lirika-lan zoragarria. Bide beretik dijoaz **Friedrich Hebel** (1813-1863) eta **Rainer Maria Rilke** (1875-1926); onek bizitza osoa idazten emanik ere, lirika-saiorik onenak 20-33 urte zituenean osatutakoak dira.

Orain ikus ditzagun geldiroagoki iru doixtar liriku aundi: **Goethe**, **Bretano** ta **Hölderlin**.

Lirika-lanak eragin zien J. V. von Goethe'ren (1749-1832) biotzari bere bizitz luzean zear, ta aldiaren joanean idazkera ta joera ez-berdin batzuk nabarmentzen dira aietan: barrokoa, klasikoa edo jatorra ta erromantiarra. Ogei urte inguruko zala, Friedrik'e ganako maitemiñaz leenengo olerki garrantzitsuak sortzen ditu, biziaren eta griñaz beterik. Orrela 25 urte zitueneko lirika-lan geientsuenak buruturik zeuzkan. Azkeneko bere

lirika saio bikaiña **Die Trilogie der Leidenschaft** 64 urteko zala idatzia, ain zuzen bere biotz zaar-gaztetuaren miñak sorarazi zion; Ulrike andrea, bere azken maitearen agurrak eman zion miñak; orregatik agur dagio maitasunari; agur dagio, beraz, biotza erdiraturik, baiña esker oneko. Onela, urtetsua izanik ere, maite indarrez gazteturiko biotzak bizkortu zuen bere luma lirikasaio ederrak eman zitzaiz.

Doixtar liriku erromantiarrik onena, agian, **Clemens Maria Brentano** da (1778-1842); ama idazlearen seme bakarra, olerkari arrigarria gertatzen da bere gogo biziz eta azpiz-gaño-koaz. Onen olerkigintza urteetan barrena edatzen da; alaere 20-38 urteetako da geientsuena.

Emen ari geranari buruz, begiragarriagoa da beste doixtar aundi ta jator bat: **F. Hölderlin** (1770-1843); naiz ta luzaro bizi, ainbestek bezela, gaztaroan, 20-32 urtetan sortzen du bere lirikagintza osoa. Bere sor-indarrak olerki liriku illeziña eman erazten dio; Klasiku ta erromantiar erak batean biltzen ditu, baiña keraz eta mamiz ez da iñungo elerti-eskolan lerro-tzen. Onen egiazko balioa, Gurutzeko Jon'ena bezela, urte mor-do bat geroago artu zan aintzat, leenengo guda ondoren. Bere olerkia batzutan murriz-antza bada ere, ez du galtzen indarrik ez bizitasunik; ontan ba du antza itzal aundiko izan zan kato-likuen liturgi ta mistikaz. Teologia ikasia zan, baiña maisu izatea erabaki zuen. Emakume batek ernarazi zion arridurak (Diotima deritzo berak), olerkari-giarrean ikutzen du ta bizi-zirrarak eraginda, olerkari gertatzen da. 22 urte ditu «Maitasunari goratzarre» idazten duenean. 1802'an iltzen da «Diotima», ta arrezkero —32 urte zituen— ezer gutxi idatziko du. Lotsagarriro utzi bear izan du «Diotima» miretsiaren etxea. Gero ta bakarrago ta baztertuago ikusten bere burua. Bur-deos'era dijoa maisu bezela, ta geroxeago erdi eroturik itzul-tzen da, gogo aldetik egoera negargarrin. Orrela gelditzen da 1806'tik, 36 urte zituela, eriotzararte. Lirika jakintsua ta neurriduna berea, baiña arrigarriro menderatzen du izkuntza, ere-siz jantzirik. Olerkari guztiaik bezela, adiskidetasuna, emaku-me, illezkortasuna, aberria, askatasuna, giza-duintasuna, mai-tasuna, egia, garbitasuna, biotz ona ta izadia abesten ditu.

Euskal lirika

Gazteen olerki etorria gallendu ta nabarmendu egiten da Europa'ko lirika barrutian; au argiago agiri da euskal elertian. Aurreko mendeetako lirikuak alde batera utzirik, XX'gn. giraldiriko olerkarietara, baitipat iruei (Lauaxeta, Lizardi, Aresti) begiraldi bat emango diet, euskal lirikaren urrezko mendea bait-da.

Nork ez dauka gogoan **Loramendi** (1907-1933) 25 urtez zendua, gora aundiko olerki xorta uzten zigula ondare? edo nork ez gogoratu **Salvatore Mitxelena** (1919-1965), bere 30 urtetan «Arantzazu» poema ederra idazten duna? **Luis de Jauregi**, «**Jautarkol**» adintsu izatera eldu arren, eten gabe ekin zion elerti-lanari. Alaere, «Biozkadak», bere lanik nausiena 36 urte zitueneko egiña zeukan. Gogora ekarri dezagun baita ere **Jon Mirande** (1925-1975); olerki geienak onduak dauzka bere 30 urte inguruan. Baiña begira dezaiegun arretea aundi-agoz leen aitaturiko iru olerkarietara.

Esteban Urkiaga, «**Lauaxeta**» (1905-1937); 26 urtegeaz «Bide Barriak» bere leenengo olerki-liburua argitaratzen du, eta 30 zituela, bigarrena ta azkena: «Arrats Beran», 32 urteko zala Francotarrak erail bait zuten. Gaztea dalarik ere, olerkari yaioa degu ta egikera berrien egiazko asmatzaillea, beste lurraldeetako olerkari gazte batzuen antzera; adibidez: errusiar Pusckin edo Pettöfi ungariarra edo Novalis doixtar gaztea bezela. Liriku aundi au aaztua izan da beste aundi batzuen antzera: Gurutzeko Jon D. edo Hölderlin bezela; iritzi emailleak eta elerti-edestilariak azal begiratu bat eman diote. Baiñan azkeneko urte auetan izan du ospe ta aipamen, eta euskal lirikuen artean goi-goiko maillan jartzen aalegindu dira. Alaere ba dira banaka batzuk onartzen ez dutenak. Ez dakit zergatik dan baztertu nai ori; ez dakit ele-jakintzari edo politikari buruzko aurreiritziak diran edo; ez dakit. Orregatik lotsagarriro gertatzen da A. Luis Villasante'ren «Historia de la Literatura Vasca»'n (1979) esaten, dana. Aurkezten duen liburu-sailla (bibliografía) ez da zeatza, ez osoa; aldera ezazue beste egille batzuk dakarten liburu-sailaz eta ikusiko dezue ez diola esker aundirik ematen. Narda antzean asten du bere iruzkin oso laburra; Lauaxeta'ren bigarren liburua, izkuntza aldetik leenengoa baiña onargarriagoa omen; onargarriagoa soillik! orrialde

bat doi-doi eskeintzen dio, 40 lerro ain zuzen. Ondoren azter-
tzen duen idazleari, ordea, Unamuno'ri, sei orrialdetik gora
opa dizkio. Euskeraz baliodunik ezer idatzi ez duenari ta iz-
kuntzari buruz istillu sortzaille izan danari olako tartea ematen
zaionean, euskal olerkiaren egiazko sortzailletakoa danari
orrialde bat eskeintzea, egoskaitza de «Historia de la Literatura
Vasca» baten.

Obeto artzen du L. Muxika'k bere «Historia de la Literatura
Euskérica»'n (1979; baiña Lauaxeta'ren lirika balioa ez
da argi azaltzen iruzkiñetan, ustezko garbizalekeria eta zerga-
bekeria (abstracto) salatuz. Onetaz gero mintzatuko.

Beste liriku bat ere, agian goiena, gazte bat da: **Jose M.
de Agirre** «Lizardi» (1896-1933). Liriku goiztarra degu. Eus-
kera atzendurik zeukan, baiña bir-ikasi egin zuen, ta laster,
bere 34 urtetan idatziak zituen olerki batzuk; 36 urteko, leen-
dik eginda zeuzkan olerkiak, «Biotz-Begietan» olerki liburua
argitaratzen du ta 37 urte bete gabe iltzen da. Onen balioa
ere gutxitu nai izan dute batzuk baserritar kutsua edo aizatuz.

Gabriel Aresti ere (1933-1975), liriku gaztea degu; alde
askodun gizona: olerkari, euskera ikertzaille, albistari, antzer-
kigille, itzultzaille, etab. Aunditan ikasi zuen euskera eta erro-
tik ikasi. 22-26 urte dituela ematen du leenengo olerki-lan
aipagarria. 26 urtegaz aldaketa sakonak nabari dira bere oler-
ki sorkundean. 27 urteko, argitaratzen du elertiar buruz bere
lanik onena bear bada: «**Maldan Behera**»; urrengo urtean «**Zu-
zenbide debekatua**» eta 31 urtedean, «**Harri ta Herri**, gora
aundiko lana euskal elertian; ta 34-38 urtekin beste lirika lan
aulgoak.

Olerkiaren berritze-ekintzari, bere askotarako gaitasunari
ta garaikoen artean lortu zuen eskuari ba gaude, nekez aur-
kituko degu euskal elertian Aresti'ren neurriko beste idazle-
rik. Baiña bakoitzari berea.

Ez zaigu zillegi euskal-lirikurik bikaiñena bezela aurkez-
tea; oso besterik da. Edestjari buruz izan duen arrakastak ez
du berez geitzen bere lanen balioa. Batzutan berari dagokion
neurritz goiti jarri dute euskal lirikuen artean, baiña gizarte ta
politika gorabeerai eta ordu onean gertatzeai zor dizkie go-
ralpen oiek. Olerkari maillan, egiazko liriku indarrez Lizardi,
Lauaxeta eta abarren azpitik dago.

Lirikaren izate ta auziak

Orain arte ikusi degunez, europar elertian, Euskadi tartean dala, gazteak omen aundia lortu dute, ta ba dirudi maizenik berak dirala, 21-35 urte tartekoak, lirikarik bikaiñena sortu dutenak. Egite onen zioa galdetu bearra dago emen, aleabea-rrak berez ez bait dakar ezer. Ta lirikaren beraren izateari estu lotuta dagoela ikusiko degu. Lirika-lanen auzi au gazta-roko psikologi-legeetatik datorrela-ta nago, gizonaren gogo-biotz-eragiñen azte edo garatik. Gaztetan bizi-arnasa ta bul-tzada biozkorragoa da, biziagoa, zaintsuagoa; gaztaroan egia-ren billaketak gainditu-arazten dizkio gauzak eta askatasunaren irrikaz, deadarka dago biotza; deadar onen eztrandak darama batez ere gaztea egiaren muiña abestera: izatearen bizia, oña-zea, maitasuna, bakartasuna, baztertzea, gizarte-giroa... Gau-zen egia nai du olerkariak: Bizitza! Lirikuak piz-berritu egiten ditu gauzak eta aiei mintzo-arazi, ta auek erantzuna ematen dute beren izatea nabarmenduz, gizon, abere, edo landare, arri, itxaso, naiz egurats izan.

Lirika gazteen ondarea dala argitzeko eman ditugun zio ta zegatiaz, lirikaren guna bera ikutu degu ta ortaz ariko gera datozen lerroetan.

Europar-lirikaren edestiak, doixtarrarenak batez ere, (ori ar-tu bait det ointzat emen) zera erakusten digute: orainarteko eredu, orkoi ta egitamuak ausi ta antología, bilduma batutan oraintxe arte agiri diran iritziak aldatu egin bear dirala, ba-tez ere euskal lirikarentzat ain gora aundiko dan mende on-tan. Badira zenbait lirika-era-eskolak, baiña doixtar izkuntzan, adibidez, 12 talde edo jokeretan sartu ditezke.

Alaere, Goethe'ren lirikaren itzal aundiaz eta erromant-erari esker, arian arian lirikaren muiña lirika jator, (clásico) eta erromantiarrak bat egitera eldu zan. Auen xedea bizipenak adie-raztea zan nunairako balioaz, baita norberak bakardadean, mi-ñetan, bizitzan eta izadian etab. ikasiak.

Baiña gaurko azterketak ez du onartzen bakoizkeririk eta jaso ta ontzat eman du balio ez-berdiñeko jokera sail bat.

Olerki lirikua garai bakoitzean bestelakoa da azal eta ma-mi. Inñolaz ere, lirikak erti-legea naitaeko du; eder dana ezin diteke barnekoaz ustuz, zer-kide (co-esencial) dira-ta. Bestalde

ederra eite ta erti aldetik aldakorra da edestian zear; orrela gertatu zan pizkundean (renacimiento) edo jatortasun-garaian (clasicismo), edo erromant-arogan, egi-zaletasunean (realismo) edo zirrara-zaletasunean (impresionismo) etab. Era auek maiz gizartearen zoriari lotuta daude. Ori dala-ta, lirikaren ederkera ez da bere batean dagoen zerbait, aldiz, egikor eta zain-bizia da, eta ba du bere nortasuna edestian.

Besterik da lirika-era goraegi jasotzeagatik barne mamia kaxkartzea. Mamia egian dago, egia ikutzeko apetan, zerkien barrua ikusteko gogoan, izatea (dantasuna) ezagutzeko irrikan, izadiari mintz-araztean dago, egiari irrintzi bat da, gauzen egia gureganatzean dago, zer-izanei bizia ematen dien liriku indarra da, egiari berari itzegin-arazten diona; ari ariko itz ori, gogai-uts antza naiz gai iku-ikusgarria (plástico) dala' itz egoki ori samin jakin bateri edo gizarte-egoerari emana; izatearen egia da, deadarraren eta miñaren egia, ederraren egia; olerkariak abestu ta agirian jartzen du egi ori, adioneko itzez jantzirik; ta gizonak somatzen duen egi ori, bear ordukoa eta edesti-une batekoa da. Olerkariak sortu egiten du itz egoki ori, biozkada ezta ernaraziaz; biotzondo orrek, berrix auxe oar-arazten dio: bizidun bezela, bere buruz gaindi jokatzeko gauza dala; lirika indarra sortzen du, kilikaldia edo poz-ikara, ondoa jo duelako, gauzen zer-izana, egiaren arima; deadarrari malkoak atera dizkiolako, egiari dagokion itz ori esan duelako. Ta itz orren aurrean irakurleak jauz-ikara somatzen du, ain egoki adierazitako egi ori bere baitan ere bizerik bait dago. Ori da liriku olerkaria... bai, ori da, egiaz besterik dagoen bizitzaren igarle izatea.

Ikuspegi auek gogoan arturik aztertu bear da lirikuaeren eder lana liriku-indarra, azal eta barru, batera neurturik.

Azken urte auetako euskal elertiaren edestigille batzutan egiazko lirika ta ikerketa-berritzea igartzen da; baiña Lauaxeta, Lizardi ta Orixe'gaz euskerak lortu duena lortu ondoren, on litzake orain nabari ez diran iritzi onduagoak ematea; lirika-aburu ta iritziak ixildu ta bertan bera egon dira, aitatutakoen egundoko izena dala-ta. Orregatik oraintsuko olerkariak, Aresti buru dutela, gorraldi ori ausi egin dute, eta bidez, baiña ez beti neurri onean. Ori bera gertatu zan europar lirikan, kopuruz eta nolakotasunez, agian, guztien gairfetik dagoen doix-

tar izkuntzan. Goethe, Hölderlin ta Brentano liriku bikai-
ñak itzal aundiegikoak izan ziran beren ondoko garaietan. Ori
dala-ta, munduko bigarren guda ondoren ba dira Alemania'n
bertan, egungo lirikarik ez dutela-ta, arrenkuratzen diranak,
Prantzia'n, adibidez, ba daukatelarik. Ta ain zuzen, zapalketa
ta erbesteratze-arogan, 1933 aldera, asten du doixtar lirikak be-
rritze-lan aundia eitez eta gaiaz, geroago era askotako jokerei
bidea urratuz.

Olako zeozer gertatu de Euzkadi'n, Lauaxeta, Lizardi ta
Orixe lirika-bidean goienara eldu diranean eta gizarte, politika
ta izkuntza-zapalketa-garaian, erbeste-giroan, berritze bat na-
baitzen da, gizarte ta politika joerak gaurkoagoak eta argia-
goak dituena. Baiña egungo egunean uts aundiak egin dira
kritika ta azter-lanean, olerkariak sailkatuz, beren egizko ta
betiko balioa, beren lirika-indarra itz egokietan azaldua ustel
emanik. Orrela egin dute Lauaxeta, Lizardi eta Orixegaz, ba-
tez ere leenengo ta irugarrenagaz.

Elerti-edesti batzutan sailkatu bearraren grifia zoroa ikus-
ten da; esaterako, Mujika'ren elerti-edesti interesdun, pizgarri
ta gaiñera atsegifian (azkeneko au ez dago esaterik beste ba-
tzuei buruz), saiets-auziak nabarmentzen dira, olerkariaren
egiazko balioa moteldurik. Lerrokatze au erruz agiri da izen-
burupekoetan beren txartelaz: **gogaikeri** (conceptualismo), **ba-
serritarkeri**, **garbikeri**, **zeingabeko olerki** (abstracta), etab.,
ukor antzean geienez. Sarri begitan ematen die olako edo ala-
ko olerkarietara, bere garaiko giroa agirian jartzen ez dutelako,
etab, Iker-saio baten oiek denak azaldu bearrekoak dira, baiña
iñolaz ere ez ain nabarmen izenburu ta izenpekoetan. «Akats»
deitu oiek bein beifnekoak dira eta doixtar lirikuetan aurki
ditezke; baiña doixtarren edesti-liburuetan ez da indargetzen
olerkariaren balioa, izenburuetan txartelak ipiñiaz eta irudi ge-
zurtia ta okerra aurkezturik.

Gizarte-egoera nolabait ezaguterazi bear dala? Noski; alaere
astakeria litzake lirikaren zeregiña ortara mugatzea, soillik ori
bailitzan. Bide ortatik, zertan lirake olerkari liriku aundiak,
adibidez, Eichendorf, Mörike edo Rilke? Lirikak ba ditu asko-
tariko gaiak, beti indardunak, eta gizarte jakin batekin zer
ikusirik ez dutenak; maitasuna, samifia, bakardadea, egiaren
irrika, poza, izadia, noiznaikoak dira. Eta zenbait olerkari li-

rikuei, batez ere Orixe'ri egozten zaion «baserritarkeriak» ere, ez al du nolabait adirazten industri, lantegintzaren aurkako gizartearen egoera bat?, gizarte puska batek zapuzten duen jarrera? Orregatik bere garaiko edesti barruan dago; besterik da, eragin ori bear ordukoa dan edo ez jakitea.

Olerkiaren balio lirikua epaitzerakoan, baserritarkeri, asmakeri ta garbikeri-ikuspegitik bakarrik begiratzea, egiazko be-makeri ta garbikeri-ikuspegitik bakarrik begiratzea, egiazko balioa urtzea eta ezkutatzea da. Garbizale izatea edo-ta baserri-gaiak ikutzea, lantegitzan asi berria dan gizartean, ez du erabat galtzen olerkiaren balioa. Itz berrizaletasuna edo baserri kutsua gorabeera, olerkaria beti olerkari; bein beifneko jokera oiek ez dagozkie olerkiaren beraren izateari. Olako bat gertatu zitzaion **olerkari ijitoa** deituari, F. G. Lorca'ri; ez zuen onartzen bere izena sail ortan lerrokatzea; berak zionez, **ijitoena** bere olerkiaren gai bat besterik ez zala; beste edozein gaiaz berdin litzakela; gaiak ez duela olerkaria egiten. Bai, naiz itz berriak naiz arrotzak erabilli, olerkariak azalduko du ez-pala. **Ijitoena** bein beifneko gaia ta alderdia da. Ori gabe ere, olerki-arnasa argitan jarriko zuen noski.

Orregatik, bada garaia zenbait euskal elertiaren edestietatik sailketa alderdiko oiek kentzeko, iruzkin-izenburuetatik be-deren, estali egiten bait dute olerkiaren balio bearrena, be-rezkoena. Jakiña da joera oiek aitatu bear dirala, baiña olerkari lirikuaen barne balioa oien mende jarri gabe. On litzake gogoan artzea Schiller'ek Goethe'ri idazki baten esaten ziona: lirika-arloan ez da egoki gogai jakin bati gure burua lotzea; gai berriak era berriak nai dituzte ta orrela lirikaren esanaia zaluagoa egin bear litzake.

Azken urte auetan euskal lirikuetaz eman diran iritzi gazi-gezen ondoren, euskal lirikaren antologi edo bilduma egin bear litzake, irizpide zeatzago ta lasaia goetan oiñarriturik.

J. Berakoetxea'k
euskeratua

SANTA TERESA, OLERKARI

Nor ez eder-zale? Emen, baiña, gauza bi daukaguz: bata ederraz konturatu ta bestea barru sentitzen dan eder-lera adierazo. Begira: mendi-gaillurrean gagoz, mokor zapal gaiñ pake-tsu. Aurrez aurre, nasai ta dizditsu ikuspegi bikaiña. Ego-aizeak, goiz- goizetik urriñera dauskuz laiño narras eta gurme setatiak.

Begiak edegiz, ikuskizun sotillagorik! Bat-batean ederrez ase jatzuz zentzunak, begi-belarriak. Bolbolka asi jatzu barrua, sutan pertza irakiten lez. Ederrak artu zaitu atxilo, ederraren erdi-miñez zagoz; poema bat, su ta dardar, osotu nai zeunke. Baiña eziña: aundituegi egin jatzu barrua; sugar baterako ger-tu zagozalarik be, ez arrazoizko lanerako, bolbolka orretatik ezin zeinke atera poema gori bat, naasiegi zagoz. Ikusiz gauzen egia sartu jatzu barruan eta poema bat liriku kemenez egitera-koan, egjari, ludiko gauzetan naiz norbere barruan daroagun egjari, itz-eragin bear jako, txilio bat, irrintzi bat atera-azo. Txilio ori, barriz, benetako olerkari danak itz giarrez, solas aukeratu ta esan-nai aundikoz jantzirik, biotzondo gori-gozoz ornidu oi dau.

Baiña ikuspegi zoragarri baten aurrean naiz barne-zauska-da ugoldean murgildurik gagozanean, ez jaku errez poema bete-bete bat osotzea: uin guenegiak gauzak, sugarra motel dedilla apur bat, giro baketsuagoa bear dogu. Bakezko giroa bai ona jaku aurretik bolbol euki dogun barrua usteko, elerti naiz olerti-lanerako.

Eta arira jorik, norbaitzuk esan dabe Santa Teresak bere mistikazko goraldietan ondu zituala bere poemak. Ba'liteke au egia ez izatea osotoro. Teresa olerkari dogun arren, etzan orri lotua ibilli, orri emona diñot berariz. Juan Gurutzekoak To-ledo'ko espetxean egoalarik arildu ebazan bere poesirik ederrenak, zati batzuk beintzat. Santa Teresak komentu-lanean ebi-llela ondu euskuzan bere koplak.

Koplak dira, izañ be, poesiak baiño geiago Teresaren oler-lanak: bidez bide egiñiko koplak, urte barruan ospatzen ziran komentu barruan egiten ziran jaietarako koplak, solas-aldi naiz errekreaziñorako koplak, aitzaren baten jaiotegunerako koplak. Koplari, ez olerkari; egia esan ba-zan gai ortarako be,

mistikaz ta ederrez gainezka eukan izate-barrena, mendi-tontor bateko ikuspegi zoragarri batek asiturik lez bizi zan barru-bizitza yaio ta indartsu baten. Baiña bizitza bizi ta jori ori neurtizetan adierazten etzan egundo ba alegindu.

Ibiltari zoli, ezker-eskuma ba-eukan ederrik inguruetan. Ederrez apain-apain eukazan bazterretatik ibilli zan: Gredos eta Gaudarrama'ko mendi-kate arkaitzez josiak, Andaluzia'ko zeru garbi urdiña, Gaztela'ko zabalai azkenbageak... Alan, ez euskun olakorik abestu; noizik bein egindako aitamen batzuk, ez dogu geiago aren idatzietan aurkitzen. Zoragarri jakozan gauza pitiñak: baratzak, errekonzoak, ur ibilliak, erle langilleak, sua, zugatxikiak...

Teresa elburu batek erabillen beti. Asmo bat eio ta axe egia biurtu. Ba-dau, ezin dogu ukatu, ezpala poeta izateko, esan dogunez; baiña ori al zan bere jomuga? Zerbait dagianean, zer ori darabil gogoan. Bertsoak ontzerakoan, ez ditu suster barik ontzen. «Ontzen ikusten dogun bertsoak —diño Donazar'ek—, bere garaikoak diñoskuenez, bideetako ibillia edo-ta komentuetako bizi-ibillia bizkor-azteko dira. Bizi oriak liturgi txikia lez bururatzen dau, Dabid Erregeak, egiazko bizimodu baten jazoera beñenak salmuetan jarririk, bere biziari eta inguru-koenari aria emon eta indarazo oi eban lez» (*La Cierva vulnerada*, 111 or.).

Bere alaben karmedar biziari sua ta poza emon nai eutsen Teresak. Ortarako idatzi zituan bere koplak eta, ain zuzen, erri-bertsoetan oiñarrituak ditu geienak; poztu eitezana, bai, gazte areik komentu barruko bizikera latz samarrean. Kristoren, Andra Mariaren eta Santuen jaietan batez be, ez eban arpeirik ez biotzik illun, triste naiz larri ikusi gura. Gabon aldian sekulako jaiak eratzen zituen: oindiño be, Avila'n San Jose komentuko orogailutegian erakusten dabe garai aretan, koplak ta kantu, jotzen eben danbolin soiñutsua.

Onako izkiñu (letrilla) ta koplak ugari atondu zituan Teresak, uste danez; askotan errez ez danarren berak onduak zeintzuk diran jakitea. XVIII'garren mendearen erdirantza, Aita Andres karmeldarrak bilduma edo txorta bat osatu eban komentuatzen orduan be abestuten ziran eta Ama Teresarenak zirala uste eben guztiakaz. Gerora be, areitatik batzuk

onartuak izan dira, beste batzuk ez. Gaur, naiz eta ez ziurtasun osoaz, libururik geienak, Ama Teresak berak egiñak lez argitaltzen dituenak, nik euskeraz ipiñi nebazan **Onbidea** deritxon liburua argitaratara emon nebanean. Lau sailletan banandurik datoz an: 1) **Lirikuak**; 2) **Gabon-kantak**; 3) **Eskintzazkoak**, eta 4) **Sendikoak**. Guztiz, 31. Danak dozuz arin biziak, mamin aundikoak. Ona lenengo biak:

NIRE LAZTANA ENEA

Nazan eta daukadan oro
emon neutsozan unetik,
nire Laztana da enea
ta ni Arena osorik.

Eiztari bigunak geziaz
zauri-zauri nindunean,
tink jatan gogo gelditu
maitasunaren mendean,
ta aldaketa dagit bikaña
bizitz barria arturik:
**nire Laztana da enea
ta ni Arena osorik.**

Gezi goriz zauritu nindun,
maite-suz zan kutsutua,
ta nire gogo idoro zan
Egilleaz alkartua.
Jainkoarena nazanetik,
ez dot nai beste maiterik:
**nire Laztana da enea
ta ni Arena osorik.**

IL-EZIÑEZ

**Bizj naz, ez baiña enegan,
ta ain ditxarot bizitz goitia
ez ilteak daust
kentzen bizia.**

Joana bizi naz neugandik,
maite-sutan il-bearrez;
Jainkoaren baitan bizi naz,
beretzat nindun maitez jo;
biotza neutsonen emon,
an jarri eustan idatzia:
**ez ilteak daust
kentzen bizia.**

Jaungoikozko espetxe onek
—nire maitezko egoitza—
Jauna dau egin nire jopu
ta azkerik ene biotza;
ta ain jat griñagarri Jainkoa
ene atxillo ikustea,
**ez ilteak daust
kentzen bizia.**

Ai!, au biziaren luzea!
Erbeste onen minkorra!
Espetxe ta kate oneitan
esturik bizi bearra!
Noiz urten-zain nagola soilki
damost oiñaze gorria!

**Ez ilteak daust
kentzen bizia.**

L-bearraren uste gozoz
bizi naz bakar-bakarrik,
il ostein, bada, bizia
itxarok dakarst ziurrik;
bizia damozun eriotz,
ez luza, bait nozu zeuria:

**ez ilteak daust
kentzen bizia.**

Alako bizitza goikoa
egizko bizitza dana,
bizitz au aitu ta il arteiño
biziz goza oi eztana:
eriotz, ez zakidaz muker;
iltzeaz bizi nadin lenik,

**ez ilteak, ai!,
kenduz bizia.**

Ai!, au biziaren garratza,
Jainkozko ezti bagea!
Maitasuna bait da txit samur,
itxaro ez baiña luzea:
ken eidazu, Jainko, pixu au,
galtzairu baizen andia:

**ez ilteak daust
kentzen bizia.**

Ona, mardul da maite-sua...
Bizitz, ez zakidaz ziztrin;
ez daukazu beste biderik,
gaintzeko, gudua egin.
Betor bein eriotz biguna,
betorkit ilte aurkia:

**ez ilteak daust
kentzen bizia.**

Bizitz, zer neikeo nik emon
nigan bizi dan Jaunari,
zeurori crdez galdu ezik
A dagidan irabazi?
Ilda opa dot A jaritxi;
orren dot kutun maitia,

**ez ilteak daust
kentzen bizia.**

Kidekoak dozuz besteak be, sakon ta jainkoti egiñak mis-
tika-arikoak, eta gatz-ozpiñez aseak alaben komentu-bizitzari
jarriak. Danak, jakiña, emakume-biotzaren zer gazi-gozaok
igurtziak. Etzan olerkigintzan sartu, koplagentzan baiño; bieta-
rako, alan be, trebe zanik, nok ukatuko ete?

Prosaz idaztean ere, errez egaz dagi zugatz lirikura. Irudi-
men azkarregikoa ez ba'zan be, biotzondo bero-beroa dagerki-
gu itxi euskuzan idaztietan: bere **Bitzan** eta **Biotz-oiuetan** (Ex-
clamaciones) baitiki bat. Amazazpi ataltxu dabez **Biotz-oiuak**
eta Jainko-maitasun galdatan ixuritako oiu biziak dira. Onela
asten da lenengoan: «Oi, bizi, bizi! Zelan dirauzu zutik, Bizi
jatzenetik urrin? Zeri zagokioz, bakarte gorri ontan? Zer da-
gizu, zeure egiteko guztiak uts eta akats ba'dituzu? Zek poztu
oi zaitu, ene gogo, itxaso zirimoltsu ontan?».

Baiña emen doakizu agerbide lez eta txasta daizun amalau ta amazpigarreneko txatalez zati au. Ara: zeuk ikus, baiña nik uste dot emen dagoela olerkari edo poeta lirikuen goita-suna ta garra. Irakur:

«O!, lagun zakit Jainko, Jauna!
Au gogorraren gogorra!
Au zorakeri ta lausoa!
gauza bat gal ba'dadi,
orratz bat
edo mirotz bat,
—aidean zear egaz ikusiaz
begiak pizkat gozatzeko baiño ez dana—,
galtze orrek min emoten dausku;
eta ez dauskula miñik emon bear
Jainko-aunditasunaren arrano egalari au,
eta atsegiñetan amairik izango ez dauan
erreñua galtzeak!
Zer da au? Zer da au?
Ez dot nik ulertzen.
Jar Zeuk, ene Jainko, osagarria
ainbesteko zorakeri ta lausoari!

Ai ene! Ai ene Jauna!
erbestealdi au bai dala luzea,
ene Jainkozko gura bizi neketsuz
igaro bear dana.
Zer dagike, Jauna, arimeak giltzape ontan?
O Jesus!,
giza-bizia bai luzea, laburra dala esanarren!
O bizitz, ene onaren etsai!
Eta nok leukaken zu amaitzeko baimena!
Zaroadaz, Jainkoak zaroazalako;
zaukadaz, Arena zarealako.
Ez zakidaz zital, ez esker gaiztoko!

Ez naizu zigortu neuk nai
edo opa dōdana emonaz,
zure maitasunak —bizi bedi nigan—
gura ez ba'leu!
Il bedi onezkero «ni» au
eta nigan bizi bedi ni baiño geiago dana,

ni zerbitzari izan nakion!
Bizi bedi Bera eta bemozt bizia!
Bera bedi errege ta ni Aren mendeko,
nik ez bait dot beste askatasunik gura!».

Teresak onela idaztea ezta bape arritzekoa. Konta ezin-ala-ko doai, mesede ta ikuskizunez ornidua, trinkatzen eban atzar-tean lez maitasun laba gorian. Maitatua zan, maitatu bearra eukan. Maitasunezko experientzirik gorenengoak izan zituan Teresak; Jainkoa azaltzen jakon aurrean begiz ikusiko ba'leu lez, bizi ta dizditsu. Maite-miñaren eragiña ezin eroanik, osa-bideren bat billatu nai leuke arimeak, baiña ezin. Eriotza opa dau ortarako, ain maite dauan Jainkoaz batzeko. Sastada itze-lak emotsozan maitaleak, jasan ezifñak. Gorde egiten jakon sarri zauritu ondoren, eriotzak aifña illa itxirik: naiz eta odolik ez ixuri, barru samin-jario eukan, ezin bestean.

Iñoizka aingeru bat gorputz-itxuran ikusi oi eban bere ez-ker aldean. Olako ikuskizun bateko jazoera, onan pintatzen dauku berak. «Etzan aundia —diño—, txikia baiño, eder-ederra; sutan eukan arpegia, guztiz goi dagozan gotzonen an-tzera. Kerubiñen artekoak izan bear dabe, niri ez dauste ize-nik esaten... Eskuetan ikusten neutson urrezko gezi luze bat, eta burdiñearen puntan su pizkat eukala iruditzen jatan. Bio-tzetik sartzen eustan bera, eta batzuetan, nik uste, erraietarai-ño eltzen jatala. Ateratekoan beraz eroastazala erraiok uste neban, Jainko-maite-su bizitan izten ninduela. Oifñaze onek, aundia bait zan, oi u ta negar-xopin areik aterazoten eustazan. Baiña, onen oifñazea guztiz samurra da-ta, arimeak ez dau nai ori kentzerik, poztu be ez dau ezek poztuten Jainkoak berak ezik» (**Bizitza**, XXIX, 12-13).

Onako ikuskizun, doai ta mesedeekin, esango daustazue, edozein litzakela olerkari, olerkia arima garraxia bait da. Egiazko poeta danak, edo ortan alegintzen danak, naiz aingeru-geziz naiz norbere barne-eragiñez, giroa sortu bear dau ingu-rumari, garraxi ta intziri, bipilak jaurti al izateko. Au ez da-giana, bego bertsolari maillan, naiz lerro-idazle fiñen artean.

Irakaspen oni dagokionez, egiazki esan lei Santa Teresa olerkari dogula, eder-zale ta ederra adierazteko gai zana, or-tan jarduna izan ezpazan be. Komentuko jaiak artu zituan

kantagai: eliz-jaiez gaiñera, jantzi artzeak, buru-zapi jazteak, profesak... Koruko otoitzetan eder jakozan Dabid'en salmuak, goratzarreak, Aste Santuko zeremoni ta kantak, Abesti bikaiña... Berez-berez, iturriko ura lez, datoz estrofa arek luma-erpiñetik. Lau ta ulert-errez idazten dau.

Amaitzeko, ederto Donazar'ek: «Olerkariak, poesi billa ba' lebil, aurrera joko dau. Baiña Teresa Ama billatzen dauanak, au esango: Emen dago!».

AITA ONAINDIA

OLERTI EGUNA

1982

Beti lez OLERTI EGUNA ospatuko dogu aurten be, emen-
txe Larra-n, datorren azaroaren 21-an.

Onela: goizean 11,30'etan meza nagusia abestuta, datozen
euskal erriko olerkari ta bertsolari guztiak esku arturik. Igaz
esan genduanez, Deba'ko olerkari fiñ Tene zanaren omenez
izango dira egun ontako meza, batzar eta itzaldiak.

Meza ondoren poesi-sari banatzea. Sarituen lanak irakurri-
ko dira, eta datozen guztiak eskubidea izango dabe bako txak
bere eritxia adierazteko irakurten dan olerkiari buruz, irakur-
taldia interesgarri egiñik.


Sariketarako lanak iru saillekoak izango dira:

- I. **Lirikuak**, edozein gai ta luzeraz.
- II. **Poema** bat, euskal edestiaz bada, obe.
- III. **Bertsolari-saila**, bertso-moltzo bat, gai ez bardiñakin
osotua.

Lanak bialtzeko epea: urrillaren 31.

Beti lez, zuzenbide ontara bialdu:

Aita Onaindia, Amorebieta-Larrea.



NUN ZER

Aurkez	3
---------------	---

POESI JATORRA

Andere haundi (D. Landart)	7
Erio dantza (Aurre-Apraiz)	8
Orreaga...! (Albisu'tar Anastasio)	10
Judas (Biurko)	12
Gaixoetxeko leiotik (Biurko)	13
Amilderrri (Ugarte'tar Martin)	14
Arrats-betean (Ugarte'tar Martin)	16
Antz-bidera (Ugarte'tar Martin)	17
Urre- eztaietan (Ugarte'tar Martin)	18
Mari-panpox (Ugarte'tar Martin)	19
Utsalkeria (Lon Arteaga)	21
Etienne Salaberry (J. L. Davant)	22
Eder da krabeliña (A. Onaindia)	23
Nire lagun bakardade (M. Zarate)	24
Bila nabil, gixaxoa! (M. Zarate)	24
Bestela ito egingo nauze, hil (M. Zarate)	25
Ettxepararen kontrapasez oraindik (M. Zarate)	26
Mattin lagun zenduari (Jean Arrosagarai)	28
Presaka bizian (Arozamena'tar Jesus M.)	29
Jainkoa lagun (A. Anasagasti)	29
Gizona (A. Anasagasti)	30
Iru ondasunak (A. Anasagasti)	31
Loratan dagon zeruarena (Muniategi'tar Sabin)	33
Itzak (Muniategi'tar Sabin)	33
Verlaine gogoratzuz (Muniategi'tar Sabin)	34
Itxaso (Muniategi'tar Sabin)	35

Egun argitzen (Muniategi'tar Sabin)	37
Neska gaztea (Muniategi'tar Sabin)	37
Emantza (Muniategi'tar Sabin)	38
Neurekerak (Muniategi'tar Sabin)	40
Umezaroko (Muniategi'tar Sabin)	41
Segundo Olaeta (R. Galdos, S. J.)	42
Biotz-biurri (Arrinda'tar A.)	43
Larunbat Santuz (Arrinda'tar A.)	44
Hermana Filomena'ren lorea (L. Arostegi)	46
Asaben arnasa (Luis Baraiazarra)	47
«Gaua gauekoentzat» (L. Baraiazarra)	48
Euskal baseria (Uxola)	52
Ardoaren zerutasuna (Uxola)	53
Nere billobatxoak (Uxola)	53
Biotz bi (A. Zubikarai)	54
Ardura (A. Zubikarai)	55
Urre dizdira (A. Zubikarai)	55
Itauna (A. Zubikarai)	56
Emaztearen negarra (A. Zubikarai)	57
Ots illuna (Igotz)	58
Umea ta bildotsa (Gallastegi Klaudio)	59
Euskeraren malkoak (Goiria)	60

ITZULPENAK

Poema (Boris Vian-Muniategi)	67
Illuntze (M. Altolagirre-Muniategi)	67
Andre eriotz ta jaun maitasun (L. Felipe-Muniategi)	68
Seaska (J. Ibarburu-Muniategi)	68
Emakume (J. Ibarburu-Muniategi)	70
Naikunde (J. Ibarburu-Muniategi)	70
Bidazti izan (L. Felipe-Muniategi)	71
Velazquez'en Vallecas'ko mutikoarentzat oñarria (L. Felipe-Muniategi)	72
Poema txikiak (L. Felipe-Muniategi)	73
Igokundea (L. Felipe-Muniategi)	75
Otoitza (L. Felipe-Muniategi)	76
Matxinada (L. Felipe-Muniategi)	76
Kristo (L. Felipe-Muniategi)	77
Argi eta illunaren seme (M. Hernandez-A. Bigaguren)	77

Neure anaiarentzat: gerra ekintzan galdutzat emona, 1943 (T. Merton-L. Arostegi)	82
Otoitz-era bi (T. Merton-L. Arostegi)	83
Espetxe bat bear da andrentzat (T. Merton-L. Arostegi). Maite negua landareak ezer ez diñoanean (T. Merton-L. Arostegi)	84
Gogai, utsune arrotz (K. Wojtyla-S. Onaindia)	86
Iturri garden (D. Dublé Urrutia-I. Berakoetxea)	87
Zuen umeak ez dira zuen ume (Khalil Gibran-I. Bera- koetxea)	92
Esopo'ren ipuiñak (Igotz)	94
Garbitokia (Dante-A. O.)	95
	98

BERTSOLARIAK

Itxasontziko Txo berria (Uxola)	105
1979'eko aiton-amonei emandako jaialdian botatako ber- tsoak (Usagarra-zar)	116
Ongi etorri Lendakari jauna (Usagarra-zar)	117
Gora, Itxarkundia-tarrak! (Usagarra-tar)	118
Azken agurra, Arrigorriaga'ko nere adiskide izandako Patxi Ibarretxe'ri (Korkostegi'tar Xanti)	120
Bidasoa (Korkostegi'tar Xanti)	123
On Joakin Bermejo (G. B.) (Ibai-ertz)	127
Gogarteak (Untzillaitz-Agerre)	128

IRITZIA

Eusebio Erkiaga, «Endaitz» (Muniategi'tar S.)	135
Euskal eta Europa'r olerki lirikua gaztaroaren ondare (J. Urkiza-I. Berakoetxea)	149
Santa Teresa, olerkari (Aita Onaindia)	160
Olerti Eguna, 1982	167

